

**Maj Berg eta Marie Hertin,
proiektuburuak**

Euskararako itzulpena:

Emun s.coop

ArbetSam

Arbetsplatslärande

Copyright: Lidingö stad och Stiftelsen Stockholms läns Äldrecentrum
Ändringar i materialet får endast göras efter författarnas medgivande



Ikaskuntzarako lantokia

Irakasleentzako gida



EUROPEISKA UNIONEN
Europeiska socialfonden

äldrecentrum
FÖRSKNING & UTVECKLING 

 **LIDINGÖ STAD**

Egileak: Maj Berg eta Marie Hertin
Euskararako itzulpena: Emun s.coop
Diseinua eta argazkia: Lars Bergström
Argitaratzailea: Lidingö stad (Lidingö, Suedia)
2014ko urtarrila

AURKIBIDEA

HITZAURREA

SARRERA

SpråkSam proiektua (2009-2011)

ArbetSam proiektua (2011-2013)

Funtsezko terminoak eta kontzeptuak

1. ZATIA - LANTOKIAN IKASTEN

Jakintza

Gaitasuna

Gaitasuna erakunde batean

Ikaskuntza

Lantokian ikasteko programak

Lantokiko ikaskuntza integratua

Ikaskuntzarako lantokia

Ikaskuntzarako lantokia labor azalduta

Irakaslearen rola

Ikaskuntza eredu Koherentziaren Senari(KS) jarraituz

KS - lantokiko ikaskuntzarako programetarako tresna bat

Zaintza laneko langileen gaitasuna

Gaitasun profesionala

Hizkuntza trebetasunak

Hizkuntza gaitasuna

Lantokiko ikaskuntza integraturako plangintza

Osasun eta gizarte zaintzako ikastaroak eta suediera hizkuntza osagarri gisa ikasteko ikastaroak uztartzea

2. ZATIA - PLANGINTZA, METODOAK ETA JARDUERAK

Irakasten hasi aurretik

5 Programa abiarazteko garaian 34

6 Balioztatzea - aurretiazko ikaskuntzari balioa emateko bide bat 40

6 Hizkuntza garatzeko jarduerak 45

6 Hizkuntzaren garapena eta ikaskuntzaren inguruko bilerak partaideen artean 46

7 SpråkSam proiektuko irakasleek erabilitako lanerako metodoak 47

9 Zaintza arloko lana eta Suediera uztartuta SpråkSam proiektuan 47

10 hizkuntza maila baxuko taldeetan

11 Zaintza arloko eta suedierako ikaskuntza uztartua SpråkSameko 50 taldeetan, suediera maila nahiko ona dutenekin

11 Maila ezberdinekoak elkarrekin dauden taldeetan zaintzako 51 gaiak eta suedieraren ikaskuntza egokitzea eta uztartzea

12 Osasun eta gizarte zaintzaren ikaskuntza eta hizkuntzaren 53 garapena uztartzea testuliburu liburu baten bidez

13 Benetako kasu azterketa. Lantokiko kudeatzaileak eta 53 irakasleak elkarrekin garatua

14 Irakasleak eta kudeatzaileak lantokian elkarlanean - lantokiko 54 ikaskuntza integratua

21 Lantokiko ikaskuntza integratua, arlo sozialeko dokumentazioa 55

21 Banakako eta erakunde mailako ikaskuntza bateratzen dituen 57 proiektuko lana

23 Hausnarketa 58

23 Ikaskuntza programaren ebaluazioa eta amaiera 61

24 ERREFERENTZIAK ETA BIBLIOGRAFIAREN ETA TXOSTENEN 62

25 ERREFERENTZIAK

29 1. ERANSKINA: hiru norabideko eztabaida 64

30 2. ERANSKINA: tokiko ikaskuntza programaren plana 66

33 3. ERANSKINA: banan banako ikaskuntza planaren txantiloia 72

Mila esker!

Eskerrak eman nahi dizkiegu SpråkSam eta ArbetSam proiektuetan parte hartu duten irakasle guztiei. Gida honen edukiak lantokiko ikaskuntza bideratzen izandako esperientzietan daude oinarrituta. Espero dugu eskuzabaltasunez partekatu dituzun esperientzia eta lanerako metodoak beste irakasle batzuentzako lagungarri eta oinarri izatea etorkizunean.

Lidingö, 2013ko maiatza

Maj eta Marie

HITZAURREA

Gida hau zaintza arloko trebatzaileentzako eta helduen hezkuntzan zaintza arloko langileekin lan egiten duten bigarren hizkuntzako irakasleentzako da. Erabilgarria da helduen irakaskuntzan lan egiten duten irakasleentzako eta irakasteko modu berriak ezagutu nahi dituztenentzako ere.

Maj Berg eta Marie Hertin, gidaren egileak, zaintzan aritutakoak dira eta eskarmentu handia dute osasun eta gizarte zaintzako trebatzaile gisa; bai lantokietan, bai helduen hezkuntzako erakundeetan. Trebatzaile lanetan duten esperientzien artean daude, besteak beste, suediera hizkuntza osagarri gisa irakasten duten irakasleekin egindako kolaborazioak, hizkuntza eskola praktikoetan txertatzeko. Gainera, Marie arlo psikosozialeko kudeatzaile lanean ere aritua da eta eman izan dizkie langileei eskolak hausnarketan oinarritutako praktika taldeak gidatzeari buruz. ArbetSamen, Maj eta Marie proiektu gidariak izan dira.

ArbetSam proiektua Stockholm eskualdean gauzatu zen 2011tik 2013ra. Europar Batasunak finantzatzutako proiektu handi honek lanerako trebetasunen garapena eta hizkuntzaren garapena uztartu ditu adinekoekin eta desgaituekin lan egiten duten zaintzako lehen lerroko langileentzako. Maj eta Mariek egin izan dituzte SpråkSam proiektuan antzeko lanak. Proiektu hori, alderdi askotatik, ArbetSamen aurrekaria izandako proiektua da.

Kerstin Lahti eta Marie Soderström ArbetSam proiektuaren beste gidariekin batera, Mariek trebakuntza garatu du hausnarketan oinarritutako praktika taldeen gidarientzako eta Maj, berriz, ArbetSamen proiektu gidari nagusia den Kerstin Sjösvärdekin batera aritu da ArbetSamen lantokiko hizkuntza laguntzaileentzako trebakuntza garatzen.

ArbetSam eta SpråkSam proiektuetan talde txikietan egin dute lan asko, lantokian bertan. Lanpostuaren eskakizunak betetzeko trebetasun profesionalak eta hizkuntza trebetasunak garatzeko beharra zuten langileentzako izan da trebakuntza.

ArbetSameko proiektuburu izan zirenez, Maj eta Mariek irakasleentzako hasierako trebakuntza eta jarraipenerako sareko bilerak diseinatu zituzten. Proiektuaren kudeaketa taldeko beste kide batzuekin batera, laguntza eta gidaritzaren eskaini zieten irakasleei, zaintza arloko kudeatzaileei, hizkuntza laguntzaileei eta hausnarketadun eztabaiden gidariei; hori guztia proiektuan ikasteko eta hizkuntzak garatzeko lantokiak eraikitzeke egiten den lanarekin batera.

Irakasle partaide batzuentzako erronka eta erabateko ikuspegi berria ekarri zituen ArbetSamek. Ikaskuntza lantokian eta langileen beharretan oinarrituta diseinatu zuten. Suediera hizkuntza osagarri gisa ikasteko irakaskuntza osasun eta gizarte zaintzako curriculumaren baitan gauzatu zen.

Hizkuntza irakasleak oso eskakizun ezberdinak izaten ditu lantokian ikasteko programetan eta ohiko ikasgeletako programetan. Irakasleek enplegatzaileen helburuak kontuan hartu behar dituzte; baita ikasleenak ere. Irakasleen zeregina gehiago dago aholkularitzan oinarrituta eta negozio garapenerako gaiak jorratu behar dituzte.

Prestaketarekin hasteko, irakasleak eta kudeatzaileak eta giltzarri diren langileek, elkarlanean, negozioaren helburuetan oinarritutako curriculum bat garatzen dute. Prestaketa fase horretan, irakasleak ikastaroan parte hartuko duten langileek arlo profesionalean eta hizkuntzan dituzten beharrak ere identifikatzen ditu.

Hizkuntza irakasleek bakarrik lan egin izan dute, ezarritako curriculum helburuak kontuan hartuta. Lantokian ikasteko, berriz, askoz malgutasun handiagoa eta komunikatzeko eta pertsonen arteko harremanetarako trebetasun gehiago behar dira. Hizkuntza irakasleek arlo profesionaleko trebatzaileekin koordinatuta aritzeko duten beharra horren adibide ona da.

Proiektuak iraundako denbora tartean, Maj eta Mariek elkarrizketa irekiak izan zituzten proiektuko irakasleekin. Gainera, lantokian eta sareko bileretan gidaritzaren eskaini zuten arlo profesionaleko irakasleak eta hizkuntzakoak elkarrekin aritutakoan. Horri esker, lantokian ikasteko metodoak eta tresnak garatzeko lanean gertutik hartu zuten parte proiektuko irakasleek. Gida honetan deskribatu ditugu metodo eta tresnak horiek. Tresna eta metodo horiek hainbat proiektutan probatu eta hobetu ditugu, denbora tarte luzean. Askotarikoak dira: hizkuntzari buruzko ebaluazioak, jakintza eta trebetasunak balioztatzea, arlo profesionaleko eta hizkuntza arloko gaitasunak identifikatzea, txostenak egitea eta ariketak eta lanak ikasgelan.

Eskuliburuaren hasieran, proiektuak lantokian ikasteari buruz dakarren ikuspegiak ardatz dituen kontzeptu teoriko batuk aztertu ditugu. Kontzeptu horiek proiektuen esperientzietatik, azterlanetatik eta ikerketetatik ateratu ditugu. Lantokian ikasteari buruzko interesa duen edonork lagungarri izango du teoria pixka bat jakitea.

Lars Bergström, Informazio arduraduna,
ArbetSam proiektua

SARRERA

Gida hau lantokiko ikaskuntzari eta hizkuntza garapenari buruzko SpråkSam eta ArbetSam proiektuen emaitzetan oinarrituta dago. Adinekoak eta desgaitasunak dituztenak zaintzen aritzen diren Stockholm eskualdeko 130 lantokik hartu zuten parte proiektuetan. Europako Gizarte Funtzak finantzatu zituen SpråkSam eta ArbetSam proiektuak.

SpråkSam (2009-2011)

SpråkSam proiektuak hizkuntza du ardatz. Proiektuaren bidez, hizkuntza ikaskuntza osasun eta gizarte zaintzako hogeita hamar lantokitako 300 langilerengana iritsi zen eskola praktikoen bidez. Trebakuntzaren helburua langileei suediera hizkuntza osagarri gisa ikasten laguntzea zen, laneko zereginak egiteko beharrezko hizkuntza trebetasunak gara zitzaten, eta lanbide heziketan modu esanguratsuan parte har zezaten. Proiektuak aukera eman zien zaintza profesionaleko trebatzaileei eta etorkinentzako suediera irakasleei tokiko zaintza kudeatzaileekin eta hizkuntza laguntzaileekin elkarlanean aritzeko. "Hizkuntza laguntzaile" haiek zaintzako langile boluntarioak ziren¹ eta proiektuak trebakuntza eskaini zien lantokian hizkuntza garapena sustatzeko. Besteak beste, lankideei laguntza ematea etxerako lanak egiteko, lantokiko dokumentazioa erabiltzeko eta zerbitzuen erabiltzaileekin eta haien familiekin nahiz lankideekin komunikatzeko. Lantokian hizkuntza ikasteko laguntza hori gauzatzen laguntzeko, hizkuntza laguntzaileek ere trebakuntza jaso zuten lankideak sentsibilizatzearen inguruan eta kudeatzaileek, berriz, jendeak bigarren hizkuntza ikasten duen moduaren inguruan.

SpråkSam proiektuaren behin-behineko ebaluazioak Stockholmeko Udala konbentzitu zuen beste 10 milioi koroa proiektura bideratzeko, hala proiektua hiriko lantoki gehiagotara hedatzea zedin. Hala, beste 300 langilek hizkuntza trebetasunak hobetzeko aukera izan zuten eta beste hogeita hamar lantokik (1.500 langile inguru) SpråkSam proiektuaren onurak jaso zituzten.

SpråkSam proiektuaren ardatza lantokiko ikaskuntzan lantokiak parte hartzea zen. Oinarri nagusia zera zen, hizkuntza garatzearen ardura, onena, lantokiko denen artean berdinduz banatzea dela.

ArbetSam proiektua (2011-2013)

SpråkSam proiektuan eta Stockholm eskualdean lehenagotik lantokietan egindako ikaskuntza proiektuetan (Kompetensstegen, Learning Fund - Ikaskuntza Funtsa- eta APU) garatutako metodoak eta teknikak sakonago garatu ziren ArbetSam proiektuan (Lantokiko garapena, 2007-2008).

ArbetSam proiektuak osasun eta gizarte arloko zaintzarako trebakuntzarako programa ekarri zien 650 langileri astean egun erdiz, hiru edo lau seihilekotan, partaideen trebakuntza beharren arabera suediera ikastearen inguruan. Trebakuntzaren edukia tokiko lantokian aholkularitzan oinarrituta egon zen eta ArbetSam proiektuko irakasleek ohiko programetan baino askoz gertuagotik landu zuten elkarlana zaintzaren tokiko kudeatzaileekin.

Trebakuntza formalarekin batera, laguntza eta gidaritzaren ere eskaini zien proiektuak lantokiei lantokian ikastearen inguruan kultura iraunkorra eraikitzeko helburuarekin. Xede hori gogoan hartuta, ArbetSam proiektuak bi funtsezko eginkizun garatu zituen: lantokiko hizkuntza laguntzaile eta hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidaria. Proiektuak, guztira, 100 hizkuntza laguntzaile eta hausnarketan oinarritutako eztabaidetarako 80 gidari trebatu zituen. Hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariek eta haien lantokiek lantokian hausnarketak egituratzeari buruzko gidaritzaren ere jaso zuten. Hausnarketan oinarritutako eztabaidetan, langileek elkarrekin eztabaida dezakete eguneroko laneko egoera zailen inguruan eta teoriaren eta praktikaren arteko loturak egin. Horretarako, langileei eztabaidaren bidez zaintzaren inguruko hainbat egoera profesionaltasunez lantzen irakasten zaie.

ArbetSam Europako Gizarte Funtzak finantzatutako proiektu garrantzitsuenetakoa bat da. Proiektuak 35,7 milioi koroako zenbatekoa izan zuen eta 3.000 langile ingururena iritsi zen.

Lars Bergström, Informazio arduraduna,
ArbetSam proiektua

¹Ingeleserako itzultzailearen oharra: Alegia, zaintza langileak ziren eta hizkuntza laguntzaile funtzioa haien borondatez hartu zuten, hargatik gehigarririk kobratu gabe.

ArbetSam proiektua (2011-2013)

PROIEKTUAREN HELBURUAK:

- Ikaskuntzarako lantokiak eraikitzea
- Hizkuntza garatzeko aukerak sortzea
- Trebetasun profesionalak indartzea

ArbetSam Lidingö hiriak garatu eta gauzatu zuen Stockholmeko Gerontologiako Ikerketa Zentroarekin elkarlanean. Proiektua Europako Gizarte Funtsak finantzatu zuen.

Kideen artean, Stockholm, Solna, Sundbybergeko tokiko agintariak; baita Botkyrka, Tyresö, Norrtälje eta Järfällakoak ere. Parte hartutako enplegataileak, berriz, Temabo, Legevisitten, Inblasa, Silverhemmen eta Förenade Care.

Elkartutako kideak, berriz, hauek: Stockholmeko unibertsitatea, Södertörn unibertsitatea, Stockholm eskualdeko Eskualde Administrazioarako Batzordea, Suediera bigarren hizkuntza gisa ikasteko Zentro Nazionala, Norrtälje Helduen Udal Hezkuntzarako zentroa, MedLearn, Carpe eta Aldreliv.

Nazioarteko lankideak, beste herrialde batzuetan antzeko proiektuak eta jarduerak dituztenak: OKUS Alemanian, Cornwall Works 50 + eta Skills for Care Erresuma Batuan.

Suediako proiektuak: Inclusive Europe eta Networking Europe.

ArbetSam zenbakitan

35,7 milioi koroa suediarreko aurrekontua (gutxi gorabehera 4 milioi € /3,4 £)

650 langilek jaso zuten trebakuntza lantokian

75 gunek hartu zuten parte proiektuan

3.000 langilek hartu zuten parte lantokiko ikaskuntzan

100 hizkuntza laguntzaile eta hausnarketan oinarritutako eztabaidarako 80 gidari trebatu ziren lankideei laguntzeko eta kalitatea hobetzeko.

Funtsezko terminoak eta kontzeptuak

Gidaren muineko zeinbait kontzeptu landu eta azalduko ditugu hemen. Espazioari eta estiloari lotutako arrazoiak medio, kasu batzuetan hitzak aukeratu ditugu azalpen luzeago eta zehatzagoen orde. ArbetSam proiektuko funtsezko partaideetako bat ere deskribatu dugu.

Langileak

Adinekoak eta desgaitasunak dituzten pertsonak zaintzen dituzten langileak hainbat testuingurutan aipatzen dira; hala nola osasun arloko profesionalak osasun eta gizarte zaintzako langileak edo zaintza arloko langilea. Beraz, adinekoei eta desgaitasunak dituztenei osasun eta gizarte arloko zaintza zerbitzuak zuzenean eskaintzen dizkien horiek guztiak izendatzeko "langileak" terminoa erabiltzea erabaki dugu.

Zaintza

Termino hau erabiltzean, adinekoei eta/edo desgaitasunak dituztenei ematen zaien zaintzaz ari gara.

Kudeatzailea

Termino honek zaintzako erakundeetako kudeatzaileei egiten die erreferentzia.

Partaideak eta ikasleak

Partaideak aipatzean, lantokiko trebakuntzan parte hartzen duten langileez ari gara. Ikasleak aipatzean, berriz, helduen hezkuntzarako erakunde bateko ikastaro batean izena emandako pertsonaz ari gara.

Bigarren hizkuntza suedierako irakaslea

SFI edo SVA programetan irakasteko prestakuntza jaso duten irakasleak dira horiek.



SFI

SFI etorkinek suediera ikasteko Suediako programa ofiziala da. SFI ikastaroak hasiberrientzako mailatik hasi eta maila ertainera izaten dira.

SVA

SVA Suediera bigarren hizkuntza gisa ikasteko eskolak dira. SVA ikastaroak maila ertainetik hasi eta maila aurreratura artekoak izaten dira.

Ikastaroetako materiala

Ikastaroetako materiala esaten diogu helduen hezkuntzan erabiltzen den materialari.

Giltzarri diren langileak

Gure testuinguruan, lantokian giltzarri diren langileak esaten diegu erizain laguntzaileei, erizainei, terapeutei eta lantokian hezkuntza zeregin espezifiko bat duten langileei. Horien artean daude hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariak, mentorea, hizkuntza laguntzailea, dokumentazio laguntzailea, elikatzeko laguntzaileak eta beste batzuk. SpråkSam proiektuak lantokiko hizkuntza laguntzaileak garatu zituen eta ArbetSam proiektuak, berriz, hizkuntza laguntzaileak eta hausnarketan oinarritutako eztabaidetako gidariak.

Hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidaria

ArbetSam proiektuak hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariak trebatu zituen. Trebakuntzaren helburua hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariei lantokiko lankideekin gisa horretako eztabaidak gidatzen erakustea da. Ikasleek zazpi eguneko trebakuntza presentziala jaso zuten hausnarketan oinarritutako eztabaidak gidatzearen inguruko lan praktikoeekin tartekatuta. Taldeko tutoretzak ere izan zituzten.

Hizkuntza laguntzaileak

Hizkuntza laguntzaileek sei eguneko trebakuntza jaso zuten bigarren hizkuntza garatzen eta eskuratzearen inguruan. Trebakuntza eta jarraibideak jaso zituzten lanean hizkuntza trebetasunak garatzeko sortzen diren aukerak identifikatzeko eta sustatzeko. Beraz, trebakuntza saioetan, lankideei laneko askotariko zereginetan hizkuntza aldetik nola lagundu ikasi zuten. Hizkuntza laguntzaileek irakasleekin lan egin zuten partaideei ikasteko laguntza, irakasleei laguntzeko lantokirako materiala eta abar emateko.

1. ZATIA - LANTOKIAN IKASTEN

Liburu hau partaideen lantokian egiten diren ikastaroetan irakasleek duten zereginari buruzkoa da. Gure ildoeri errazago jarraitzeko, lehenik, hainbat kontzeptu nola erabili eta interpretatzen ditugun azalduko dugu:

- Jakintza
- Gaitasuna
- Ikaskuntza
- Lantokian ikasteko programak
- Lantokiko ikaskuntza integratua
- Lantokiko ikaskuntza

Kontzeptu horiek esanahi bat baino gehiago izan ditzakete bai irakasleentzat, bai lantokian irakasleekin aritzen direnentzat. Gure esperientziaren arabera, irakasleentzat, kudeatzaileentzat, giltzarri diren langileentzat eta partaideentzat lagungarria da kontzeptu horiek azaltzea eta argitzea, denok berdin ulertzen. Horrek ikaskuntza prozesuan lankidetzan aritzen laguntzen du eta txikitu egiten du gaizki ulertzeak izateko arriskua.

Jakintza

Irakasleak jakintzaren inguruan duen kontzeptuak eragin egiten dio eskolen plangintzari eta gauzatzeari. Partaideekin duen interakzioari ere eragiten dio. ArbetSam eta SpråkSam proiektuetako ikastaroak jakintza teorikoa ezin dela praktikatik bereizi dioen printzipioan daude oinarrituta. Alegia, teoria eta praktika elkarrekin doaz. Partaideen esperientzia praktikoa haien jakintza teorikoa garatzeko eta sakontzeko erabiltzen da. Horretarako, partaideei lagundu egiten zaie duten jakintza praktikoa adierazten eta, ondoren, jakintza teorikoarekin lotzen.

Partaideen esperientzia zaintza jasotzen dutenekin eta ahaideekin zaintza egoeretan duten harremanean egon daiteke oinarrituta. Egoera askotan, partaideek (zaintza arloko langile diren aldetik), nahi gabe lehendik duten esperientziara eta dituzten balioetara joko dute. Hainbat motatako jakintza eta trebetasunak erabiliko dituzte; besteak beste, etikaren arloko jakintza eta enpatia. Dituzten jakintza eta trebetasunak, seguru asko, osasun eta gizarte zaintzako irizpide eta balioek eta lantokiko kulturak baldintzatuko zituzten. Esperientzian

oinarritutako jakintza hori, esan gabea izaten da askotan; hau da, adierazi gabea.

Esperientzia praktikoa jakintza teorikoarekin lotzeko, partaideek haien lana egiten duten moduari eta modu horren atzean dauden balioei buruzko hausnarketa egiteko gaitasuna eta borondatea izan behar dute. Zaintza lanak aukera zailak egin beharra ekar diezaike langileei. Egoera ezezagunetan, langileak esperientziarik eta jakintza teorikorik ez badu, segurtasun falta izango du zaintza jasotzen dutenekin, haien ahaideekin eta lankideekin nola jokatu jakiteko. Langileei zaintzako hainbat egoerari buruz hausnartzen laguntzeak arazo hori konpontzen lagun dezake.

Partaideek duten esperientziari eta lantokiko gertaera jakinei erreferentzia eginda, irakasleak aukera emango die hainbat motatako jakintza bateratzeko. Nabarmendu dugu lehen ere praktika eta jakintza teorikoa uztartzearen garrantzia. Jakintza praktikoa eta teorikoa arteko bereizketa argitze aldera: jakintza lau arlotan bana daiteke:

- **Egitateak** - zer jakitea: Egitatean oinarritutako jakintza teorikoa da, izaeraz kuantitatiboa eta balioan unibertuala. Ikaskuntza formalaren bidez eskuratutako jakintza, askotan, mota honetakoak izaten da.
- **Ulermena** - zergatik jakitea: Ulertzeak egitateak esanguratsu egiten ditu. Ulermenak izaera kualitatiboa du eta tokia uzten die modu batean baino gehiagotan uler daitezkeen fenomenoei. Egitateak eta ulermenak elkarri oso lotuta daude. Egitatean oinarritutako jakintza ulertzen dugunean, haren funtsa edo esanahia barneratzen dugu.
- **Trebetasuna** - nola jakitea. Jakintzaren balioa zer egin eta nola egin jakiten laguntzean datza. Trebetasunak esperientzien bidez hartzen dira eta jakintza mota praktikoa dira.
- **Ezagutza sakona** - hau da, adierazi gabeko jakintza, esperientziaren bidez eskuratutakoa: Adierazi gabeko jakintza antzeko egoerak behin baino gehiagotan bizituta eskuratzen da. Esperientzia horiek pertsonaren balioekin eta erakundeko arauz eta prozedurez duten ulermenarekin uztatzen dira².

²Bildning och kunskap. Särtryck ur läroplanskommitténs betänkande skola för bildning (SOU 1992:94). Sid 30-34; [Hezkuntza eta jakintza. Ikastetxeko hezkuntzarako curriculum batzordearen txostenetik birrinprimatua (SOU 1992:94). 30-34] Otto Granberg. Lära eller läras. Om kompetens och utbildningsplanering i arbetslivet. (Lund: Studentlitteratur, 2009). Sid 108-109.[Otto Granberg Irakatsi edo ikasi. Trebetasunak eta hezkuntzaren plangintza lantokian. (Lund: University Press, 2009). 108-109 or.]



Ikaskuntza ez dago ikasgelara mugatuta. Lantokian, etengabe sortzen dira ikasteko egoerak; adibidez zaintzaren plangintza egiteko bileretan

Lantokiko ikaskuntza programek jakintzaren forma horiek guztiak uztartzeko aukera bikaina eskaintzen diete irakasleei. Aukera hori baliatzeko, irakasleak ziurtatu behar du partaideek haien ikaskuntzan parte hartzen dutela. Horrez gain, irakasleak kudeatzaileekin eta giltzarri diren langileekin ere elkarlanean aritu behar du. Itzuliko gara berriro gai horretara.

Gaitasuna

Gaitasuna jakintza baino kontzeptu zabalagoa da. Gaitasuna, esan dezakegu, pertsona batek lan edo zeregin bat eraginkortasunez egiteko duen ahalmena dela.³ Jo dezagun zaintza egoera batean pertsona batek demenzia duela, laguntza behar duela goizean jakitzeko, komunera joateko eta arropak aukeratu eta janzteko. Langileek eraginkortasunez jokatzeko duten ahalmenean sartzen da egoera nola irakurtzen duten, nola jokatzeko duten eta segimendua nola egiten zaien. Gaitasun profesionala pertsonak teoriarik eta praktikan

duen jakintzan dago oinarrituta. Hainbat trebetasun sartzen dira hor⁴ eta bost kategoriatan sailka daitezke:

- Trebetasun kognitiboak: Trebetasun intelektualei esker, pertsonak haien jakintza teorikoa lan praktikoa bihurtzen dute. Goiko adibideari begiratuta, langileek demenziari, errehabilitaziorako aukerei eta oinarrizko higieneari buruz duten jakintza teorikoa lan praktikoa erabil dezakete. Trebetasun kognitiboetan sartzen da ekintzak ebaluatzeko ahalmena ere.
- Afektibitateari lotutako trebetasunak: trebetasun emozionalak dira eta zaintzaren jasotzaileekiko eta haien ahaideekiko enpatia eta konpromisoa sentitzea ahalbidetzen dute.
- Trebetasun psikomotorrak: Pertzepzioari lotutako trebetasun kognitiboak dira trebezia fisikoei lotuak. Besteak beste, eskuez gauzak egiteko erabiltzen dira.

³Per-Erik Ellström och Glenn Hultman (red.). Lärande och förändring i organisationer. Om pedagogik i arbetslivet. (Lund: Studentlitteratur, 2004). Sid 202-203. [Per-Erik Ellström eta Glenn Hultman (Eds.). Ikaskuntza eta aldaketak erakundeetan. Hezkuntza lantokian. (Lund: University Press, 2004). 202-203 or.]

⁴Ibid; Granberg, 99-106 or.

⁵Granberg

Zaintzaren testuinguruan, trebetasun psikomotorretan trebetasun praktikoak eta komunikazioa behar dira. Zaintza jasotzen duen pertsona bati inkontinentziarentzako babesak aldatzeko, esku ona eta zaintza jasotzen duenari parte hartzeko aukera eta ahalmena emango dion komunikazioa behar dira.

- Harremanetarako trebetasunak: Pertsonen jokabideari eragiten diote. Harremanetarako gaitasunei gure buruaz dugun pertzepzioak, gure buruaz dugun kontzientziak eta autoestimua ematen diete forma. Gure buruaz dugun kontzientziak eta irudi positiboa izateak lagundu egiten du zaintzako egoera zailetan; adibidez, maite dutenagatik kezkatzen diren ahaideek zalantzan jartzen dutenean langileek ematen duten zaintza. Langileek harremanetarako trebetasunak garatu badituzte, errazago hartuko dute rol profesionala alde pertsonaletik defentsiban jarri beharrean, edo ahaideekin topo egitea saihestu beharrean.
- Trebetasun sozialak: Trebetasun horiek langileei lagundu egiten diete zaintza jasotzen dutenekin eta haien ahaideekin nahiz lankideekin harremanak sortzen. Langileek, trebetasun horiei esker, hainbat motatako zaintza egoeratan egin dezakete lan.

Gaitasuna erakunde batean

Gaitasunaren ideia erakundera, bere osotasunean hartuta, zabal dezakegu. Zer da erakunde baten gaitasuna?

Erakundeetan pertsona kopuru jakin bat egoten da eta bakoitzak bere gaitasun eta trebetasun profesionalak ditu.

Erakundearen gaitasuna pertsona bakoitzaren gaitasun eta trebetasun horien interakzioaren emaitza da. Horretarako, erakundeak arretaz hausnartutako estrategia argi bat izan behar du.

Horrela, aukera gehiago izango dira lantokian gaitasun kolektiboa garatzeko; hau da, erakundearen gaitasuna⁵

Ikaskuntza

Ikaskuntza nonahi eta modu askotan gauza daiteke: eguneroko bizimoduan, eskolan eta lanean. Ematen dituzten eskolak ezarritako gaietan eta ikasturteen deskribapenetan oinarrituta diseinatzen ohituta daude hezkuntzaren munduko irakasleak. Ikaskuntza formala esaten diogu horri. Baina osasun eta gizarte arloko zaintzan lan egiten duten partaideen artean, ikaskuntza eguneroko zaintzan ere egiten dute lankideekin, zaintzaren hartzaileekin eta ahaideekin elkarlanean. Ikaskuntza informala da hori eta zaintzaren hartzaileekin otorduetan duten harremanean edo haien ahaideekin dituzten elkarrizketetan gauzatzen da. Laneko beste egoera batzuek ere ematen dute ikasteko aukera: lantokiko bilerak, hausnarketan oinarritutako eztabaidak eta ikuskatzeak. Egoera horietan ere ikaskuntza ez formala egiten da.

Osasun eta gizarte arloko zaintza lanetan izaten diren ikasteko moduak honela labur ditzakegu:

- Ikaskuntza formala: Hezkuntzan egiten den ikaskuntza. Helburu garbi bat, xedeak eta eduki jakin bat izaten ditu.
- Ikaskuntza ez formala: Lantokian modu egituratutan egiten den ikaskuntza; adibidez, lantokiko bileretan, hausnarketan oinarritutako eztabaidetan, ikuskatzeetan eta taldeko informazio saioetan.
- Ikaskuntza informala: Eguneroko zaintza lanean egiten den ikaskuntza; lankideekin, zaintza jasotzen dutenekin edo haien senideekin elkarlanean.

IKASKUNTZA INFORMALA

Eguneroko bizimoduko egoerak/gertaerak

Lanean, zaintza jasotzen dutenekin, haien ahaideekin eta/edo lankideekin izaten diren eguneroko interakzioak

HEZKUNTZA EZ FORMALA

Hausnarketan oinarritutako eztabaida taldeak

Lantokiko bilerak

Tailerrak

Ikuskatzeak

IKASKUNTZA FORMALA

Tokiko ikastaroak

Nazio mailako ikastaroak

Hezkuntza

Gure esperientziaren arabera, lantokiko trebakuntza jasotzen ari diren partaideei zaila suertatzen zaie eguneroko lanean egiten duten ikaskuntza ikustea eta deskribatzea. Gehienetan, partaideen ikuspegitik, ikaskuntza formala da "benetako" ikaskuntza. Hainbat faktore egon daitezke horren atzean; adibidez, partaideek hezkuntzen lehendik duten esperientzia edo lantokian partaideen rolaren eta erantzukizunen inguruan eta ikaskuntzaren inguruan dauden jarrerak.

Partaideek ikaskuntzaren inguruan duten kontzeptuaren arabera, batzuetan, jakintza irakaslearengandik, hezkuntzako adituarengandik eskuratzea bilatzen dute. Era berean, irakasleek ere, batzuetan, ikaskuntza formalaren tradizioak eta ikasgelako eskolak izaten dituzte barneratuta.

Beraz, garrantzitsua da irakasleek ikaskuntzari buruz duten ikuspegiari buruz hausnarketa egitea. Irakasleentzako funtsezkoa da ikaskuntzako jarduerak planifikatzeko eta bideratzeko modua, ikaskuntza modu ezberdinak uztartu eta elkar indar dezaten. Horretarako, konpentsazioak egin eta oreka bilatu behar izaten dute. Batetik, ikaskuntza formalak, bere egitate eta teoriekin, partaideei lagundu egiten die lantokiko ikaskuntza informala barneratzen eta hari buruzko hausnarketa kritikoa egiten. Bestetik, partaideek eguneroko lanean hartzen duten esperientzia praktikoak ikaskuntza formalaren egitateak eta teoriak ulertzen laguntzen die. Ikaskuntza informalak, lantokiko adibideekin, esanahia eman diezaioke ikaskuntza formalari.

Eskakizunetan eta garapenean oinarritutako ikaskuntzak

Ikaskuntza deskriba daiteke eskakizunen eta garapenaren ikuspegitik ere. Kontzeptu horiek berriak izan daitezke irakasleentzako, baina ondo finkatuta daude jada erakundeen testuinguruan eta lagungarria da irakasleak ezagutzea. Eskakizunetan oinarritutako ikaskuntzan, langileek hainbat zereginetan dituzten gaitasunei eutsi egiten zaie edo indartu egiten dira.

Garapeneko ikaskuntzan, zaintza arloko langileek modu kritikoan ebaluatzen dituzte lanerako metodoak eta ikuspegiak. Langileek haien laneko ereduak eta erakundearen laneko praktikak zalantzan jarri eta aztertu egiten dituzte. Egun bateko zaintza lanaren plangintza nola egiten den edo laneko gorabeherak nola kudeatzen diren izan daiteke gakoa.

Enpresa batek langileen gaitasunei eusteko eta, aldi berean, erakunde gisa garatzeko, bi motatako ikaskuntzak dira beharrezkoak.⁶

Jendeak askotariko ikuspuntuak izan ditzake ikaskuntzari buruz. Ikuspuntu hori ez da beti ikasteko estiloei lotuta egoten; hau da, pertsona batek jakintza nola barneratzen duen aisean. Batzuek gauzak eginez ikasten dute ondoen eta besteek nahiago dute lan edo prozedura bat nola egin behar den irakurri.

Ikaskuntza ikusteko modua sektore profesional batetik bestera ere alda daiteke. Historikoki, zaintza arloko langileek eskakizunetan oinarritutako ikaskuntza egin izan dute. Zaintza arloko erakundeek ez dute ohiturarik izan osasun eta gizarte arloko zaintzan, praktikan dauden laneko metodoak eta ikuspegiak ebaluatzeko. Langileek behin eta berriro errepikatuz ikasi dute lan egiten, egun batean edo bitan jarraibide labor batzuk jasota.

Hala ere, joera hori aldatzen hasia da eta lantoki askotan ikaskuntzarekiko ikuspegi integratuago garatzen hasi dira. Teoria eta praktika bateratu egin behar dira eta elkar aberastu behar dute. Erakundeek, garatzeko, biak behar dituzte, eskakizunetan oinarritutako ikaskuntza eta garapenari lotutako ikaskuntza.

Irakasleak zeregin garrantzitsua du lantokian ikastearen inguruan ulermen partekatua sortze aldera. Partaideei ikaskuntza mota batzuk eta besteak identifikatzen eta ebaluatzen laguntzeko egin behar luke lan, batez ere esperientzian oinarritutako ikaskuntzari lotuta. Partaideek, askotan, laneko jardueren bidez eskuratutako jakintza gutxietsi egiten dute. Gainera, irakasleak kudeatzailearekin hitz egin behar du, kudeatzaileak uler dezan zer onura dituen programa eta lantokiko ikaskuntza sustatzeak.

Lantokian ikasteko programak

SpråkSam eta ArbetSam proiektuetan, ikaskuntzako jarduerak lantokian edo enpresa pribatuen, eskualdeen edo udalerrien instalazio partekatuetan kokatuta egon dira. Irakasleentzat zein partaideentzat, denentzat ditu abantailak nahiz desabantailak ikaskuntza lantokian kokatzeak. Abantailen artean dago partaideentzako gertutasuna: ikaskuntza gertu eta eskura dute. Irakasleek aukera asko izaten dituzte

⁶ Ellström och Hultman.

kudeatzailearekin edo trebakuntza antolatu duenarekin bilera informalak eta formalak egiteko.

Irakasleek lantokiko materialak ere eskura izaten dituzte eta horrek partaideen ikaskuntza indar dezake. Ikaskuntza eta lantokiko errealitateak zuzenean lotzen dituzten materialek partaideek ikasteko duten motibazioa handitzen dute.

Gertutasuna negatiboa ere izan daiteke. Proiektu hauetan ikusi dugu partaideei ez zaiela beti erraza suertatzen lanpostua uztea. Partaide batzuei estresa sortu zien ikaskuntza saioa hasi aurretik eguerdiko zereginak amaitu, zaintza jasotzen dutenen bazkaria antolatu eta haiek ere bazkaldu beharrak.

Partaideentzat ikasteko giroa ona izan dadin, enplegatzaileak moldaketak egin behar ditu; adibidez, ordezkoko langileak ekarri, partaideek ikaskuntza saioetako behar adina denbora izan dezaten. Era berean, partaideen lankideek ere jakin behar dute partaideak ez direla lanpostuan egongo. Partaideei ez zaie negoziatzeko beharrik jarri behar

Lantokiko ikaskuntza erakunde baten garapenean txertatutako zati bat edo pertsona jakin batzuentzako trebakuntza bereizia izan daiteke. Lantokiko ikaskuntza txertatzeko gakoak irakasleen, kudeatzaileen eta giltzarri diren langileen arteko elkarlan eraginkorra da.

Konpromisorik eta lankidetzarik gabe, oso eragin txikia izango du erakundearen garapenean eta onurak langile batzuetara soilik mugatuko dira.

Lantokiko ikaskuntza integratua

Lantokiko ikaskuntza integratua aipatzen dugunean, erakundeak osasun eta gizarte arloko zaintzan dituen helburuetan oinarritutako ikaskuntzaz ari gara.

Kudeatzaileak, giltzarri diren langileekin batera, ikaskuntzaren edukiak zein izango diren erabakitzen du. Partaideek gai jakin batzuk erabakitzen dituzte, erakundearen trebakuntza beharren ildokoak.

Programaren egitura eta edukia elkarlanean garatzen dituzten irakasleek, kudeatzaileek eta giltzarri diren langileek. Estrategia bat ezartzen dute erakundearen eta ikaskuntza eskainiko duenaren artean lankidetzara sustatzeko. Lantokiko ikaskuntza integratua, garrantzitsua da jakintza iturri gisa lantokiko materiala erabiltzea. Irakasleek jarraibideak, eskuliburuak, trebakuntzarako materiala,

dokumentazio sistemak eta gauza gehiago atera behar dituzte lantokitik.

Gure esperientziaren arabera, lantokiko materiala erabiltzeak onura asko dakartza. Baina materiala irakaskuntzan erabili aurretik, aztertu egin behar da eta, behar izanez gero, glosarioekin osatu.

Partaideek zailtasunak izan ditzakete lantokiko materialarekin hizkuntza trebetasun mugatuak badituzte. Gainera, lantokiko benetako materialak baliteke irakaskuntzarako erraz ez egokitzea. Beraz, irakasleek oreka bilatu behar dute lantokiko benetako materialaren eta ikaskuntzarako bereziki diseinatutako materialaren artean.

Partaide batzuen kasuan, ikaskuntza formaleko materialak indartu egiten du ikaskuntza. Ikasteko teknika eraginkorrak eskuratzen lagun diezaie partaideei. Ikaskuntza formaleko materialaren beste alderdi positibo bat zera da, partaideen begietan ikaskuntzaren prestigioa areagotu egin dezakeela eta horrek ikaskuntza sustatzen du. Baina garrantzitsua da irakasleak saioen edukia zehazteko garaian, ikastaroko materiala bakarrik ez erabiltzea. Lantokiko ikaskuntza integratuak partaideen berehalako beharrei eta kezkei erantzun behar die.

Lantoki batean, adibidez, baliteke zaintza jasotzen dutenen otorduak hobetu nahian ibiltzea eta aldi berean, programa abian izatea. Irakasleek, beraz, malgutasunez jokatu eta une horretako arazoari erantzun behar dute ikaskuntza programan otorduen gaia txertatuz.

Ikaskuntza programa lantokian une bakoitzean sortutako kezkekin horrela lotzeak ikasten lagunduko die partaideei.

Ikaskuntzarako lantokia

Lantokiko ikaskuntzaren definizioan ikaskuntzako modu batzuk eta besteak sartzen ditugu: formala, ez formala eta informala. Ikaskuntza mota horiek elkarri eragin eta elkar indartzen dute.

Lantokiko ikaskuntzan, garrantzitsua da eskakizunak betetzean oinarritutako ikaskuntzari eta garapenean oinarritutakori lekua egitea.

Gaitasunak garatzeko finkatutako helburuak eta estrategia dituen kudeaketa behar da lantokiko ikaskuntzako epe luzerako kultura eraikitzeko; alegia ikaskuntzarako lantokia izateko.

Ikaskuntza formala hainbat modutan ezarri eta hainbat arrazoiengatik abiaraz daiteke. Baliteke langileek, haien ekimenez, ikastaro bat egitea erabakitzea edo kudeatzaileak langileen gaitasunak garatzeko beharra ikustea. Ikaskuntza lantokian bertan, barneko zein kanpoko trebatzaileekin, egin daiteke edo bestela, kanpoan, esaterako, unibertsitate batean. Ikaskuntzarako lantoki bat garatzeko, ez da nahikoa maila indibidualean ikaskuntza eskuragarri jartzea. Ikaskuntza laneko jardueren parte bihurtu eta erakundeari benetako onurak ekartzeko, funtsezkoak dira hauek ere:

- Jakintza eta gaitasuna lanean ikaskuntza bidez txertatzea
- Langileek ikaskuntza formalean eta bakoitzak bere ikaskuntza prozesuan modu aktiboan parte hartzea
- Ikaskuntza formalean eta lantokian, oro har, hausnarketarako aukera izatea
- Ebaluazioa (hau da, laneko metodoei buruzko azterketa kritikoa) sustatzea erakundea gara dadin
- Erakundeak jakintza berria bere egitea eta jakintza hori eguneroko zaintza lanetako prozesuak eta prozedurak hobetzeko erabiltzea

ArbetSam proiektuaren bidez, aurkitu ditugu ikaskuntzarako lantoki izatea lortu duten lantokiak. Hona hemen lantoki horien ezaugarri batzuk:

- Kudeatzaileek ikaskuntzarako lantokiarekiko konpromisoa dute
- Gaitasunak garatzearekin helburuetan oinarritutako ikuspegi estrategikoa dute, bai maila indibidualean, bai erakundearen mailan
- Lan egiten dute langileen jarrerak eta arauak garapenarekiko positiboak izan daitezen
- Langileek ere erakundearen garapenarekiko erantzukizuna hartzen dute
- Langileek elkarri laguntzen diote

- Erakundearen maila baten eta bestearen arteko komunikazioa dute; kudeatzaileek, partaideek, giltzarri diren langileek eta beste langileek elkarrekin hitz egiten dute
- Langileek-partaideek modu aktiboan hartzen dute parte eta lagundu ere egiten dute ikaskuntzako programei forma ematen. Lankidetzeta estua irakasleen, kudeatzaileen eta giltzarri diren langileen artean
- Lantokiko ikaskuntzako programako irakasleek badakizkitez lantokiko nondik norakoak eta aholkuak ematen dituzte
- Irakasleek prestatzaile eta balioztatzaile lanak egiten dituzte partaideekin (ikus [35]. orrialdea balioztatzeari buruz gehiago irakurtzeko)
- Ikaskuntza formalean partaideen zein lantokiaren beharrak hartzen dira kontuan eta horiei erantzuten zaie
- Saioetan, suediera bigarren hizkuntza gisa ikastea eta osasun eta gizarte arloko zaintzari buruzko ikaskuntza bateratzen dira
- Lantokiak baliatu egiten ditu langileek lantokitik kanpo eskuratutako jakintzak
- Lantokiak giltzarri diren langileak ditu, hausnarketan oinarritutako eztabaidetako gidarien eta hizkuntza laguntzaileen rola argiak dira, lantokiak ordutegiak ditu ezarrita taldeko hausnarketarako eta hizkuntza laguntzaileek ordutegiak dituzte ezarrita lankideei laguntzeko.


Ikaskuntzarako lantokia labor azalduta

Hurrengo orrialdeko irudia APeL-ek⁷ diseinatu da eta labor azaltzen ditu ikaskuntzarako lantokiaren elementuak.

Lehen azaldu dugu ikaskuntza hainbat modutan gauza daitekeela. Eguneroko lanean banaka egiten den ikaskuntza formalarekin osatu eta bateratu behar da ikaskuntza formala eta informala elkarri lotzeko eta elkar indartzeko. Ikaskuntza erakundearena izateko, erakundeak barneratu egin behar du pertsonak edo taldeek eskuratutako jakintza berria, eta eguneroko zaintza lanean txertatu behar du

⁷APeL, ikerketa eta garapena. www.apel-fou.se "APeL, ikerketa eta ikaskuntzaren garapena erakundeetan eta erakundeen artean. Erakundeko maila guztietan gurekin ikas dezatela da gure helburua, hala, jakintza berria eta partekatua garatzeko. Ereduak eta teoriak eskaintzen ditugu erakundeen eta langileen esperientzia praktikoei lotuz. Ikasten dugunari buruzko hausnarketak eta azterketak garapena sakontzeko bidea ematen du."

Ikaskuntzarako lantokiak helburu estrategikoak izaten ditu; baita erakundeak gaitasunetan dituen beharretan oinarritutako ikaskuntza egitura ere. Lantokiko kultura irekia eta tolerantea da eta langileen sormena eta hausnarketa sustatzen ditu. Langileek laneko praktikak aztertu eta ikuspegi kritikotik ebaluatzen dituzte. Ikaskuntzarako lantoki helduetan, langileek jasotzen duten ikaskuntza formalari forma ematen diote eta modu aktiboan hartzen dute bertan parte.



Irakaslearen rola

Atal honetan, programetan irakaslearen lan pedagogikoari eragiten dioten faktoreak deskribatuko ditugu. Irakasleek lan hauetarako behar dituzten gaitasunak ere deskribatuko ditugu.

Oro har, ArbetSam eta SpråkSam proiektuetan parte hartutako irakasleek esperientzia positiboa izan dute. Irakasle batzuek, hala ere, lantokiko ikaskuntza integratuak irakasleei ezarritako eskakizunetarako ez zeudela sentitu zuten. Sortu ziren zenbait egoeretan, askotan, irakaslearen ohiko roltzat zuten horretatik atera behar izan zuten. Zalantzarik gabe, antzekotasun asko daude hezkuntzako testuinguru batean eta lantokiko ikaskuntza integratuko programa batean irakastearen artean, baina alde nabarmenak ere badaude. Lantokiko ikaskuntza integratuan, irakasleek aholkulari rola hartzen dute kudeatzaileekin eta giltzarri diren langileekin. Aholkulari rola diogunean esan nahi dugu irakaslea hezkuntza arloko trebetasun jakin batekin

etortzen dela erakundera. Irakasleak labor azal dezake lantokian ikaskuntza sustatzeko programen plangintza eta horiek ezartzea nola egin. Kudeatzailearekin eta giltzarri diren langileekin batera, irakasleak ikaskuntzarako dauden oztopoak bilatu eta oztopo horiek ondoen nola gaudituz proposa dezake; bai pertsonen ikaskuntzari, bai erakundeko ikaskuntzari lotutako oztopoak



Goiko diagramak erakusten du ikaskuntzako eta garapenerako talde batek zer itxura izan dezakeen ikaskuntzarako lantoki batean. ArbetSam proiektutik hartu dugu adibidea.

Irakasleak funtsezko rola du lantokiko ikaskuntza integratuaren taldean. Irakasleek gain, talde horretan izaten dira eragiketen kudeatzaileak, ikaskuntzako eta garapenerako kudeatzaileak eta giltzarri diren langileak; hala nola hizkuntza laguntzaileak, hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariak, proiektu buruak eta beste langile batzuk ere. Garrantzitsua da irakasleak urrats bat aurrera emateko segurtasuna izatea eta irakaskuntzan duen esperientziaren ekarpena modu aktiboan egitea. Hala, irakasleak irakaskuntzarako lantokia sustatzeko eta erakundeari garatzen laguntzeko benetako aukera izango du. Irakasle partaideekin izandako eztabaidetan askotan ikusi zen osasun eta gizarte arloko zaintza profesionaleko irakasleentzat errazagoa zela aholkulari rol hori hartzea SVA hizkuntza irakasleentzat⁸ baino. Hainbat faktorerengatik izan daiteke hori.

⁸ Ingeleserako itzultzailearen oharra: Suedierako irakasleak beste hizkuntzetako hiztunentzako

Faktoreetako bat izan daiteke arlo profesionaleko irakasleak erosoago sentitzen zirela giro hartan. Gainera, irakasle horiek, askotan, eskarmentua zuten antzeko gaietan; adibidez, erizain edo terapeuta lanetan, eta beraz, ohituta zeuden osasun eta gizarte arloko zaintza taldeekin lan egitearekin.

Eraitza onak lortzeko aurrealdintzetako bat zera da, irakaslea ikaskuntzako programan edo proiektuan zehaztapen jakin batera iristea. Zein da ikaskuntza programa honen helburua eta zein dira xedeak?

Proiektuak, askotan gobernuen goragoko mailetan abiarazten dira helburuak, xedeak eta norainokoa modu orokorrean bakarrik azalduta. Horrelakoetan, irakasleari eta eragiketen kudeatzaileari dagokie horrek haien testuinguruan zehazki zer esan nahi duen adostea. Gure esperientziek erakusten dute irakasleek ahal bezain laster hasi behar luketela kudeatzaileekin elkarlanean. Berehala hasi behar lukete informazioa partekatzen eta plangintza elkarrekin egiten. Horrela, gaizki ulertzeak prebenitzen dira eta saihestu egiten dira ikaskuntza programaren emaitzei kalte egin diezaiaketen (bai partaideen, bai lantokiaren aldetik) oztopoak.

Zer faktorek ematen diote forma ikaskuntza programen xedei eta helburuei?

Gizartean eztabaida dago adinekoak eta desgaitasunak dituztenak zaintzen lan egiten dutenek izan beharreko gaitasun mailari buruz. Hainbatek hobeto prestatutako langileak eskatzen ditu. Presio hori zaintza jasotzen dutenen ahaideen, politikarien edo gizarte zerbitzuetako agintarien aldetik etor daiteke. Baliteke trebetasun maila handiagoa izateko eskaera horien harira zaintzako enplegatzaileek ikaskuntza programetan helburu espezifikokoak izatea. Helburuetako bat osasun eta gizarte arloko zaintza ikastaro egiztatuen bidez langileen gaitasun mailak hobetzea izan daiteke. Beste helburu bat ikaskuntza programak arlo jakin batean gaitasuna garatzea izan daiteke; esaterako, erregistroetan eta txostenak egitean, komunikazioan edo dementzia duten pertsonen zaintzan eta laguntzan.

Ikaskuntza programa bati helburu horiek betetzea eskatzen zaionean, helburu horiek programaren alderdi nagusi bihurtzeko arriskua dago, langileek ikasteko baldintza onak sortzearen kaltetan. Ikaskuntzak langileak nahiz erakundea gara ditzan, irakasleak

eta kudeatzaileak parte hartu behar dute laneko ikaskuntzaren plangintzan, ezartze lanetan eta ebaluazioan.

Kudeatzaileekin eta giltzarri diren langileekin izango diren elkarrizketen plangintza egitean, garrantzitsua da irakasleak ikaskuntza programan erakundearen beharrei erantzutea. Fase horretan, irakaslearen helburua identifikatutako beharrei erantzungo dien programa baten zirriborroa egitea da, partaideen ikaskuntza ondoen sustatuko duen moduan. Lantokiko ikaskuntza integratuko taldean lan egiten duten irakasleek harremanetarako trebetasun eta trebetasun sozial eraginkorrak izan behar dituzte. Haien buruarekin seguru sentitzea eta askotariko pertsonekin elkar ulertze giroa sortzeko gai izatea ere garrantzitsua da.

Irakaslana

Lantokiko ikaskuntza programetako irakaslanaren bi alderdi hartuko ditugu kontuan. Irakaslearen zeregina, batetik, partaide bakoitzari ikasten laguntzen da eta, bestetik, irakaslanean ari den lantokiko erakundearen garapenean laguntzea. Irakaslana eraginkortasunez egiteko, irakasleak erakundearen testuingurua ulertu behar du:

- Zer helburu eta xede ditu erakundeak?
- Nola dago erakundea egituratuta?
- Nola hartzen dituzte erabakiak erakundearen?
- Zer itxura du erakundearen negozio garapenerako planak?
- Zer irismen dago erakundearen lantokiko ikaskuntza integraturako?
- Erakundeak zer beste ekimen ditu abian lantokiko ikaskuntza integratuaren aldi berean? Ba al dago ikaskuntza programa ekimen horiei lotzerik? Irakasleak kontuan hartu behar al ditu ekimen horiek plangintza egitean eta eskolak ematean?

Erakundeak nola funtzionatzen duen ulertzeko, irakasleak lan harreman ona garatu behar du eragiketen kudeatzailearekin edo erakundearen ikaskuntzaren ardura duenarekin.

Ez da espero behar osasun eta gizarte arloko zaintzaren kudeatzaileek garapen proiektu bat nola koordinatu eta abiarazi behar den jakitea

pertsonetan zein erakundean ikaskuntza gauza dadin. Kudeatzaile askok lan zama handia izaten dute eta langile asko haien ardurapean. Horrek guztiak traba egin diezaioke lantokian garapen prozesuak abiarazteko duten gaitasunari.

Irakasleek babeska eskain dezakete duten trebetasun espezifikuari esker eta, hala, modu aktiboan parte hartu lantokiko ikaskuntza programen plangintzan. Helburu argiak dituen ondo planifikatu ikaskuntza programa bat izatea garrantzitsua da, baina ez du partaideentzako ikaskuntza girorik automatikoki sortzen. Egiturak behar dira lantokian ikaskuntza bideratzeko eta sustatzeko.

Lantokiko ikaskuntza integratua eta hezkuntza bereizten dituen zera da, normalean, partaideen kudeatzaileek abiarazitakoa izaten dela. Irakasleak jakin egin behar du kudeatzaileak zer irizpide erabili dituen programarako langileak hautatzeko eta partaideak hori guztia nola ikusten duen. Partaideak motibatuta eta parte hartzeko gogotsu al daude, edo parte hartzeko esan dietelako ari dira parte hartzean, neurri batean hala agindu dietelako?

Presio soziala eta errealitatea

Gizartea gero eta gehiago ari da langileen gaitasunari eta osasun eta gizarte arloko trebakuntza programei helduen zaintza sozialaren kalitatea hobetzeko eskatzen. Baina zaintza ematen dutenen irizpideak hobetu diren arren, lantokiek ez dute oraindik aldaketa horiek islatzeko astirik izan. Dilema zera da, oraindik lantoki batzuetan:

- Ez dutela denborarik eta espaziorik sortzen hausnarketarako eta ikaskuntzarako. Langile berriei egun bateko edo biko jarraibideak bakarrik ematen dizkietela.
- Prestakuntzarik gabeko eta hizkuntza aldetik trebakuntza mugatuko langileak hartzen dituztela.
- Ez direla saiatzen hizkuntza garapena sustatzen langileek horretarako beharra izan arren
- Zaintza lana langileei esleitzean, ez dutela haien ahalmen maila aintzat hartzen
- Ez dietela langileei aurrera egiten eta lan zailagoak hartzen uzten, trebakuntza eta etengabeko garapen profesionala izan arren
- Ez dutela denborarik eta espaziorik sortzen hausnarketarako eta ikaskuntzarako.

Hutsune handia dago erakundearengandik espero denaren eta langileek eguneroko lana egiten duten moduaren artean. Partaide askok sentitzen dute lanak egiteko ahalmenari eragiten dioten zailtasunak dituztela. Askotan, ez da behar adina astirik izaten egin beharreko guztia egiteko. Beraz, zaila izan daiteke partaideentzat ikaskuntza formalarekin motibatuta egotea eta konpromisoa hartzea.

Irakasleek ulertu behar dute motibazioa gai garrantzitsua izan daitekeela trebakuntzaren plangintza egitean eta partaideekin lehen aldiz daudenean.

Ondo bidean, irakaslea konpromisoz eta gogotsu iritsiko da, ikaskuntza programa antolatzekeo ideiaz gainezka. Irakasle hori motibaziorik gabeko partaideek ezagutzen badute eta ikastaro bat egin behar dutela ustekabean jakin badute, irakasleak egoera zaila izan dezake. Motibazioa ahul dezakeen faktoreetako bat zera izan daiteke, partaideek ez ikustea edo ulertzea ikaskuntzaren balioa. Ikaskuntzari traba egin diezaioketen beste faktoreetako batzuk beldurra eta ziurgabetasuna dira. “Zer espero du nire nagusiak nik ikastaro hau eginda? Eta huts egiten badut, zer? Lana galdu al dezaket?”

Ziurgabetasun eta beldur horrek hainbat defentsa mekanismo sor ditzake partaideetan; hala nola beldurra, estutasuna, erasokortasuna, tristura, absentzia, gauzak ahazteko joera eta abar.

Ikasteko oztopoen artean egon daiteke arau kolektiboak eta erakundeko arauak eta lantokiko jarrerak. Ikaskuntza formalarekiko eta taldeko hausnarketarekiko jarrera negatiboak, adibidez, mugatu egin dezakete partaideek ikasteko duten gogoia.

Bestalde, ikaskuntza programak langileei emaitza onak ematen badizkie (adibidez, zeregin interesgarriagoak eta ardura handiagokoak edo soldata hobea), orduan ikaskuntzak zentzua izango du.

Inguruak ikaskuntzan dituen eraginak

Askotariko faktoreek eragiten diote ikaskuntzako inguruari. Irakasleek ezin dute haien kabuz ikaskuntzarako giro ona sortu. Kudeatzaileek, giltzarri diren langileek, langileek, partaideek eta irakasleek ardura partekatzen dute horretan. Irakasleek, eragiketen kudeatzailearekin plangintza egitean, nabarmendu egin behar dute erantzukizun partekatuta hori. Ikasteko inguru ona sortzeko, ikaskuntza programarako plangintza bat egin behar da, helburu, xede eta edukiekin.

Hala ere, garrantzitsua da partaideek gaitasunak garatzeko prozesuan parte hartzea: Zer garatu nahi dute

eta zer uste dute taldeak edo erakundeak garatu behar duela? Nola diseinatu nahi dute ikaskuntza?

Partaide gehienek esperientzia zabala dute osasun eta gizarte arloko zaintzan lanean. Irakasleek ikaskuntzaren plangintza egiten dutenean, beraz, partaideen esperientziak funtsezko informazio iturriak dira. Garrantzitsua da irakasleak partaideei lantokiko testuinguruari eta esanahiari lotutako esperientzia subjektiboak prozesatzeko aukera ematea⁹.

Lantokiko ikaskuntza integratuak irakasleari aukera gehiago ematen dizkio partaideen esperientzietatik abiatu eta esperientzia horiek ikaskuntza programako edukien gaiari lotzeko.

Trebetasun maila apaleko heldu askori motibagarri egiten zaie jakintza berria zuzenean eguneroko lanean erabili ahal izatea. Irakasleak partaideen esperientzia praktikoa eta jakintza teorikoa lotuko dituen irakasteko eta ikasteko jarduerak diseina ditzake. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzako jarduerak emaitza onak ematen dituzte lantokiko ikaskuntza integratuan; izan ere, partaideek aukera izaten baitute haien murgildu nahi duten arloetako gaiak eta arazoak aztertzeko. Lanerako metodo berriak probatu eta, ondoren, taldearekin eta kudeatzailearekin ebaluatzeko aukera ere badute.

Funtsezkoa da ikaskuntza programaren bidez sortutako jakintza berria eguneroko lanari lotzeko eta hor erabiltzeko mekanismoak izatea. Irakasleak kudeatzaileei eta giltzarri diren langileei aholkuak eta ideiak eman behar dizkie metodo berriak lantaldeetara nola helarazi jakin dezaten. Kudeatzaileek parte hartu behar dute eta langileei ikaskuntza programan feedbacka eman. Garrantzitsua da kudeatzaileek ikaskuntza programaren ebaluazioan eta garapenean ere parte hartzea programa abian dela.

Kokapena eta instalazioak

Gure proiektuetan, lantokian kokatzen dugu ikaskuntza, partaideek lanetik ikastaroetara erraz joateko modua izan dezaten. Programak lantokian

finkatzeak erraztu egiten du irakasleen, kudeatzaileen eta giltzarri diren langileen arteko elkarlana ere. Gertutasunak baditu, beraz, abantailak. Batzuetan, erakundeetan jakintzaren eta garapenaren inguruan dauden jarrerak negatiboak izan daitezke. Horrek partaideen motibazioa eta sormena muga dezake

Ikaskuntza programa lantokitik kanpoko instalazioetara eramateak murriztu egiten ditu irakasleen eta lantokiko kudeatzaileen artean programatu gabeko bilerak egiteko aukerak, baina prestaketarako behar adina denbora hartu eta plangintza egituratuz gero, irakasleen eta kudeatzaileen arteko elkarlana eraginkorra izatea ziurra daiteke. Hala ere, garrantzitsua dena zera da, lantokiko kudeatzaileek eta giltzarri diren langileek lantokiko aldaketa prozesua babestea, ikaskuntzarekiko pentsamolde negatiboak aurre egiteko.

Instalazioek ere eragin diezaioketek lantokiko ikaskuntzari. Irakasleak enplegatzailearekin erabaki behar du zer gela eta ekipamendu jarriko dituzten lantokian erabilgarri. Irakasleak ikaskuntza saioetarako esleitutako espazioa aztertu behar du. Espazio horrek taldearentzako eta egingo ikaskuntza motarako egokia izan behar du. Espazioak irakasleari aukera eman behar dio ikasleak talde txikitik jartzeko eta ordenagailu eramangarriak edo tabletak erabiltzeko. Lantokiko instalazioak desegokiak badira, irakasleak eta kudeatzaileak aztertu egin behar dute saioak instalazio hobek dituen beste toki batean egiteko aukera.

ArbetSam eta SpråkSam proiektuetan lan egindako irakasle gehienak batetik bestera ibiltzen ziren eta batzuek zailtasunak izan zituzten haien enplegatzaileak "lantoki mugikorrerako" ekipamenduak behar zituztela konbentzitzeko.

Irakasleek aurrez pentsatu behar dute egoera horietan irakaskuntza profesionalaren osagarri gisa zer ekipamendu beharko dituzten. Hezkuntzako enplegatzaileek antzeko irismena duten programetan esperientzia gutxi edo esperientziarik ez badute, baliteke irakasleari egindako eskakizun zehatzak ez ezagutzea. Lantokiko ikaskuntza programetan, irakasleek

⁹Christian Helms Jorgensen, Utbildningsplanering — samspel mellan utbildning och arbete. (Lund: Studentlitteratur, 2006). [Christian Helms Jorgensen, (2006), Hezkuntzaren plangintza — hezkuntzaren eta lanaren arteko interakzioa. Lund: University Press.]

hezkuntzako testuinguruetakoren programetan baino malgutasun eta asmamen handiagoa behar dute.

Ikasteko giro positiboa sortzea

Deskribatu ditugu pertsonetan nahiz erakundeetan ikaskuntza ahul dezaketen faktoreetako batzuk. Partaideei programarekiko defentsa mekanismo gogorak ikusiz gero, irakasleak hausnartu egin behar du partaideei nola lagundu.

Garrantzitsua da ikasteko giro sozial segurua eta erronkak eskaintzen dituen giroa sortzea. Irakasleek hausnartu egin behar du partaideek zer ikaskuntza prozesuri erantzun dioten modu positiboan. Partaideen beharrekin eta gaitasunekin bat ez datozen ikuspegiak ikaskuntza esperientzia negatibo bat abiaraz dezakete eta horrek partaideen defentsa mekanismoak indartzeko besterik ez du balioko¹⁰. Hainbat azterlanen arabera, trebakuntza apaleko langileek baliteke "ikaskuntza pasibo tradizionala zapaltzailatzat eta desmotibatzailetzat" hartzea¹¹.

Lantokiko ikaskuntza integratuan partaide gutxi izaten dira talde bakoitzean eta irakasleak aukera izaten du eskolako baino ikaskuntza esperientzi aktiboagoa, bat-batekoagoa eta jostalariagoa sortzeko. Azterlanak, jarduerak eta rol jokoak partaideek lanean izan dituzten arazoetan oinarrituta egon daitezke erabilgarri izateko moduan¹².

Motibazio lana eta eztabaidak

Irakasleen eta partaideen artean harreman ona egoteak ikaskuntza sustatu dezake eta partaideen motibazioa handitu ere bai. Gure proiektuek ikasleen taldeak nahiko txikiak izatearen onurak izan zituzten; 10-15 partaide taldeko¹³. Hori lagungarria izan zen irakasleen eta partaideen harremanerako. Partaide gehienek sentimendu positiboak eta motibazioa azaldu zituzten lantokiko ikaskuntzaren inguruan. Baina partaide batzuek, hainbat arrazoi medio, motibazio gutxi zuten edo batera ez eta zail egin zitzaizkien ikasteko zituzten beharrak ikustea.

Irakasleak, beraz, partaide haiek motibatzen saiatu behar izan zuen. Batzuetan, irakasleak partaideen defentsa mekanismoak hautsi behar izan zituen eta iraunkortasunez jokatu, laguntza emanez eta ikaskuntza prozesua aurrera eramanez.

Prozesu horrek sentimendu gogorak sor ditzake partaideetan eta irakasleetan. Hortaz, garrantzitsua izan zen irakasleek partaideekiko enpatia azaltzea. Enpatia diogunean, partaidearekin batera sentitzeko gai izatea eta harekiko konpromisoa azaltzea esan nahi dugu, baina baita partaidera aurrerantz gidatzeko gai izatea ere, zer egoeratan dagoen eta zer ahalmen duen kontuan hartuta.

Partaideekin eta kudeatzaileekin lan egiten duten irakasleen dilema etikoetako bat izaten da partaideen aurrerabideaz nola hitz egin. Hezkuntzako testuinguruan, irakasleak eta ikasleek banan-banan aztertzen dute egindako aurrerabidea. Lantokiko ikaskuntza programetan, partaide bakoitzaren aurrerabideari eta errendimenduari buruzko kontuak baliteke kudeatzailearen eta irakaslearen artean hitz egin behar izatea. Garrantzitsua da irakasleak ikaskuntza prozesuaren konfidentzialtasunari eustea; baita prozesua enplegatzaileak abiarazi eta ordaindu duenean ere.

ArbetSam proiektuan, irakasleek partaideekin banan-banan tutoretzak egin zituzten; baita hiru norabideko eztabaidak ere. Hiru norabideko eztabaidetan irakasleek, partaideek eta kudeatzaileek hartzen dute parte partaideen aurrerabidea eta helburuak aztertzeko. Hiru norabideko elkarrizketa horietan ziurtatu egiten da parte hartzen duten alderdiek elkarri hitz egiten diotela eta elkarri buruz.

Gure irakasleetako batzuk ez zeuden ohituta ikasleekin banan-banan elkarrizketak izatea eta, beraz, eztabaidarako eredu bat nahi zuten. 1. eranskinean dago hiru norabideko elkarrizketetan irakasleei eta kudeatzaileei laguntzeko txantilo bat.

¹⁰ Ibid. Christian Helms Jorgensen, (2006), Hezkuntzaren plangintza — hezkuntzaren eta lanaren arteko interakzioa. Lund: University Press.

¹¹ Ibid. p146

¹² Ibid.

¹³ ArbetSam proiektuko gidariaren oharra: SpråkSam proiektuan, taldeak bost-hamar kidekoak ziren. Talde horiek eztabaida dinamikoak izateko txikiak izan zitezkeen, taldeak handitzen saiatu ginen. Ohiko hezkuntzan, taldeak 30-40 kidekoak izaten dira, beraz, horiekin alderatuta, gure taldeak txikiak ziren.

Irakaslearen gaitasuna

SpråkSam eta ArbetSam proiektuetako irakasleek ibilbide ezberdinak zituzten eginak irakasleen trebakuntzari eta esperientzia profesionalari dagokionez. Jakina, jatorri soziala eta kulturala ere ezberdina zuten. Faktore horiek medio, oso ikuspegi ezberdinak zituzten helduen zaintza sozialaren eta proiektuetan zuten rolaren inguruan.

Irakaskuntzari eragin zion irakasleak partaideekiko zuten jarrerak eta partaideen eta irakasleen arteko interakzioak ere.

Lehen ere azaldu dugu irakasleek harremanetarako trebetasunak eta trebetasun sozialak behar dituztela; besteak beste partaideekiko enpatia azaltzeko ahalmena. Gainera, irakasleek hezkuntza lanaren oinarrian eta egituran dauden irizpideak eta kalitate testuinguruak ere ezagutu behar dituzte. Gai izan behar dute partaideen lan praktikoarekin lotutako ikastaro bat garatzeko.

Irakaslearen komunikaziorako trebetasunak garrantzitsuak dira partaideekin, kudeatzaileekin eta giltzarri diren langileekin harremanak izateko. Irakasleak partaideekin hainbat motatako elkarrizketak gidatzeko gaitasuna izan behar du; esaterako, banakako tutoretzak, balioztatze elkarrizketak¹⁴ eta ebaluaziorako elkarrizketa. Jakintza teorikoa eskuragarri jartzea eta balio praktikoa ematea ere irakaskuntzarako trebetasun garrantzitsuetako bat da. Osasun eta gizarte arloko zaintzari buruzko arlo profesionaleko ikastaroetarako eta beste hizkuntza batzuetako hitzunei suediera irakasteko eskoletan ere aplikagarria da hori.

Honako alderdi hauek abiapuntu baliagarriak izan daitezke lantokiko ikaskuntza integratuan irakaskuntzako zer trebetasun behar den jakiteko:

- **Jakintzari eta ikaskuntzari buruzko usteak:** Zer balio ematen diet jakintza teorikoari eta praktikoari elkarrekin alderatuz? Nola lotu lantokian ikaskuntza informala ikaskuntza formalarekin?
- **Balioak:** Zer oinarritzko baliotan oinarritzen dut nire irakaslan?
- **Ikaslearen kontzeptua:** Nola ikusten ditut partaideak? Alderdi guztietatik ikusten al ditut askotariko esperientziak dituzten pertsona gaitu

gisa, edo ikuspegi murriztailetik ikusten ditut, adibidez, duten hizkuntza mailaren arabera sailkatuta? Nola nabarmendu eta erabil dezaket partaideen jakintza esperientzia nire irakaslanean?

- **Gizartearen ikuspegia:** Nola ikusten dut helduen zaintza soziala? Zer rol dut nik eta zer rol du hezkuntza sistemak gizarte zaintzako ikaskuntzan eta garapenean?
- **Programaren edukia:** Zerk erabakitzen du ikaskuntza programaren edukia? Programaren edukia nik erabakiko al dut, edota negozioak eta/edo partaideek?
- **Programa ezartzea:** Zerk eragiten dio programa ezartzearen inguruan dudak ikuspegiari? Nola ematen ditut edukiak, nola antolatzen ditut ikaskuntzako jarduerak eta abarrak?

ArbetSam proiektuaren indarguneetako bat irakasleentzako bilerak elkarrekin egiteko sareak izan dira. Bilera horiek garapen profesionalerako erabili dituzte, irakasleek proiektuan duen rolari lotutako gaien inguruko tailerren bidez. Bilerek aukera baliotsua eman diete lantokiko ikaskuntza integratuari buruz hausnarketak elkarrekin egiteko.

ArbetSam proiektuan izan dugun esperientziak iradokitzen du garrantzitsua dela sare horiek sortzeko espazioa sortzea garrantzitsua dela eta sare horiek hobeto funtzionatzen dutela modu koherentean egituratuta daudenean.

Elkarrekin lau bilera egin zituzten irakasleek ArbetSam proiektuaren hasieran. Bileretan, gai hauek jorratu zituzten:

- Helduen hezkuntza
- Batxilergoko curriculumaren erreforma berria
- Ikasteko hausnarketaren garrantzia
- Irakasleen rola lantokiko ikaskuntza integratuan/zaintza profesionaleko ikaskuntzan eta suedieraren ikaskuntzan
- Bigarren hizkuntza eskuratzea eta bigarren hizkuntza garatzea
- Proiektuaren helburuak, tokiko ikaskuntza estrategiak, banakako ikaskuntza planak, txostena egitea, hiru norabideko eztabaidak eta gaietan oinarritutako ikaskuntza.

¹⁴Ingeleserako itzultzailearen oharra: Balioztatzea aurretiko ikaskuntza aitortzen eta onartzen duen prozesua da.

¹⁵Ingeleserako itzultzailearen oharra: Suedian, batxilergoko sistemak lanbide heziketa eskaintzen du. (Ikus 32. oin-oharra ere: `Suedian, batxilergoa egitea hautazkoa da. 18 programa nazional daude bigarren hezkuntzako eskoletan: lanbide heziketako 12 programa eta unibertsitatera joateko 6 aurre-programa. Gaiak planak helduen bigarren mailako hezkuntzako ikasketen ingurukoak dira". [Jatorria: <http://www.skolverket.se/laroplaner-amnen-och-kurser/gymnasieutbildning/gymnasieskola>; 2013ko irailaren 24koa])

Irakasle guztiek modu aktiboan parte hartzeko garapen proiektu bat ere abiarazi genuen. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (EEEF) osasun eta gizarte arloko zaintzaren testuinguruaren arabera azaltzea zen proiektua. Proiektuan sareko bilerak maiz izan genituen; hiru edo lau seihileko bakoitzean. Sareko bileretan, neurri batean, irakasleek ateratako gaiak landu ziren; baita ArbetSamen helburuak lortzeari lotutako garapen beharrak ere.

Ikaskuntza eredu Koherentziaren Senari (KS) jarraituz

Koherentziaren Sena (KS) Aaron Antonovsky katedradunak 1970eko hamarkadan garatutako teoria bat da. Aaron Antonovskyk egindako ikerketetan aurkitu zuen gure ongizate esperientziari hainbat faktorek eragiten diotela. Antonovsky Israelgo emakumeak menopausiara nola egokitu ziren aztertu zuenean, hainbat behaketa interesgarri egin zituen. Ikerketan parte hartu zuten emakumeak hainbat talde etnikotakoak ziren. Batzuk Bigarren Mundu Gerrako kontzentrazio esparruetatik bizirik ateratakoak ziren. Esparru haietan emakumeak baldintza ankerretan egon arren, adin ertainean zeudenean osasuntsu zeuden. Aurkikuntza horietatik abiatuta, eredu salutogenikoa garatu zuen Aaron Antonovskyk. Eredu horrek pertsonen ongizatea du ardatz eta hori indartzea du xede.

Antonovskyren arabera, koherentziaren senak eta esanguratsu izateak ekartzen die pertsonen esperientziei ongizatea. Teoriak hiru kontzeptu erabilgarri ere baditu eta baliteke irakaslearentzat lagungarriak izatea ikaskuntzaren plangintza egitean. Hona hemen kontzeptuak: *ulergarritasuna*, *egingarritasuna* eta *esanguratsu izatea*.¹⁶

Uste dugu, KSren¹⁷ testuinguruan, horrek hezkuntza eredu sinplifikatu bat eskaintzen duela ikaskuntzarako lantokira helduen zaintza sozialaren inguruan. Ereduak baliotsua izan daiteke irakasleak programa osoari buruzko hausnarketa egiten duenean. Izan daiteke ikaskuntzaren plangintza egiten denerako egiaztapen zerrenda moduko bat ere.

KS - lantokiko ikaskuntzarako programetarako tresna bat:

Ulergarritasuna

Irakasleek eta kudeatzaileek honako hauei buruzko informazioa ematen diete partaideei:

- Trebakuntzaren helburuak
- Ikaskuntza programaren bidez partaideengandik zer lortzea espero den
- Programaren ebaluazio nola izango den osasun eta zaintza arloko ikastaroetan eta suediera ikasteko ikastaroetan eta zer ziurtagiri eskura daitekeen.

Irakasleak, partaideak eta kudeatzaileak elkarrekin erabakitzen dute banakako ikaskuntza plana partaidearen hizkuntza trebetasunei eta trebetasun profesionalei buruzko azterketa batean oinarrituta. Banakako ikaskuntza planak partaidearen ikaskuntzako helburuak eta helburu horiek lortzeko xedeak ezartzen ditu. Partaideek garbi dute lantokian ikaskuntza nola gauzatuko den, zenbat ikaskuntza ordu gidatu izango dituzten astean, zenbat lan egin behar duten astean haien kontura, partaideek lanik ez duten egunean ikasteagatik ordainsaririk jasoko duten edo ez, ikaskuntzako saioak non izango diren eta abar.

Eztabaidaren bidez, partaideek entzun egiten dietela sentitzen dutela, ikaskuntza nondik norakoa izango den badakitela eta hobeto ulertzen dute programan zertan arituko diren. Horrek segurtasuna handitu eta ziurgabetasuna eta urduritasuna murrizten die partaideei.

Egingarritasuna

Partaideek ikaskuntza programa egingarria dela sentitzeko, zertan datzan eta ikasteko eskakizunak zentzuzkoak izango direla jakin behar dute. Garrantzitsua da estresa sortzen duten elementuak saihestea. Plangintza eta prestakuntza desegokiak estresa eragin diezaieke partaideei, batez ere partaideek programako saioetan parte hartu ahal izateko lanpostutik libratzeari lotutako gaietan. Ordezkorik ez badute, baliteke partaideak errudun

¹⁶Aaron Antonovsky, *Hälsans mysterium*. (Stockholm: Bokförlaget Natur och kultur, 2005). [Aaron Antonovsky, (2005) Osasunaren misterioa. Stockholm: Bokförlaget Natur och Kultur.]

¹⁷ "Koherentziaren sena jarrera orokor bat da adierazten duen zenbateraino duen batek segurtasun sentsazio erabateko eta iraunkorra baina dinamikoa hauen inguruan: (1) bizitzan zehar norberaren barneko eta kanpoko mundutik etorritako estimuluak egituratuta daude, aureikus daitezke eta ulergarriak dira, (2) estimulu horiek ekartzen dizkiguten eskakizunak betetzeko behar diren baliabideak eskura daude eta (3) eskakizun horiek erronkak dira, inbertsioa eta konpromisoa merezi dute". Aaron Antonovsky, (2005), *Osasunaren misterioa*. Stockholm: Bokförlaget Natur och Kultur, 46. or..

sentitzea lankideek eta zaintza jasotzen dutenek haiek gabe moldatu beharko dutelako.

Partaide batzuek baliteke ikaskuntzari eragiten dioten arazo pertsonalak izatea. Beharrezkoa izan daiteke hori banakako ikaskuntza planetan kudeatzea.

Partaideek programak erronka handiegia edo txikiegia eskaintzen diela senti dezakete. Horrek ikasteko duten motibazioari eta konpromisoari eragingo die. Oreka egokia lortzeko, irakasleak malgutasunez jokatu behar du eta ikaskuntzarako metodoak partaideen beharren arabera egokitu eta aldatu. Irakasleak irakaskuntzarako inguruaren plangintza egin behar du ikaskuntza prozesua sustatze aldera. Lasaitasuna eta isiltasuna garrantzitsuak dira. Gelaren itxura aldatzeko eta ikuspegi berritzaileak erabiltzeko aukera ere izan behar luke irakasleak.

Partaideek irakaslearen laguntza dutela eta irakasleek, kudeatzaileek eta lankideek programarekiko konpromisoa dutela ikusi behar dute. Irakaslearen, partaidearen eta kudeatzailearen artean maiz hitz egin behar lukete ikaskuntzaren emaitzei eta partaide bakoitzaren ikaskuntza planaren segimenduari buruz. Garrantzitsua da elkarrizketa horiek partaideak bertan direla egitea eta ez haiei buruz aritu soilik. Partaideak helduak dira eta askotan bizitza eta laneko esperientzia luzea dute. Hori, jakina, kontuan hartu behar da eta errespetatu egin behar da ikaskuntzako saioetan.

Esanguratsu izatea

Antonovskyren arabera, esanguratsu izatea da KS kontzeptuan motibazioari lotutako elementua¹⁸. Partaideentzat, ikaskuntza esanguratsua izango da, baldin eta partaideentzat, erakundearentzat eta zaintza jasotzen dutenentzat onuragarria izango diren gaitasunak garatzea ekarriko badu. Horrek partaideen ikasteko motibazioa eta konpromisoa areagotuko ditu. KS partaideen ikaskuntza prozesuan lagungarri izan daiteke. Hona hemen partaideek erantzun beharreko galderak:

Esanguratsu izatea

Zer aterako dut hemendik?

Garrantzitsua al da hau niretzat, nire lantokiarentzat, zaintza eta babesa ematen didanentzat?

Ulertzen al dut ikaskuntza programak zer lortu nahi duen eta zergatik?

Ulertzen al dut nire enplegatzaileak-erakundeak zer lortu nahi duen eta zergatik?

Ba al dut nire enplegatzailearekiko-erakundearekiko konpromisorik eta lagundu nahi al diot garatzen?

Ulegarritasuna

Zer informazio behar dut?

Zer esperientzia da garrantzitsua?

Zer ezagutza eduki behar dira eguneratuta?

Egingarritasuna

Nola egongo da ikaskuntza programa antolatuta?

Zer eskakizun ditu?

Nolakoak izango dira trebakuntza saioak?

Ondo egiten badut, zenbaterainoko gaitasuna izango dut ondo moldatzeko?



KS ereduaren laguntzaz, irakasleek hausnarketa egin dezakete ea ikaskuntza ondo funtzionatzen ari den edo ez jakiteko. Esanguratsu izatea ulergarritasunaren aurrebaldintza da eta bigarren hori, berriz, egingarritasunaren aurrebaldintza. KS ereduak nabarmendu egiten du ikaskuntzarako lantoki bat sortzeko irakasleak eta kudeatzaileak estrategian eta praktikan interakzioan aritzeak duen garrantzia. Ikaskuntza formala ez litzateke partaideei zuzendutako ekimen isolatu gisa ikusi behar, erakundearen garapen orokorraren zati gisa baizik.

Zaintza laneko langileen gaitasuna

Atal honetan, zaintzaren sektoreko langileek jakintza profesionala izateko eta hizkuntza menperatzeko duten beharraren jatorria eta deskribapena eskainiko ditugu. Gure esperientziak argi erakusten du partaideen ibilbidearen berri izateak eta enplegatzaileak-erakundeak zer eskakizun dituen jakiteak asko laguntzen diela irakasleei ikaskuntzaren plangintza egiten.

Atal honetan, irakasleek partaideen hizkuntza trebetasunak kalkulatzeko EEEF nola erabil dezaketen ere deskribatuko dugu. EEEF Europako Kontseiluaren hizkuntza eskala¹⁹ etorkinei suediera irakasteko Hezkuntza Agentzia Nazionalaren curriculumari lotuta dago. Beraz, atal honetan deskribatuko ditugu etorkinentzako suediera ikastaroetako mailak ere.

Adinekoen eta desgaitasunak dituztenen gizarte zaintzako lanak aldaketa handiak izan berri ditu. Esan daiteke lanbideak bilakaera izan duela; hau da, lan praktikoa izatetik lan konplexu eta adituen lan izatera igaro dela. Lehen, lan horretan, zeregin praktikoa egiten ziren; batez ere jarduera osagarriak; adibidez, garbitzea eta erosketak egitea eta zaintza pertsonalerako lan sinpleak ere bai. Orain, zereginak konplexuagoak dira eta trebetasun berriak eta handiagoak izan behar dira. Horren arrazoi bat zera da, zaintza zaintzarako etxe batean edo laguntzadun etxebizitzetan jasotzen dutenak, askotan, lehen zaharren artean ohikoa zena baino zaharragoak eta

osasun ahulagokoak izaten direla. Askok hainbat gaitz dituzte eta osasun eta gizarte arloko zaintza behar sakonak ere bai. Desgaitasunak dituztenen zaintzan, garapenak antzekoak izan dira. Taldeka bizitzeko etxeen edo asistentzia pertsonalaren arloetan zaintza jasotzen dutenak lehen ohikoa zena baino zaharragoak izan daitezke. Horrek esan nahi du langileek, askotan, adinari lotutako gaitotasunak dituzten pertsonak zaintzen dituztela eta hori lehen ezohikoa zen.

Beste garapenetako bat diagnostikatu berriak diren taldeek gero eta nagusitasun handiagoa dutela da, adibidez, Arreta Galeragatiko Hiperaktibitateagatiko Asaldura, autismoa eta Asperger sindromea dutenen taldeek. Adinekoen eta desgaitasunak dituztenen zaintzan, langileek orain, iraganean ez bezalako beharrei erantzun behar diete. Gainera, zaintza jasotzen dutenek eta haien ahaideek, askotan, zerbitzuak hobeto ezagutzen dituzte eta gehiago parte hartu nahi izaten dute. Faktore horiek guztiek langileek dituzten eskakizun profesionalak areagotu egiten dituzte. Zerbitzuak ematen denbora luzea daramaten langileek esan digute lehengo eta oraingo lana oso ezberdina direla.

Gaitasun profesionala

Zaintzako langileek oinarrizko jakintza eta jakintza aurreratua izan behar dituzte hainbat arlotan. *Gizarte Zerbitzuen Agintaritz Nazionala, oinarrizko jakintzaren jarraibide orokorrak* delakoa adinekoentzako gizarte zaintzako langileek eskatutakoa da eta hor daude jasota langileek zer trebetasun eta gaitasun izan behar dituzten:

Oinarrizko jakintza eta gaitasunak

- Balioak, jarrerak eta sena
- Komunikazioa
- Ohiko zahartze prozesua
- Adinarekin lotutako gaitotasunak
- Gizarte zaintza²⁰
- Independentziari eustea²¹
- Zaintza pertsonala

¹⁸Aaron Antonovsky, (2005) Osasunaren misterioa, Stockholm: Bokförlaget Natur och Kultur

¹⁹ArbetSam proiektuak zehaztu zuen EEEF osasun eta gizarte zaintzarako

²⁰Ingeleserako itzultzailearen oharra: Hor sartzen dira: adinekoen osasuna eta ongizatea zaintzeko estimulazio fisikoak, mentalak eta sozialak duten garrantziaz jabetzea; adinekoei haien bizimoduak modu indibidualean zein komunitatean zentzuzkoa izan dadin laguntzeko gaitasuna. ²¹Hor sartzen dira: jarduera fisikoak adinekoen osasunari eta ongizateari nola eragiten dioten jakitea; adinekoak fisikoki aktibo egon daitezen motibatuzko eta behar duten laguntza emateko gaitasuna; independentziari nola eutsi eta nola ahalbidetu jakitea; bizimodu independentea izateko laguntzen berri izatea; osasunari eta segurtasunari eta arriskuaren kudeaketari buruzko jakintza.

- Otorduak, janaria eta nutrizioa
- Adinekoen zaintzan lan egitea arautzen duen lege testuingurua
- Bizitza amaierako zaintza
- Osasunaren zaintza²²

Jakintza arlo espezifikoak

- Bizitza amaierako zaintza
- Dementzia
- Buruko gaixotasunak
- Otorduak, janaria eta nutrizioa
- Independentziari eustea

Taulan daude zerrendatuta Gizarte Zerbitzuen Agintaritza Nazionalak adinekoen zaintza sozialean lan egiten duten langileentzako emandako aholku orokorretan ezarritako jakintzak eta trebetasunak (SOSFS 2011:12).

Project Carpe²³ delakoak gaitasunen esparru bat garatu du desgaitasunak dituztenei laguntzen dieten langileentzako. Gaitasunen esparru horrek (Eskakizun profesionalak: desgaitasunak dituztenei, buruko osasuna kanpoan utzita, laguntza eta zerbitzuak eskaintzen aritzen diren langileentzako trebetasun orokorrak²⁴) sei gaitasun arlo ditu identifikatuta.

Gaitasun arlo horietan 50 jakintza helburu eta 200 ikaskuntza helburu daude guztira. Jakintza eta ikaskuntzako helburu horiek hemen daude deskribatuta: www.projektcarpe.se

Lanerako gaitasun maila aldatu egiten da herrialdeko eskualde batetik bestera. Gure esperientzia Stockholmera dago mugatuta eta inguru horretan, zaintzako langileen ehuneko handi batek ez du ez oinarritzko trebakuntzarik, ez eta suedieraren behar besteko ezagutzarik ere. Beraz, lantoki askotan, gaitasunak garatzeko behar handia dute.

Hizkuntza trebetasunak

Langileek ahoz eta idatziz komunikatzeko gaitasuna izatea gero eta garrantzitsuagoa da eta lana lortzeko eskakizunetan sartu behar da. Zaintza lanerako, langileek hainbat modutan eta mailatan komunikatzen jakin behar dute. Esaterako, osasun eta gizarte zaintzako langileek, legez, informazioa idatziz jaso behar dute. Langileek informazioa jasotzeko eta helarazteko gai izan behar dute. Ondo moldatzeko, oinarritzko jakintza profesionala eta ahozko zein idatzizko hizkuntza maila nahiko aurreratua behar da; baita ordenagailua erabiltzen jakin ere.

Hizkuntza ondo jakitea funtsezkoa da gaur egungo langileek lanerako behar dituzten trebetasunak eskuratzeko ere. Lantoki askotan, langileek trebakuntza jasotzen dute maiztasuna handiagoa edo txikiagoa izan. Askotan, arlo batean arreta jartzen duen proiektu lanak egiten dituzte; adibidez, nutrizioaren eta otorduen, balioen, dementzia dutenen zaintzaren eta abarren inguruan. Beste batzuetan, langileek ikastaroak egiten dituzte helduentzako hezkuntzan.

Stockholm eskualdean gizarte zaintzan lan egiten duten langile gehienek suediera hizkuntz osagarri gisa dakite. Ehuneko zehatzetan, aldeak daude udalerrri eta gunee batetik bestera. Jakina, suediera

Oinarritzko jakintza eta gaitasunak Arloak

Harremana eta interakzioa	Historia eta tradizioak, desgaitasun batzuk eta besteak dituztenen ezaugarriak eta beharrak, jarrera, komunikazioa, buruko gaitzak, substantziekin gehiegikeriak egitearen arazoak eta jokabide zailak
Jarduerak eta harremanak	Trebetasun motorrak eta fisiologia, aisialdia, kultura eta zentzudun jarduerak, interakzio soziala, komunikazioa ahaideekin
Laguntza eta zerbitzua	Eguneroko harremana, eguneroko laguntza
Osasuna eta ongizatea sustatzea	Prebentzio eta sustapen lana, zaintza pertsonala, otorduak eta nutrizioa, osasunaren zaintza, sendagaiak
Plangintza eta administrazioa	Lanaren plangintza eta lehentasunak finkatzea, informazioa idatziz jasotzea eta txostenak egitea
Garapena lantokian	Lidergoa, helburuak eta antolaketa, komunikazioa rol profesionalean, langile berrientzako eta ikasleentzako jarraibideak, etengabeko garapen profesionala eta kalitatezko garapena

²²Hor sartzen dira: osasun zaintzaren inguruko jakintza; oinarritzko higienerari eta infekzioak zein gaixotasunen kutsatzeak prebenitzeko jakintza; sendagaien eta adinekoekin sendagaiak erabiltzeari buruzko jakintza

²³Project Carpe delakoan Stockholm eskualdeko 19 udalerrri elkarlanean aritu ziren desgaitasun arloko zaintza lanerako gaitasunen inguruan. Proiektuak hiru urte iraun zituen, 2009tik 2012ra. 2012ko apirilean, Carpe 2 abiarazi zuten, aurrekoaren jarraipena.

²⁴Ikus <http://www.projektcarpe.se/dokument/yrkeskrav/YRRESKRAV%20komplett.pdf> [2013ko irailaren 28an kontsultatua]

ama hizkuntza ez dutenek hizkuntza horretan duten mailan ere aldeak daude eta askok ondo hitz egiten dute suediera. Askok, hala ere, ez dute modu autonomoan lan egiteko behar adinako hizkuntza trebetasunik.

Ama hizkuntza suediera dutenek ere hizkuntza eskakizunak hobetu beharra izaten dute lanean eta ikasketetan ondo moldatzeko.

Lan horretan urte askoan aritu izan diren langileei, orain arte trebakuntzarik gabe nahiko ondo moldatu diren arren, erronka berriak ekarri dizkiete eskakizun berriek. Batzuk lanean hasi ziren garaian, komunikazio idatziaz haragoko komunikazio trebetasunen beharra ez zegoen orain bezain garbi. Langileek hizkuntza eta komunikazio trebetasunetan eskakizun handiak bete behar dituzten zereginen artean daude zaintza planetan parte hartzea eta eguneroko zaintzaren informazioa idatziz jasotzea gizarte zaintzaren araudiak eskatzen duena betetzeko. Ondoren dokumentatzeko informazioa jasotzeko hainbat mailatan erabili behar da komunikazioa. Langileek zaintza jasotzen dutenekin hitz egin behar izaten dute eta galderak egin, eta batzuetan haien familiakoekin ere bai. Lankideekin eta beste profesional batzuekin ere hitz egin behar izaten dute, informazioa jasotzeko eta emateko. Langileak eskatutako informazioa idatzi behar duenean, zuzen idatzi behar du, hizkera egokia erabilita eta ortografia zainduta. SpråkSam eta ArbetSam proiektuetako irakasleek hizkuntza garapenerako hainbat metodo probatu dituzte; besteak beste, hausnarketa, sormenezko idazkera eta rol jokoak. Gure esperientziaren arabera, suediera ama hizkuntza duten partaideei ondo etortzen zaie suediera irakasleek hizkuntza garatzeko emandako laguntza.

Hizkuntza gaitasuna

Gure testuinguruan, hizkuntza gaitasuna diogunean, suediera Europako Kontseiluaren Hizkuntza Eskalak ezarritako trebetasunetan oinarrituta erabiltzeko ahalmenaz ari gara.

Europako Kontseiluaren Hizkuntza Eskala

Europako Kontseiluaren Hizkuntza Eskala, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua: Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluazioa (EEEF) Europako Kontseiluak urte askoan hizkuntzetan eta hizkuntzen ikaskuntzan egindako lanaren bidez garatutako baliabide bat da. Esparru horren oinarrian dagoen ideia zera da, hizkuntza arloko trebatzaileek, adibidez, aholkulariek, ikasleek, trebakuntzako komisarioek eta enplegatzaileak hizkuntza eskala bateratu bat behar dutela erreferentzia gisa erabiltzeko. Tresna horrek egoera batean eta bestean komunikatzeko behar diren jakintza eta trebetasunak deskribatzen lagunduko digu. Beste helburuetako bat, hizkuntzari buruz eta hizkuntza menderatzea zer den deskribatzeko irizpide objektiboek buruz ari garenean, esparru bateratu bat izatea da. Europako Kontseiluaren Hizkuntza Eskalak sei erreferentzia maila ditu zehaztuta:

- A1 eta A2 oinarrizko erabiltzailearen hizkuntza gaitasuna deskribatzeko.
- B1 eta B2 erabiltzaile independentearen hizkuntza gaitasuna deskribatzeko.
- C1 eta C2 erabiltzaile trebearen hizkuntza gaitasuna deskribatzeko.

Gakoak	A1	A2	B1	B2	C1	C2
Entzumena	X	X	X			
Irakurmena	X	X				
Ahozko interakzioa	X	X	X	X		
Ahozko ekoizpena	X	X	X			
Idazketa	X					



Hizkuntza profil horrek partaideei eta irakasleei aukera ematen die partaideek garatu beharreko trebetasunak identifikatzeko. Profilaren beste onura garrantzitsuetako bat zera da, erakusten duela partaideak indarguneak izan ditzakeela, arlo batzuetan gabeziak izan arren. Norberak zer egin dezakeen ikusteak lagundu egiten du partaidearen motibazioa indartzen. Partaidea hobeto jabetzen da zer gaitasun duen hizkuntzan eta eskala bat du aurrerabidea maiz neurtu ahal izateko. SpråkSam proiektuan, partaideek eta irakasleek modu informalean ebaluatu zuten partaideen hizkuntza maila, ikaskuntza programan zehar hiru aldiz hain zuzen; hasieran, erdibidean eta amaieran. Irakasleei nahiz partaideei erabilgarria suertatu zitzaion EEEF. Ondo erakusten zuen ikaskuntza programaren hasieran partaideen hizkuntza trebetasunak zein ziren eta ondoren egindako ebaluazio informalek erakutsi zuten nola ari ziren programan zehar hizkuntza garatzen. Bestalde, irakasleei eta partaideei iruditu zitzaion EEEFren autoebaluaziorako materialeko trebetasunak modu abstraktuegian zeudela zehaztuta eta testuingurutik aterata zeudela. Partaideek zailtasunak izan zituzten EEEFk ezarritako mailak haien hizkuntza trebetasunekin eta lanpostuaren eskakizunekin lotzeko. Era berean, irakasle askori zail egin zitzaion partaideen hizkuntza arloko gaitasuna lantokiko beharrekin lotuta ebaluatzea. Hortaz, irakasle batzuek iradoki zuten

hizkuntza ikastaroek Suediako Hezkuntza Agentzia Nazionalaren Osasun eta Gizarte Zaintzako programaren helburuekin lotuta eta partaideen lan praktikoarekin ere lotuta egon behar luketela. Osasun eta Gizarte arloko Zaintza programako ikaskuntza ematen dutenei emandako jarraibideetan, Agentzia Nazionalak komunikazio trebetasunak garatzearen garrantziaz ohartarazi zuen. *Ikaskuntza programek ahozko eta idatzizko komunikaziorako gaitasuna garatu behar dute, hori oinarri ona baita elkarlana ona izateko eta pazientei edo beste erabiltzaileei informazio zehatza eta konplexua emateko. Hizkera aberatsa eta askotarikoa ere tresna ona da hausnarketarako eta ikaskuntzarako*²⁵.

EEEF zaintza lanerako egokitzea

Hori kontuan hartuta, pare bat esperimentu egin ziren SpråkSam proiektuan EEEF zaintza lan praktikoarekin lotzeko. Bi esperimentuen ondorioa izan zen zaintza arloko langileek B1/B2 mailako hizkuntza trebetasuna behar zutela eta zaintza lanerako A1 eta A2 mailak ez zirela nahikoa. Suediera maila horietan dakitenek hizkuntza arloko laguntza behar dute lantokian eta/edo SFI²⁶ programako hizkuntza eskolak jaso behar dituzte. Hori eginez gero, aukera handiak daude hizkuntzaren garapenerako²⁷.

²⁵<http://www.skolverket.se/forskola-och-skola/gymnasieutbildning/amnes-och-laroplaner>

²⁶SFI etorkinek suediera ikasteko estatuak babestutako programa da. Ikus Funtsezko terminoak eta kontzeptuak 8. orrian

²⁷Ondorioen deskribapen xeheagoa du Project ArbetSam proiektuak (2013). Europako Kontseiluak ezarritako hizkuntza mailak adinekoak eta desgaitasunak dituztenak zaintzeko arloko egokitzea. www.lidingo.se/arbetsam och i Skeppstedt I. utvärdering av utbildningen inom SpråkSam, www.aldrecentrum.se/Utbildning1/SprakSam/

ArbetSam hasi zenean, EEEFren hizkuntza zehazteko eta pertsonalizatzeko ideia hori oraindik gogoan genuen eta garapen lanari 2011ko udazkenean ekin genion. Proiektuko irakasleek, Ingrid Skeppstedt aholkulariarekin batera, EEEF osasun eta gizarte arloko zaintzaren testuingurura egokitu zuten. Material horretan sartuta daude, besteak beste, zaintza lanaren testuinguruan hizkuntza eskala egokitua erabiltzeko gidaliburua. Gidaliburu hori irakasleentzat eta ikasleentzat nahiz kudeatzaileentzat eta langileentzat dago pentsatuta²⁸.

Hezkuntza mailak SFI eta SVAn²⁹

Estatuaren hezkuntzan, etorkin helduentzako suediera eskolak SFIko A, B, C eta D ikastaroekin hasten dira. Hiru adar daude, ikasleek ikasketetan lehendik duten ibilbidearen eta ikasteko trebetasunen arabera. Ikaskuntzaren arduradunek ebaluazio indibiduala egiten dute elkarrizketetan eta probetan oinarrituta, pertsona bakoitzarentzat zer ikasketa eta ikastaro den egokia jakiteko.

- Ikasketa ibilbidea: A eta B ikastaroak, aurretik eskolan ibiliak ez direnentzat edo gutxi ibilitakoentzat. Ikasleak C eta D ikastaroetara pasatzen dira ondoren.
- Ikasketa ibilbidea: B eta C ikastaroak, eskolan gehienez 12 urtean ibili direnentzat (bigarren hezkuntzaren baliokidea Suedian). Ikasleak D ikastaroetara pasatzen dira ondoren.
- Ikasketa ibilbidea: C eta D ikastaroak, ikasteko trebetasunak landuta dituzten ikasle independenteentzat. A-D ikastaroetan, ikastaroa amaitzean jartzen da nota. B, C eta D ikastaroak amaitzean, nahitaezko azterketa nazional bat egin behar da.

Ikasleek SFI ikastaroetako D maila lotzen dutenean, argi eta aise hitz egiteko adinako hizkuntza maila izaten dute. Gai izaten dira testuinguru batean eta bestean komunikatzeko hizkuntza arauetara buruz kezkatu beharrik

gabe. SFI ikastaroan D mailako ziurtagiria lortzen duten ikasleek suediera hizkuntza osagarri gisa ikasteko ikastaroetan (SVA) izena eman ahal izaten dute. Suediako lehen hezkuntzako 7-9 mailen baliokidea da hori.

Hezkuntza Agentzia Nazionalaren SFIko ikasketa programa eta SVAn oinarritzko maila bat datoz Europako Kontseiluaren hizkuntza eskalarekin:

SFI / SVA	EEEF maila
SFI, A ikastaroa	Aurre-A1/A1
SFI, B ikastaroa	A1/A2
SFI, C ikastaroa	A2/A2 +
SFI, D ikastaroa	B1/B1 +
SVA, oinarritzko maila	B1 +

Hizkuntza identitateari lotuta dago

Irakasle askori zaila egiten zaie partaideekin hizkuntza gaitasunaren gaia ateratzea eta eztabaidatzea. Hala gertatzen da gai hori ateratzea naturala izango dela diruditen egoeretan ere; hala nola bana-banako tutoretzetan. Baliteke gogogabetasun hori aurretik izandako esperientzietan oinarrituta egotea, baldin eta aurreko esperientzia horietan gaiak gaizki ulertzeak ekarri baditu, egoera deserosoak sortuz. Gai horiek lantzean, irakaslearen helburua gaizki interpreta dezakete partaideek eta hortik, partaideek ondoriozta dezakete irakaslea haiek epaitzen ari dela irizpide subjektiboetan oinarrituta. Are okerrago, partaideek senti dezakete irakaslea haiek modu pertsonalean ebaluatzen ari dela, suedieraz duten komunikazio gaitasuna epaitu beharrean.

Gaia kontuzkoa izatearen arrazoiak bat zera da, hizkuntzak harreman estua duela identitatearekin. Gure identitatea besteekin ditugun interakzioekin osatu, aldatu eta birmoldatzen da eta interakzio hori, batez ere, hizkuntzaren bidez egiten dugu³⁰. Hizkuntza eta besteekin interakzioan aritzeko dugun gaitasuna oso lotuta dago geure burua eta gizartearen dugun tokia ikusteko dugun moduarekin.

²⁸ArbetSam proiektua (2013). Europako Kontseiluaren hizkuntza mailak adinekoak eta desgaitasunak dituztenak zaintzeko lanari egokituta. www.lidingo.se/arbetsam

²⁹SVA sigla: suediera hizkuntza osagarri gisa. Ikus Funtsezko terminoak eta kontzeptuak 8. orrian

³⁰K Hyltenstam, Att återerövra sin mänsklighet. I Arnstberg, K.-O. (red), Kultur, kultur, kultur — perspektiv på kulturmöten i Sverige. Stockholm: Liber utbildning, 1993; Ingrid Lindberg, Andraspråksresan. (Folkuniversitetet, 2008). [K Hyltenstam, Bere gizatasuna aldarrikatzea. In Arnstberg, K.-O. (eds), (1993), Kultura, kultura, kultura - Suediako topaketa kulturaleri buruzko ikuspegiak. Stockholm: Liber utbildning; Ingrid Lindberg, (2008) Bigarren hizkuntzaren bidaia. Stockholm: Folkuniversitetet.]



Inguruak nola tratatzen gaituen, hala ikusten dugu gure burua. Hori areagotu egiten da oso ondo ulertzen ez duzun hizkuntza bateko komunikazioaren menpe zaudenean. Gehienek hizkuntzan komunikatzeko gaitasun mugatua izatea hizkuntzatik kanpoko arlo batzuetan jakintza eta trebetasun mugatuak izatearekin nahas daiteke. Hala, Marie Carlsson³¹ azterlan batek deskribatzen du suedieraz aritzeko gaitasun mugatua zuten emakume gazteen talde bat hustuta sentitzen zen iraganeko esperientziakin. Ingurukoek uste zuten ez zutela batere jakintzarik, ezin zutelako suedieraz eraginkortasunez hitz egin. Irakasleok kontuan izan behar dugu partaide askok antzeko esperientziak izan dituztela eta, beraz, haien buruaren irudia ez dutela ona izan. Besteak baino gutxiago izatearen sentimendua izan dezakete batetik, eta ikaskuntza programan parte hartuta hizkuntzan dituzten mugak agerian geldituko ote diren beldurra, bestetik.

EEEFren bertsio egokituak bi aldeei lagun diezaiekie hizkuntzari eta hizkuntza trebetasunei buruz modu objektiboan eta zehatzean hitz egiten. Partaidearen hizkuntza trebetasunak zeregin zehatzei lotzeko lagundu egiten du eztabaida partaidea pertsona gisa ebaluatzeko ebaluazio subjektibo gisa ez ikusten. Proiektuko esperientziak erakusten du horrek partaideari erakusten diola zer hizkuntza maila duen eta zertan hobetu behar duen.

Proiektuko lanak erakutsi digun beste gauzetako bat da hizkuntza partaideen jatorri kulturalari lotuta dagoela eta hori faktore garrantzitsua da irakaskuntzan. Hori zaintza lanean eta Hezkuntza Agentzia Nazionalaren Osasun eta Gizarte Zaintzako programan ohikoak diren hitz abstraktu eta kontzeptu asko erabiltzen ditugun moduari ere aplikatzen zaio. Termino abstraktu horiek zailak izan daitezke barneratzeko, baita suediera ama hizkuntza

dutenentzat ere. Partaideen kulturaren, baliteke “enpatia”, “osotasuna”, “holistikoa” eta “balioak” terminoek baliokide sinplerik ez izatea haien ama hizkuntzan eta horrek dena zailtzen du. Partaideak ez du termino horiei lotzeko erreferentziarik eta horrela, zaila da hitzen esanahia ulertzea eta hitzak zaintza lan praktikoaren testuinguruan kokatzea. Arriskua da ikaskuntza instrumentala bihurtzen dela eta partaideek ezin diotela jakintza teorikoari lan praktikoaren errealtatara lotu. “Ikaskuntza instrumentala” diogunean, esan nahi dugu partaideek erantzun zuzena zein den ikasten dutela, baina azpian dagoen esanahia ulertu gabe; bestela esanda: buruz ikasten dituzte gauzak. Hala, partaideek ikas dezakete “holistikoa” kontzeptua maila teorikoan azaltzen, baina terminoak zaintza lan praktikoaren testuinguruan zer esan nahi duen ulertu gabe. Garrantzitsua da, beraz, irakasleak horretaz jabetu eta partaideei hitz abstraktuak eta kontzeptuak modu zehatzean ulertzen laguntzea. Adibide batzuk jarriko ditugu hemen ArbetSam proiektuko irakasleek zenbait hitz eta kontzeptu nola konkretu bihurtu dituzten azaltzeko:

“Hainbat azalpen ezberdin eman behar dituzu partaideek kontzeptua uler dezaten”.

“Intimitatearen kontzeptua azaltzeko, norbaitengandik gertuegi jarri gara, edo taldean eztabaidatu dugu diskreziorik gabe egindako galdera bat jasotzean nola sentitzen garen, hainbat modutan eta egoeratan. Zaintza egoeretan oinarrituta, rol oku laburrak egin ditugu osotasuna, autonomia eta beste kontzeptu batzuk lantzeko. Rol okoen ondoren, partaideek egoera haietan zuten esperientzia kontzeptu teorikoekin lotu genuen.”

Esperientziak, gainera, adibideak ematen dituzte gertaerak eta jakintzari buruzko ulertzeak nola uztartzen diren azaltzeko.

³¹Marie Carlsson, Svenska för invandrare — brygga eller gräns? Syn på kunskap och lärande inom SFI-undervisningen. (Göteborg: Göteborgs universitet, Sociologiska institutionen, 2002). [Marie Carlsson, (2002) Suediera etorkinentzat - zubia edo muga? SFI irakaskuntzaren inguruko jakintzari eta ikaskuntzari buruzko ikuspegiak. Göteborg: Göteborg Unibertsitatea, Soziologia Saila.]

Lantokiko ikaskuntza integraturako plangintza

Atal honetan landuko dugu lantokiko ikaskuntza integratuak zer esan nahi duen irakasleentzat edukia eta metodologia ikasteko plangintza egiten dutenean. Deskribatu egin nahi dugu irakasleek nola eta zergatik egin behar duten plangintza ezberdina ohiko hezkuntzako plangintzarekin alderatuta.

Lantokiko ikaskuntza integratua tresna garrantzitsua izan daiteke partaideek lantokian eta komunitatean duten kokapena indartzeko. Lantokian integratuta egoteak esan nahi du ikaskuntza lantokira eta partaideen gaitasunak garatzeko beharretara egokitzen dela.

Beharrak asko aldatzen dira lantoki batetik bestera, hein batean zerbitzu motaren arabera (dementia duten pertsonak, laguntzadun etxebizitzak, desgaitasunak dituztenentzako taldeko etxebizitzak) eta langile taldearen osaeraren arabera. Hortaz, irakasleek ikastaroen edukien eta egituraren plangintza hainbat modutan egin behar izaten dute, lantokiaren arabera. Horregatik da lantokiko ikaskuntza integraturako plangintza hain ezberdina hezkuntzako plangintzarekin alderatuta. Irakasleek partaideen lantokietako dokumentuak eta txantiloiak erabiltzen dituzte eta ikaskuntza jarduerak partaideek eguneroko lanean izandako gertaeretan eta egoeretan oinarritzen dituzte.

Hezkuntzan, orokortutako teoriak eta konstruktoak sartzen ditugu eta ez laneko jarduerari espezifikoki egokitutakoak, benetako lantokietan egiten den moduan. Hezkuntzan, partaideek ez dute beti teoria lanari nola lotzen zaion ikusten eta horrek, batzuetan ez dio teoriari errotzen uzten. Lantokiko ikaskuntza integratuan, berriz, teoria beti egoten da lantoki bakoitzeko praktiketara oso lotuta.

Hezkuntzaren teoria lantokiko praktikari lotu behar zaiola asko nabarmentzen du batxilergoko curriculum berriak". Curriculumak dio lanbide heziketako programetan, ikasleek prestakuntza eraginkorra jaso behar dutela eta ikasketak amaitzean, zuzenean lanean hasteko gai izan behar dutela.

Ikastaro guztiek bete behar dituzte irizpide nazionalak eta Hezkuntza Agentzia Nazionalak ziurtatutako kalitatea izan behar dute.

Ikaskuntzaren adarrek³³ eta ikastaroen zehaztapenek garbi azaldu behar dituzte edukiak eta ikaskuntzaren helburuak.

Lantokiko ikaskuntzaren plangintza egitean, irakasleek kontuan izan behar dute partaideek askotariko ahalmenak eta beharrak izan ditzaketela. Hizkuntza maila bateko eta besteko partaideek maila bateko edo besteko hizkuntza laguntza behar dute.

Lan mundutik etorritako ikasle helduek hainbat mailatako ikaskuntza trebetasunak eta aurrez eskolan izandako askotariko esperientziak dituzte. Esaterako, zaintza munduko langile batzuek adierazi zuten aurrez izandako ikaskuntza esperientziak ez zirela ondo atera eta berriro saiatzeko gogorik ez zutela. Beste faktore batzuek ere izan dezakete eragina; hala nola eskolako jazarpena edo beste modu bateko jazarpena jasan izanak. Langile batzuk eskolan gutxi ibilitakoak edo ibili gabekoak izan daiteke eta besteak, baliteke batxilergoa amaitu eta unibertsitatera joan izana. Arrazoi horiek medio, partaide bakoitzak ikasteko bere erritmoa behar du eta ikaskuntzari lotzeko, jarduera ezberdinak behar dituzte. Partaideen ikaskuntzak bakoitzaren beharretara eta egoeretara egokituta egon behar duela nabarmentzen dute 2010eko Hezkuntza Legeak eta helduen ikaskuntzarako 2011ko gida ofizialak. Ikasleek ikasteko laguntza eta adorea behar dutela diote. Aukerak eman behar zaizkie duten jakintza eta trebetasunak garatzeko, lanean eta gizarteko bizitzan duten jarrera indartzeko.

Ikaskuntza profesionala eta hizkuntzaren garapena uztartzen dituen ikuspegia oso modu naturalean txertatzen da lantokiko ikaskuntza integratuan. Horretarako, irakasleek denbora behar dute plangintza elkarlanean egiteko. Denbora beharko dute, halaber, lantokiko kudeatzaileekin eta giltzarri diren beste langile batzuekin plangintza elkarlanean egiteko. Batez ere ikaskuntza programaren hasieran, plangintzan parte hartzen ari direnek denbora eskaini beharko diote lan horri, gero denbora gutxiago eskaini behar izateko. Garrantzitsua da irakasleek haien kudeatzaileen babesa izatea plangintza egiteko behar adina denbora izan dezaten.

³²Ingeleserako irakaslearen oharra: "Suedian, batxilergoa egitea hautazkoa da. 18 programa nazional daude bigarren hezkuntzako eskoletan: lanbide heziketako 12 programa eta unibertsitatera joateko 6 aurreprograma. Ikasgaien plangintzak helduen hezkuntzako bigarren mailako ikasketei ere aplikatzen zaizkie." [Hemendik hartua: <http://www.skolverket.se/laroplaner-amnen-och-kurser/gymnasieutbildning/gymnasieskola>; 20013ko irailaren 24an sartuta]

³³Ingeleserako itzultzailearen oharra: Ikaskuntzaren adarrak (studievägar) araututako aukerak dira eta ikasleek programa batean aukeran izaten dituzte.

Osasun eta gizarte zaintzako ikastaroak eta suediera hizkuntza osagarri gisa ikasteko ikastaroak uztartzea

Atal honetan aztertuko dugu ikasketetan moldatzeko hizkuntza gaitasuna garatu beharra duten partaidez osatutako taldeen ikaskuntza; suediera bigarren hizkuntza dutenen taldeena, hain zuzen.

Batxilergoko mailan osasun eta gizarte arloko zaintza programetan ondo moldatzeko, partaideek suediera nahiko ondo erabiltzeko gai izan behar dute.

Helduentzako hezkuntzan, batzuetan, SVA suedierako oinarrizko maila (EEEF B1/B1 + maila) eskatzen dute ikastaroa egin ahal izateko. SpråkSam eta ArbetSam proiektuetako esperientziak iradokitzen du eskolei probetxua atera eta ikastaroa burutzeko, ikasleek suedierako EEEF B1/B2 maila behar dutela gutxienez. Suedieran maila baxuagoa duten partaideek osasun eta gizarte arloko zaintzaren ikaskuntzarekin batera, suediera ere ikasi behar dute. B1/B2 maila dutenek ere emaitza hobekak lortzen dituzte lanbide heziketaren osagarri gisa maila horietarako diseinatutako hizkuntza laguntza ere jasotzen dutenean.

Ikasgaiak uztartzearen beharrak eta onurak

Zaintza arloko gaiak eta suediera bakoitza alde batetik ikasita, partaideek ez dute lanerako behar duten hizkuntza garatzeko aukerarik izaten; hizkuntza hori ikasgaiak uztartzean azaltzen baita. Monika Axelsson³⁴ txostenaren arabera, ez da errealista suediera hizkuntza osagarri gisa ikasteko programek partaideei laneko arloetarako behar duten hizkuntza espezializatua eta gizarteko interakziorako eguneroko hizkuntza irakatsiko diela espero izatea. Hezkuntzan, ikasgaiak ikastean, jakintzaren edukian jartzen da fokua. Ez zaie arreta berezirik eskaintzen hizkuntza kontuei. Horren ordez ikasgaien irakasleak, zaintza arloko hezitzaileak adibidez, gai izango balira partaideekin testuetan eta beste material batzuetan erabilitako hizkuntza lantzeko, ikasteko bide bihurtuko litzateke hizkuntzari eskainitako arreta hori. Azterlanek eta esperientzia praktikoei erakusten dute ikasgaien irakaskuntza, askotan, ez dela hizkuntza trebetasun mugatuak dituzten ikasleengana iristen.

Hezkuntzan, gehienetan, suediera hizkuntza osagarri

gisa irakasten duten irakasleak arduratzen dira hizkuntzako eskola guztiez. Gehienak partaideen hizkuntza garapenaz ere arduratzen dira. Partaideei hizkuntza garatzen eraginkortasunez laguntzeko, ordea, garrantzitsua da zaintza arloko irakasleek partaideei hizkuntza trebetasunak praktikatzeko eta garatzeko aukera emango dieten irakaskuntza metodoak erabiltzea. Horrela, aukera gehiago egongo dira partaide guztiek jakintza barneratzeko eta lanari lotutako hizkuntza garatzeko. Hizkuntza garatzeko beharra izaten da osasun eta gizarte zaintzako programetako partaideen talde gehienetan eta ez suediera hizkuntza osagarri gisa dutenen artean bakarrik. Suediera ama hizkuntza dutenek ere, lehen azaldu dugun moduan, askotan hizkuntza eta komunikazio trebetasunak garatzeko beharra izaten dute. *Egindako azterlanen arabera, hizkuntzaren rolari ikasgai guztietan arreta eskaintzen dion irakaskuntza komunikatiboa eta askotarikoa ikasle guztientzako da onuragarria eta ezinbestekoa hainbat hizkuntzako ikasleentzat*³⁵.

Modu horretan hizkuntzari berariazko arreta eskainita, zaintza arloko irakasleek indartu egingo dute partaideek eskolen onura aprobetxatzeko duten ahalmena. Ikasketetarako, lanerako eta gizarteratzeko alderdi asko dituen hizkuntza eraginkorra garatzeko, ordea, zaintza arloko irakasleen ahalmenak ez dira normalean nahikoa izaten. Hizkuntza irakaslearen trebetasunak behar dira gaiari buruzko irakaskuntza suediera hizkuntza osagarri gisa irakasteko ahalmenarekin batera uztartu ahal izateko. Hizkuntza irakaslearen trebezia arlo espezifikoetan sartzen dira honako hauek: bigarren hizkuntzaren garapena, bigarren hizkuntza eskuratzea, ama hizkuntzaren garrantzia, hizkuntzak identitatean duen garrantzia, kulturarteko komunikazioa, gramatika, ahoskera, ebaluatzeko moduak, oinarrizko alfabetatzea eta irakurtzeko nahiz idazteko trebetasunak garatzea.

Osasun eta gizarte arloko irakaskuntza suediera bigarren hizkuntza gisa irakastearekin uztartzen denean, irakasleek elkar osatzen dute, bakoitzaren trebetasun arloetan oinarrituta. Irakaskuntza elkarrekin planifikatu eta gauzatzen dute eta maila bereko konpromisoa eta ardura dute ikaskuntza programa gauzatzearekin.

³⁴Monica Axelsson, Mikael Olofsson, Anders Philipsson, Carin Rosander och Mariana Sellgren, Ämne och språk — språkliga dimensioner i ämnesundervisningen. (Rapport inom Kompetensfonden Stockholm, 2006). [Monica Axelsson, Mikael Olofsson, Anders Phillips, Carin Rosander eta Mariana Sellgren, (2006), Ikasgaia eta hizkuntza — curriculumaren dimentsio linguistikoak. Stockholm: Rapport inom Kom-petensfonden]

³⁵Bigarren Hizkuntzaren Zentro Nazionalaren zuzeneko aipamena, Stockholmeko Unibertsitatea (www.andrasprak.su.se/ / common-questions / elementary school / what-is-language-and-knowledge-development). Modu horretako hezkuntza nola diseinatu azaltzeko ideiak eta aholkuak ere baditu.

Horrela, irakaskuntza aldi berean bi ikasgaiei arreta jarrita gauzatzen da. Suediera hizkuntza osagarri gisa irakasten duten irakasleek, adibidez, osasun eta gizarte arloko zaintzako testuak aldatu eta egokitu egin ditzakete partaideen hizkuntza mailaren arabera. Irakasleek ikaskuntzako jarduerak sor ditzakete ikasgaiari eta suedierari buruzko ezagutzak uztartuz; adibidez, diktaketak eta diktoglos teknikak³⁶.

Ariketak nola uztartu jakiteko adibideak 2. zatian daude deskribatuta.

Ikasleek ere adierazi dute uztartutako lan horrek badituela onurak:

- Batak besteen diziplinaren inguruko jakintza izatea.
- Irakasle rola garatzea.
- Partaideen lanpostuetan behar diren trebetasun profesionalak nahiz hizkuntza trebetasunak hobeto ulertzea
- Zaintza arloko hezitzaileak jabetzea osasun eta gizarte zaintzaren programaren teorian oinarritutako elementuek arazo asko ekar diezazkiekeela suediera hizkuntza osagarri gisa dakitenei. Zaintza arloko hezitzaileak jabetzea zaintza arloko ohiko ikastaroetan ez zaiela behar adina denborarik eskaintzen hizkuntza gaiei.

Ikaskuntza programa bat partaideek suediera hizkuntza osagarri gisa hitz egiten duten lantoki batean abiarazten denean, ikaskuntza programa hasi aurretik partaideen hizkuntza maila ebaluatzeak onurak dituela ikusi dugu. Zaintzari buruzko ikaskuntza suediera ikasteko ikaskuntzarekin uztartzeko beharra nork duen jakitea eta partaideek zer hizkuntza maila duten jakitea dira helburuak.

Hizkuntza maila ebaluatzeak, SFIko kokatze proba bat edo EEEF pertsonalizatua erabil daitezke. Garrantzitsua da ebaluazioa suediera hizkuntza osagarri gisa irakasten trebatutako irakasle batek egitea.

Partaideak hizkuntza gaitasunaren araberrako taldeetan sailkatu behar al dira?

Proiektua abian zela, irakasleek aztertu zuten ea zer alde on eta txar zuen partaideak hizkuntza ahalmenen araberrako ikaskuntza taldeetan banatzeak. Kontua zera zen, gaitasun maila

ezberdinekoak biltzea edo antzeko gaitasuna zutenak biltzea. Taldeak egiteko, jakina, partaide kopuruak horretarako adinakoa izan behar du.

Irakasleek askotariko esperientzien berri eman dute eta garbi dago bi aukerek dituztela alde onak eta txarrak.

Gaitasun maila ezberdinekoak elkarrekin dauden taldeetan, partaideen maila ezberdina dela eta, ikasleek elkarri laguntzeko aukera izaten dute eta horrek eragin positiboa du ikaskuntzan.

Maila apalagoa dutenentzat hizkuntza akuilu izan daitezke eta besteek hizkuntza garapenean aurrera egin dutela ikusteak motibazioa indar diezazieke. Irakasleek kontatu digute batzuetan pentsatu izan dutela partaide bat ez zela hain urrutira iritsiko baldin eta taldekide guztiak maila baxukoak izan balira. Horretarako, jakina, taldeko giroak positiboa eta tolerantzia izan behar du eta partaide horrek seguru sentitu behar du taldean.

Egoera horrek, gainera, irakaskuntza partaide bakoitzaren beharretara eta eskakizunetara egokitzeko erronka jartzen die irakasleei. Beraz, plangintza elkarrekin egiteko behar adina denbora izatea eta bi irakasleen artean ondo ulertzea beharrezkoak dira irakaskuntza eraginkorra izateko eta ikaskuntzarako konpromisoa sortzeko. Garrantzitsua da, horrez gain, irakasleak aukera izatea partaideak hizkuntza mailen araberrako talde txikitari jartzeko aukera emango dion espazio bat erabiltzeko.

Irakasleek esperientzia ez hain positibo batzuk ere kontatu zituzten gaitasun maila ezberdineko taldeen inguruan. Adibidez, hizkuntza maila ezberdineko partaide batzuek ikaskuntzari oztopoak jartzea. Maila apalagoko partaideak urduri jarri eta kezkatu egin daitezke erritmoa geldiarazten dutelako. Hizkuntza garapenean aurreratuago dauden partaideen aldean desabantaila dutela ere senti dezakete. Bestalde, maila altuagoko ikasleak frustratu egin daitezke motelago ikasten dutenei itxaron behar izategatik. Aldiz, partaideak hizkuntza mailen araberrako taldekatuta talde homogeneoagoak sortzen dira. Horrek erraztu egiten du ikasteko elkarri laguntzean oinarrituta giroa sortzea eta mailari egokitutako materialak eta metodoak erabiltzea.

³⁶Diktoglos hizkuntza idatziko ariketak garatzeko metodo bat da, hizkuntzaren gramatika egiturak praktikatzeko pentsatua. Informazio gehiago eta tutoretzaren deskribapena eskuragarri daude Suediera bigarren hizkuntza gisa ikasteko Zentro Nazionalan. http://www.andrasprak.su.se/polopoly_fs/1.96098.1343287170!/menu/standard/file/kristina



Irakaskuntza talde osoarentzako egokia den mailara bideratu daiteke. Talde osoa maila berean dagoenean, gainera, partaideentzat errazagoa izan daiteke elkarri laguntzea eta elkarrengandik ikastea. Esaterako, testuak lasai irakur ditzakete ozen, besteek erritmoa motelegia dela pentsatuko ote duten beldurrik gabe.

Gaikako irakaskuntza eta osasun eta gizarte zaintzako programako ikastaro integratuak

Goian deskribatu dugu nola uztartzen diren osasun eta gizarte arloko zaintzaren ikaskuntza eta suediera bigarren hizkuntza gisa ikastea. Lantokiko ikaskuntza integratuan, badira osasun eta gizarte zaintzako programa osatzen duten ikastaroak uztartzearen abantailak ere. Proiektuan izandako esperientziak erakutsi ditu onura asko ekartzen dizkiela lan mundutik datozen partaideei. Partaideei aukera ematen die programara ekartzen dituzten trebetasunak eta esperientzia erabiltzeko eta sustatzeko.

Hainbat ikastaro uztartzean, partaideek programako bi ikastaro edo gehiago ikasten dituzte aldi berean, aldi bakoitzean bat ikasi beharrean.

Plangintzan, irakasleek, lehenik, lantokiak eta partaideek zer gaitasun garatu behar duten aztertu eta horiei lotutako gaiak identifikatzen dituzte. Gai horien artean daude, adibidez, dementzia, elikadura eta otorduak, harremanetarako trebetasunak, informazioa idatziz jasotzea eta txostenak egitea eta abar. Irakasleek, kudeatzaileak eta partaideek zer gai sartu adosten dutenean, zaintza arloko irakasleak osasun eta gizarte zaintzaren programan dagozkion ikastaroak aztertzen ditu. Aztertu beharreko gaiak zein diren eta partaideek egin gabe zer ikastaro duten kontuan hartuta, irakasleak plangintza egiten du zer ikastaro uztar daitekeen ikusteko.

Batzuetan, ikasgaiak uztartzean, taldeko partaide guztiek ez dute ikastaro berdina edo berdinak ikasten. Horregatik, irakasleek ondo jantziak egon behar dute osasun eta gizarte zaintzako programa osoan. Irakasleek hainbat ikastaroren edukiak eta ikastaro horien jakintza eskakizunak ezagutzen badituzte, plangintza askoz errazago egingo dute. 2. zatian badago lan plangintzaren adibide bat eta hor ikus daiteke mota honetako antolaerak nolakoak diren (ikus 8. orrialdea).

2. zatia — Plangintza, metodoak eta jarduerak

2. zatian proiektuetako adibide praktikoak azalduko ditugu. Irakasle baten baino gehiagoren adibideak dira, beraz, hainbat ikuspegi eta estilo ikusiko ditugu. Ikaskuntza programaren plangintzarekin hasiko gara eta ondoren, lantokiko ikaskuntza prozesua erakusten duten adibideak azalduko ditugu. Espero dugu 2. zati honetan irakasleei programan lanean hasi aurretik eta hasi ondoren erabilgarri izango zaizkien aholkuak eta ideiak ematea. Materiala erabil daiteke ikaskuntza programetarako irakaskuntzako baliabide gisa ere. Zati honek gidaren lehen zatia osatzea eta indartzea da gure asmoa.

Irakasten hasi aurretik

- Irakaskuntza antolatu duen kudeatzailearekin bilera
- Lantokiko kudeatzaileekin bilera
- Tokiko trebakuntza plana, lantokiko kudeatzaileekin batera garatuta.

Hizketaldia ikaskuntza antolatu duen kudeatzailearekin

Lehenago adierazi dugun moduan, lantokiko ikaskuntza integratuak ohiko hezkuntza testuinguruetan aurkituko ez dituzten eskakizun eta aukerak ekarriko dizkie irakasleei. Lantokiko ikaskuntza programa bat eraginkortasunez gauzatzeko, irakasleek denbora behar dute lantokiko kudeatzaileekin eta giltzarri diren langileekin batera, elkarrekin, plangintza egiteko. Osasun eta gizarte arloko zaintzaren ikaskuntza eta suediera hizkuntza osagarri ikasteko eskolak uztartzean, irakasleek elkarrekin egoteko denbora behar dute, uztartze horren plangintza egin ahal izateko. Garrantzitsua da irakasleek haien kudeatzaileen babesa izatea plangintza egiteko behar adina denbora izan dezaten. Irakasleek honako alderdi hauek adostu behar dituzte kudeatzaileekin:

- Irakasleek lantokiko ikaskuntza programan izango duen rola, xedeak eta helburuak barne
- Ikaskuntza eskaintzen duenak programan izango duen rola
- Ikaskuntza eskaintzen duenak nola erantzungo duen ikaskuntzarako laguntza gehiago izateko beharra sortzen bada; adibidez, partaideek irakurtzeko eta idazteko zailtasunak badituzte

- Ikaskuntza eskaintzen duenak nola erantzungo duen SFI aditu baten beharra sortzen bada; adibidez, partaideak eskolan oso gutxi ibilitakoak badira (eta, beraz, oinarrizko alfabetatzerik ez badute).
- Irakaskuntzarako eta plangintza egiteko denbora
- Ikaskuntza eskaintzen duenak nola kontrolatu eta ebaluatuko duen ikaskuntza programako irakaskuntza
- Irakasleen garapen profesionalerako beharrak eta aukerak.

Lantokiko kudeatzaileekin bilera

Ikaskuntza programa hasi aurretik, irakasleek partaideen kudeatzailearekin bilera egin behar dute honako gai hauek lantzeko:

- Kudeatzaileek nola espero duten ikaskuntza programak lantokiari mesede egingo diola
- Partaideei zer esan dieten ikaskuntza programari buruz eta nola hautatu dituzten programarako. Programan parte hartuko duten langileek, programa hasi aurretik, ondo informatuta egon behar dute programaren helburuei buruz. Irakasleek jakin egin behar dute kudeatzaileek eta partaideek zer hitz egin duten programari buruz, horrek asko eragingo baitio partaideek ikasteko duten motibazioari. Programa abian dela ere, irakasleek, agian, partaideak motibatzen jarraitu beharko dute, baina oinarria kudeatzaileek ezarri behar lukete hasieratik
- Partaideei nola esan aurretik duten prestakuntzari eta ziurtagiriei buruzko informazioa ekar dezatela programa hastean. Garrantzitsua da partaideek eskakizun hori zergatik egin zaien ulertzea; hau da, formalki aitortutako gaitasun profesional hori abiapuntua izango dela irakaslearekin prestatuko duten bana-banako ikaskuntza plangintzarako
- Partaideen hizkuntza mailak Suediera bigarren hizkuntza duten partaideek SFIren hizkuntza proba bat egin edo Europako Kontseiluaren hizkuntza eskalan (EEEF) oinarritutako ariketa bat egin behar dute programa hasi aurretik. Talde bat baino gehiago osatzeko adina partaide badago, irakasleek erabaki egin behar dute taldeak hizkuntza mailaren arabera egin edo ez. Ikusi 1. zatia, 8. orrialdea

- Partaideen taldeen tamaina eta osaera SpråkSam proiektuko talde gehienek bost-hamar partaide zituzten eta irakasle gehienei iruditu zitzaizen gutxiegi zirela. Zaila izan zen taldeetan behar adinako abiada hartzea. ArbetSam proiektuan, 10-15 partaideko taldeak egin zituzten eta ondo moldatu ziren, aukera izan baitzuten partaideen egoerak kontuan hartzeko
- Beste langileei zer esan programari eta programak lantokira ekarriko duenari buruz
- Partaideen laneko ordutegiak nola antolatu, ikaskuntzako saioretara zaintza jasotzen dutenak eta lankideak salduta uzten dituztela sentitu gabe
- Zein izango diren giltzarri diren langileak; hau da, hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariak, hizkuntza laguntzaileak, dokumentazio laguntzaileak³⁷
- Zer antolaketa adostu dituzten partaideek eta kudeatzaileek ikasi ahal izateko lanetik libratzeari, jaiegunetan ikasteari, partaideen garapena kontrolatzeari eta ebaluatzeari eta abarri lotuta
- Trebakuntzarako tokiko instalazio egokiak eta ikasteko baliabideak eskura izatea; ordenagailuak, proiektagailuak eta abar
- Ikastarorako liburuak eta bestelako materialak erosteko prozedurak.

Tokiko ikaskuntza plana

Gai orokorrenak adostu ondoren, irakaslea eta kudeatzailea has daitezke ikaskuntza programaren plangintza egiten. Hasteko, tokiko lantokirako berariaz prestatutako programa bat elkarrekin garatu behar dute. Partaideak udalerrri, eskualde edo enpresa bateko lantoki batetik baino gehiagotatik etortzen direnean, partekatutako ikaskuntza programaren plangintza egin daiteke udalerrirako/eskualderako/enpresarako. Kudeatzaileak lantokiak ikaskuntza programarako

dituen xedeak eta helburuak jarriko ditu eta irakasleak, berriz, ikaskuntzaren diseinua. Ezin dira ikaskuntza programaren alderdi guztiak zehaztu irakasleek partaideak ezagutu eta zer trebetasun eta ikaskuntza helburu dituzten jakin aurretik, baina plangintzaren zirriborroa fase honetan egin behar da ikaskuntza programaren plangintza egiteko. Tokiko ikaskuntza programan honako hauek deskribatu behar dira:

- Garapenaren helburuak zer jakinarazten duen; adibidez, zerbitzuaren erabiltzaile baten inkesta, udalerriko/eskualdeko garapen plana eta abar.
- Ikaskuntza programaren helburua
- Ikaskuntza programaren xedeak
- Ikaskuntzan zer landu behar den lantokiko eta partaideen beharrak asetzeko
- Ikaskuntza gauzatzeko egitura eta metodoak
- Irakasleen, lantokiko kudeatzaileen eta giltzarri diren langileen artean kontrola eta *feedbacka* nola antolatuko duten.

2. eranskinean daude jasota tokiko ikaskuntza programaren 2 plan, biak ere udalerriko adinekoentzako zaintza zerbitzuei lotutakoak. Lehenengoa SpråkSam proiektukoa da eta bigarren ArbetSam proiektukoa.

Programa abiarazteko garaian

- Elkarrizketak/hizketaldeak partaideekin banan-banan
- Partaideek formalki egiaztatuta dituzten trebetasun profesionalen azterketa
- Partaideen hizkuntza mailen azterketa (suediera hizkuntza osagarri dutenentzat)
- Bana-banako ikaskuntza planak
- Txostenak, sei hilekoari buruzko zirriborroa/programaren iraupena
- Tokiko ikaskuntza plana lantokiko kudeatzaileekin egiaztatzea

³⁷Ingeleserako itzultzailearen oharra: Dokumentazio laguntzaileak lankideei informazioa idatziz jasotzen eta txostenak egiten laguntzen dieten lantokiko kideak dira.

Elkarrizketak/hizketaldiak partaideekin banan-banan

Partaideei ikaskuntza programari ahalik eta zukurik handiena ateratzen laguntzeko, programaren hasieran partaideekin, banan-banan, hitz egitea lagungarria da. Irakasleek elkarrizketetarako prestatutako galderak erabil ditzakete partaideen egoerak³⁸ eta beharrak zein diren ikusteko. 3. eranskinean galderak daude, erabili edo egokitu ahal izateko. Galdera sorta bat partaide suediarrentzako da eta beste bat suediera hizkuntza osagarri gisa dutenentzako. Aztertu partaideei galderak elkarrizketa egin baino lehen ematearen aukera, erantzunak prestatzeko astia izan dezaten.

Partaideek formalki egiaztatuta dituzten trebetasun profesionalen ikuskatzea

Ikastaroa hastean, irakasleek partaideekin hitz egin behar dute, osasun eta gizarte zaintzari edo suediera ikasteari lotuta alde aurretik zer ikaskuntza formal egin duten jakiteko.

Informazio hori garrantzitsua da partaideentzako bana-banako ikaskuntza planak garatzeko. Horiek izango dira, ondoren, ikaskuntzaren egituraren eta edukiaren plangintza, ikaskuntzaren plangintza eta tokiko ikaskuntza plana egiteko oinarria. Partaideei ohartarazi behar zaie ikaskuntza programaren hasieran ziurtagiri eta titulu guztiak ekarri behar dituztela. Horrela eginez gero, partaideekin eta abiarazte prozesuarekin lehen aldiz izandako harremana ona izango da.

Suediera hizkuntzan laguntza behar duten partaideen hizkuntza maila ikuskatzea

Trebakuntzaren lehen fasean, oso lagungarria izaten da partaideek autoebaluaziorako proba bat egitea Europako hizkuntza eskala egokitua (EEEE)³⁹ erabiliz. Era berean, irakasleak ere partaideen hasierako ebaluazioa egin behar luke, hark ere EEEF egokitua erabiliz. Hala, irakasleek eta partaideek jakingo dute gutxi gorabehera hizkuntza laguntzarako zer behar dagoen eta horrek erraztu egingo du programaren plangintza egitea.

Partaideei, ebaluazio bikoitzeko prozesu horrek (hau da, partaideen autoebaluazioa irakasleen ebaluazioarekin osatuta), lagundu egin diezaieke

suedieran zer indargune eta ahulgune dituzten jabetzen. Proiektuetako esperientziek erakutsi dute horrek, askotan, indartu egiten duela partaideek ikasteko duten motibazioa. Hala ere, ebaluazio bikoitzaren prozesu hori atzeratu egin behar da irakasleak partaideen hezkuntza ibilbideari eta ikaskuntza trebetasunei buruzko informazioa izan arte. Irakasleek denbora ere behar dute partaideen hizkuntza mailari buruzko iritzia izateko. Horrela, irakasleak partaideen hasierako ebaluazioa egiten duenean, errazago identifikatuko du partaideek behar duten bana-banako laguntza maila.

Oso garrantzitsua da partaideak autoebaluazio prozesuan gidatuko dituen irakasleak, lehenik, ebaluazio materiala sakon aztertzea. Irakasleak ulertu egin behar du materiala partaideei behar bezala laguntzeko. Gainera, emaitzak ondo ulertu ahal izateko, irakasleak materiala ezagutu egin behar du.

Partaideek askotariko beharrak izango dituzte autoebaluazioa egiteko informazioari eta laguntzari lotuta, ikasteko dituzten trebetasunen eta hizkuntza mailaren arabera. Europako hizkuntza eskala egokituaren gidak baditu adibideak, hainbat mailatan informazioa eta laguntza emateko moduei lotutakoak.

Ikaskuntza programan, partaideek gutxienez beste bi aldiz egin beharko dute autoebaluazioa. Aldi horietan ere, irakasleek partaideen ebaluazioa ere egin behar dute. Horrela, partaideek zein irakasleek partaideen hizkuntza nola garatzen den kontrola dezakete. Ebaluazio horiek ez dira elkarren oso jarraian egin behar, hizkuntza garatzeko denbora behar baita. Partaideei haien hizkuntza trebetasuna ikaskuntza programan zehar nola garatzen ari den ikusten lagunduta, ikasteko motibazioa, seguru asko, indartu egingo zaie.

Irakasleak egiten duen ebaluazioa ea partaidearen eta irakaslearen iritzia bat ote datozen ikusteko da. Ez dio axola zenbateraino datozen iritziak bat, garrantzitsuena partaideak eta irakasleak bakoitzak dituen pertzepzioei buruz elkarrekin hitz egitea da. Pertzepzioak desberdinak direnean, hitz egin behar da ea zergatik den hori, jakina. Autoebaluazioaren eta irakaslearen ebaluazioaren emaitzak bana-banako tutoretzetan kontrolatzen eta eztabaidatzen dira.

³⁸Ingeleserako itzultzailearen oharra: Egoera horietan sartzen dira, adibidez, ikasten lehendik duten esperientzia, ikaskuntza trebetasunetan eta ikasteko estrategia eraginkorretan duten maila, etxerako lanak egiteko denbora, espazioa eta aukera, suediera zenbateraino dakiten eta abar.

³⁹ArbetSam. (2013) Europako Kontseiluaren hizkuntza mailak, adinekoen eta desgaitasunak dituztenen zaintzan lan egiteko egokituta. www.lidingo.se/arbetsam Egin klik "materiala" atalean.

Hizkuntza eskala egokituko materiala erabil daiteke ikaskuntza programan. Adibidez, partaideek eztabaida dezakete ikasteko jarduera eta zeregin bakoitzerako zer hizkuntza trebetasun behar den.

Beste adibide bat zera da, programaren une jakin batean teoriarantz ari diren hori praktikan aplikatzeko zer trebetasun behar den eztabaidatzea. Ikuspegi horrek, oro har, lagundu egiten du partaideen ikaskuntza sustatzen ere.

Irakurtzeko eta idazteko zailtasunak; adibidez dislexia

Partaideen gaitasuna aztertzean edo, geroago, ikaskuntza programan, baliteke partaideren batek edo batzuek irakurtzeko eta idazteko zailtasunak izatea. Baliteke partaideek irakasleen aholkuak eta laguntza behar izatea zailtasunak diagnostikatzeko eta laguntza eskuratzeko. Dislexia dutenek eskubidea izaten dute tokiko agintarien eskutik ikasteko eta lanerako laguntza jasotzeko. Laguntza hori eskuratzeko, partaideek honako hau egin behar dute:

- Tokiko osasun zentroko sendagilearengana joan, hark logopeda batengana bideratzeko
- Lizentziadun logopeda batekin hitzordua jarri. Logopedak aztertuko du ea dislexia duen edo partaideak irakurtzeko eta idazteko dituen zailtasunak beste zerbaitek eragindakoak diren. Dislexia diagnostikatuz gero, logopedak dislexiaren zer forma eta maila den aztertuko du eta gomendioak emango ditu eskuratu beharreko laguntzari buruz.

Laguntza jasotzeko eskubidea aldatu egiten da tokiko agintaritzaren batetik bestera. Eskubide horri buruzko informazioa tokiko agintaritzaren webguneetan egoten da eskuragai. Aholkuei eta ideiei praktikoei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo Dyslexiförbundet FMLS elkartera [FMLS Dislexia Elkarte], www.dyslexi.org.

Bana-banako ikaskuntza planak

Partaide bakoitzarentzako bana-banako ikaskuntza planak ikaskuntza programaren abiarazte fasean egiten dira. Irakasleek eta partaideek elkarrekin egiten dituzte, bana-banako saioetan, eta honako hauek hartzen dituzte kontuan:

- Partaideek garapen profesionalerako dituzten helburuak; adibidez, arlo batean duten jakintza garatzea eta/edo tituluren bat ateratzea
- Partaideek formalki balioztatuta dituzten gaitasunak identifikatzea
- Partaideen hizkuntza maila ebaluatzea (partaideak suediera hizkuntza osagarria badu)
- Partaideek lanpostuari lotutako indargundeen eta ahuluneen inguruan dituzten pertzepzioak
- Lantokiko garapen helburuak, tokiko ikaskuntza planean oinarrituta
- Irakasleak ikaskuntzako adarrei buruz duen iritzi profesionala eta jakintza.

4. eranskinean daude deskribatuta bana-banako ikaskuntza planen bi txantilo. Lehen hizkuntza laguntzarik gabe ikasten duten partaideentzat da eta bigarrena, berriz, osasun eta gizarte arloko zaintza eta atzeritarrentzako suedierako eskolak uztartuta jasotzen dituztenentzat.

Lan bilduman oinarritutako ikuspegia

ArbetSam proiektuko irakasleek lan bilduman oinarritutako ikuspegia erabili zuten. Lan bildumaren helburua partaideei ikaskuntza prozesuan laguntzea da. Lan bilduma garatzeak partaidearen arduraren izan behar du eta partaidearen jardueretan, ekarpenetan eta hausnarketarako gaitasunean oinarrituta egon behar du.

Lan bildumak, beraz, oinarri zehatz eta argia ematen du partaideekin bana-banako eztabaidak egiteko. Lan bildumako jarduera eta lan zehatzei erreferentzia egiteko gaitasuna izateak erraztu egiten du irakasleen eta partaideen arteko eztabaida. Hala, irakasleek eta partaideek aukera gehiago izaten dituzten partaideak ikaskuntzan nondik nora dabilen ikusteko eta ikaskuntza sustatzeko zer egin behar luketen jakiteko.

Oro har, honela deskriba daiteke lan bilduma:

1. Helburu zehatz bat du
2. Helburu jakin baterako garatzen da
3. Jarduerak/lanak/ikaslanak biltzen ditu
4. Hausnarketan oinarritutako edukiak ditu

5. Indarguneak nabarmentzen ditu eta hurrengo urratsa egiteko bidea erakusten du
6. Ikaskuntzaren prozesua, emaitza eta bilakaera idatziz eta erraz ikusteko moduan jasotzen ditu⁴⁰.

Lan bildumak aukera ematen die partaideei ikaskuntza programak irauten duen bitartean ikaskuntza prozesuak eta garapena ikusteko. Lan bilduma, lagungarria da, gainera, errendimendua aztertzeko partaideen eta kudeatzaileen artean eztabaidak egiteko. Lan bilduman jasotako laburpen dokumentua⁴¹, ziurtagiriak, materialak eta informazioa abiapuntu ona izan daitezke partaidearen uneko lan egoerari eta garatzeko helburuei buruz hitz egiteko.

ArbetSam proiektuko lan bildumek honako hauek zituzten:

- Partaidearen ibilbidea eta esperientzia, tituluak eta ziurtagiriak
- Partaideak hizkuntza trebetasunen inguruan egindako autoebaluazioa
- Partaidearen ikaskuntza plan indibiduala
- Ikastrak eta beste lan batzuk
- Beste elementu mota batzuk; esaterako, partaideak ekarritako material pertsonala

Lan bildumek partaideei eta irakasleei lagundu egin zietan ikaskuntza prozesuari buruz hitz egiten eta aurrerabidearen segimendua egiten. Lan bildumak lagungarri izan ziren partaideen, irakasleen eta kudeatzaileen arteko hiru norabideko eztabaidetarako ere.

Esperientzia

ArbetSam proiektuan, partaideek zein irakasleek izan zituzten noizbehinka zailtasunak lan bilduman oinarritutako ikuspegia abiarazteko.

Partaide batzuei, hasieran, kosta egin zitzaizen karpeta bat antolatzea, han dokumentuak ondo antolatu sartzera eta abar. Baliteke ikasketetan

esperientzia gutxi izateagatik gertatzea hori; baita lan bildumaren helburua behar bezala ulertu ez zutelako ere. Irakasle batzuei ere deserosoa egin zitzaizen ikuspegi horrekin lan egitea. Irakasle batzuek lan bilduma erabili zuten, baina haiek hartu zuten haren ardura eta etxean edo bulegoan gordetzen zituzten. Partaideek ezin zuten haien lan bildumaren “jabe” izan irakasleak zuenean. Esperientzia horretatik zera ikasi genuen, proaktibo izan behar zela lan bildumaren ikuspegia, helburua eta ahalmena azaltzean; baita irakasleei partaideekin ikuspegia azaltzeko gidatu beharreko eztabaidak egiteko trebakuntza ematean ere.

Lan bilduma erabili zuten irakasle gehienei iruditu zitzaizen ikuspegi hark partaideei benetako onurak ekarri zizkiela, ikaskuntza prozesuan parte harrarazi baitzien. Lan bildumak partaideen ikasteko motibazioari eragin positiboa egin zion.

Taldean ikasteko planak

Lantokian gaitasunak garatzeko dauden beharrak eta partaidearen ikasteko beharrak eta helburuak argi identifikatuta daudenean, ikaskuntza plan bat idazteko garaia da. Irakasleek taldeko ikaskuntza plan bat garatu behar dute ikaskuntzaren aldirako, normalean seihileko baterako, honako hauetan oinarrituta:

- *Lantokian gaitasunak garatzeko dauden beharrak; hau da tokiko ikaskuntza planaren garapen helburuak*
- *Partaideek garapen profesionala izateko dituzten beharrak eta eskakizunak; hau da, bana-banako ikaskuntza planak*
- *Osasun eta gizarte zaintzako ikastaroak, ikaskuntza plan indibidualak kontuan hartuta egokiak diren gaiekin lotuta*
- *Suediera ikasteko ikastaroen programak, ikaskuntza plan indibidualentzat egokiak direnak.*

Hurrengo orrian ikus daiteke proiektuko bi irakasleek diseinatutako ikasketa plan baten zati bat.

⁴⁰Birgitta Ellmin och Ulrica Ellmin Cederholm, Portfolio för professionell utveckling — att leda sig själv och andra. (Malmö: Gleerups Utbildning AB, 2006). Sid 18. [Ellmin, Birgitta eta Ellmin Cederholm, Ulrica, (2006) Garapen profesionalerako lan bilduma - norbera eta besteak gidatzea. Malmö: Gleerups Hezkuntza AB. 18. or..]

⁴¹Ingeleserako itzultzailearen oharra: Suedian, ziurtagiriak eta graduak elkarrekin jartzen dira batzuetan, laburpen dokumentu gisa.

15. astea

Edukia / Ezartzea	Lantokiko garapen helburuak	Enborreko unitateak: Osasun eta gizarte arloko zaintza lana 1.200p	Enborreko unitateak: Dieta, otorduak eta ahoko osasuna, 100 p ⁴²	Enborreko unitateak: Dieta, otorduak eta ahoko osasuna, 100 p	Etixerako lanak	Testuliburua / baliabideak
<p>OTORDUAK (jarraipena)</p> <p>Edukiak: Otorduak etxean prestatzea. Elikagaien osiera. Otordu planen azterketa.</p> <p>Neurria eta pisu unitateak - errepasoa.</p> <p>Gorputz masaren indizea eta malnutrizioa - sarrera.</p> <p>Ezartzea: Taldeko lana Ord med tanke på vård [Hitzak zaintzan]⁴³ delakotik hartutako ariketekin</p> <p>Osatu otordu plan pertsonalizatuak zaintza jasotzen duten eta</p>	<p>Dietaren garrantziaz hobeto jabetzea.</p> <p>Ahozko interakzioa hobetzea.</p> <p>Ahozko eskaerei erantzuteko ahalmena hobetzea.</p> <p>Hiztegia zabaltzea.</p> <p>Sormenezko pentsaerarako gaitasuna hobetzea.</p> <p>Suediako sukaldaritzako tradizioak hobeto ezagutzea eta horiei buruz hausnartzeko gaitasuna izatea norberaren esperientzia kulturaletan oinarrituta.</p>	<p>Zaintza pertsonala; adibidez higie pertsonala, ahoaren zaintza, dieta eta hidratazioa, otorduen kokapena, atsedena eta loa, kanporatzea, arropak eta janzkera eta ohean luze egotetik sortutako konplikazioak.</p> <p>Jokabide etikoa osasun zaintza eta gizarte zerbitzuetan.</p> <p>Zerbitzu lanak etxean; adibidez, arropak garbitzea, garbitzea, erosketak, jatekoa prestatzea eta elikagaiak erabiltzea.</p>	<p>Nutrizio beharrak, nutrizioa eta dietari lotutako gomendio nazionalak.</p> <p>Dietaren eta otorduen alderdi kulturalak</p> <p>Dieta orekatua eta dieta bereziak osasunari, gaixotasunei eta desgaitasunei lotuta.</p>	<p>Helburuetara eta solaskideetara egokituta, eguneroko bizimoduko, gizarteko bizimoduko eta laneko egoera informaletan eta formalagoetan komunikatzea.</p> <p>Eguneroko bizitzako, gizarteko bizimoduko eta laneko egoera informaletan modu argian esandakoak ulertzea.</p>	<p>Lantokia aztertzea nutrizioari erreparatuta.</p>	<p>Ord med tanke på vård [Hitzak zaintzan], 64-65 or.</p> <p>Idaren lanastea. Gizarte zaintzan lanean. - Neurtzeko ariketak, 26. or.</p> <p>Gure sukaldeko liburuak. Zure lorategia.</p> <p>Gorputz masaren indizearen txartela. Arriskuko pazienteen ebaluazioa (Nutriciako materiala).</p>

16. astea

<p>OTORDUAK</p> <p>Edukiak: Dietaren paper zorroarekin lan egitea: nutrizioa, elikagaien osagaiak.</p> <p>Dieta eta osasuna.</p> <p>Bakoitzaren ikaskuntza planaren laburpena (lantoki bat) - 3 partaide</p> <p>Ezartzea: Ozen irakurtzea eta irakurritzko ulermena.</p> <p>Testu irakurketen eta gaien inguruko eztabaida.</p> <p>Idazmena</p> <p>Lana: Laneko nagusiarekin bilera.</p>	<p>Egoiliarren egoera aztertze gaitasuna hobetzea, malnutrizio arriskua kontuan hartuta.</p> <p>Lantokiko elikadura politikaz hobeto jabetzea.</p> <p>Norberaren irakurtzeko eta idazteko trebetasunak hobeto ezagutzea eta ulertzea.</p>	<p>Goiko berdina.</p> <p>Nola egin zereginak modu estetikoan.</p>	<p>Nutrizio beharrak, nutrizioa eta dietari lotutako gomendio nazionalak.</p> <p>Dietaren eta otorduen alderdi kulturalak.</p> <p>Dieta orekatua eta dieta bereziak osasunari, gaixotasunei eta desgaitasunei lotuta.</p>	<p>Partaideek konplexutasun pixka bat duten testu sinpleak irakurri, ulertu eta erabili egin ditzakete eguneroko bizimoduan, gizartean eta lanean.</p> <p>Testu sinpleak idaztea helburuetara eta entzuleetara egokituta.</p>	<p>Irakurmena eta idazmena lantzeko etxerako lanak (laneko artikulua bat idaztea eta irakurritzko ulermen ariketa bat egitea).</p>	<p>Dietaren paper zorroa, Stockholm hiria, 9-16 or.</p> <p>Aberastea, Energia, Malnutrizioa, 36-37 or.</p> <p>Ord med tanke på vård [Hitzak zaintzan], 14-16 or.</p> <p>Sukaldari ikasleak adinekoentzako otorduak prestatzen Bjurslätt-en (iturria: Internet) - etxerako lanak.</p>
---	---	---	---	---	--	--

⁴²Ingeleserako itzultzailearen oharra: "p" horrek "poäng" esan nahi du; alegia, puntuak. Poäng horiek kreditu formalak dira eta 20 poäng batxilergoko astebeteko lanaren baliokidea dira.

⁴³Berggren, Anita; Lundkvist Anne. (2003) Ord med tanke på vård [Hitzak zaintzan] Malmö: Gleerups 'Suediera bigarren hizkuntza gisa irakastea gizarte zaintzari erreparatuta. Liburuxkan alor honetako hainbat lanbideri lotuta eta horietarako erabilgarriak diren hitzak eta esamoldeak daude jasota. Aurrera egin ahala zailtasuna handitzen zaien ariketen bidez, ikasleei ikasten jarraitzeko estimulua ematen zaie, ikasitakoa etorkizuneko ibilbidean zuzenean erabil dezaketelako edo profesional horiekien komunikatzeko beharra izan dezaketelako. Materialak aukera ematen du irakastean bereizketa egiteko eta balio du arlo honetako goi mailako ikasketetan laguntzeko ere." Hemendik hartua: <http://www.adlibris.com/se/bok/ord-med-tanke-pa-var-d-9789140642455> [2013ko urriaren 6an sartua]



Balioztatzea — aurretiazko ikaskuntzari balioa emateko bide bat

Balioztatzean⁴⁴ sartzen dira pertsona bakoitzaren uneko jakintza, trebetasunak eta ahalmenak identifikatzea, neurtzea eta ebaluatzea; pertsona bakoitzaren aurretiazko ikaskuntza, alegia.

Balioztatzeak ez du bereizten pertsona bakoitzak aurretiazko ikaskuntza hori nola eskuratu duen.⁴⁵

Aurretiazko ikaskuntza honako bide hauetatik eskura daiteke:

- Ikaskuntza formala; adibidez, ikaskuntza egituratua bigarren hezkuntzan edo unibertsitatean (ikaskuntza formala hezkuntza publikoko sisteman)
- Ikaskuntza ez formala; adibidez, ikaskuntza egituratua lantokian. Hor sartzen dira *coaching* delakoa eta lantokiko garapenerako hainbat motatako jarduerak (hezkuntza publikoko sistematik kanpoko ikaskuntza formala)
- Ikaskuntza informala, eguneroko ikaskuntza egituratu gabea, lantokian eta handik kanpo⁴⁶.

Pertsonak eskuratutako jakintza, trebetasunak eta ahalmenak (gaitasuna alegia) aitortzeko eta horiei balioa emateko gero eta ohikoagoa da balioztatzea⁴⁷. Balioztatzea, adibidez, partaideen jakintza maila zehazteko eta edukia bakoitzari egokitzeko erabil daiteke ikaskuntza formalean. Balioztatzea kontratazioetan jakintza eta trebetasunak dokumentatzeko eta giza baliabideen garapenerako ere erabil daiteke.

ArbetSam proiektuan probatu eta garatu dugun balioztatze eredu lantokiko gaitasunen garapenean oinarrituta eraiki dugu. Gure ereduaren, partaideen aurretiazko ikaskuntza ikaskuntzan tartekatutako prozesu bakarrean.

Partaideek ikastaroa burutzean jakintzari lotutako eskakizunak betetzen dituztenean, sinesgarritasuna eskuratzen dute.

Balioztatze ereduak

Balioztatzea hainbat modutan diseina eta gauza daiteke, helburuaren eta balioztatzeak pertsonari ekarriko dionaren arabera. Prozesu bat den aldetik, balioztatzeak bi aukera eskaintzen ditu: sumatiboa eta formatiboa.

- Balioztatze sumatiboaren helburua pertsona bakoitzaren aurretiazko ikaskuntza aitortzea da titulu formal baten edo kreditu akademikoaren bidez
- Balioztatze formatiboaren helburua, berriz, ikaskuntza prozesurako informazioa ematea da Balioztatze formatiboak zehazten du pertsonak zer burutu edo ikasi behar duen titulu formala edo kredituak eskuratzeko⁴⁸.

Balioztatze sumatiboa

Mapping

1a

Mapatzea, ebaluazioa eta idatziz jasotzea

1b

Balioztatze formatiboa

Mapatzea, ebaluazioa eta idatziz jasotzea

Ikaskuntza sakontzea

2

Mapatzea, ikaskuntza, ebaluazioa eta idatziz jasotzea

3

Diagrama hau Anderson and Fejes-etik egokittuta dago (2005, 116. orria)

1a eta b) Balioztatze sumatiboa lan bila dabiltzanak balioztatzeko erabiltzen da, adibidez, bakoitzaren trebetasunak hutsik dauden lanpostuekin alderatzeko.

2) aldaerako balioztatzeko formatiboak ikaskuntzan sakontzera eramaten du.

3) 3. aldaerak ArbetSam proiektuan erabilitako balioztatze prozesua erakusten du. Balioztatzea eta ikaskuntza aldi berean egiten dira eta prozesu bakarraren parte dira.⁴⁹

Lantokiko ikaskuntza programetan, partaideek, askotan, hainbat urtetako lan esperientzia izaten du; hainbat urtetako aurretiazko ikaskuntza, beraz.

⁴⁴Ingeleserako itzultzailearen oharra: Balioztatzea aurretiazko ikaskuntza aitortzearen eta/edo ziurtatzearen baliokidea da.

⁴⁵<https://www.valideringsinfo.se/sv/Om-validering/>

⁴⁶Ibid.

⁴⁷Andersson, Per eta Fejes, Andreas (2005) Jakintza aintzat hartzea — balioztatzea teorian eta praktikan. Lund: University Press. ⁴⁸Ibid.

⁴⁹Ibid.

Arrazoi onak daude lantokiko ikaskuntzaren plangintza egitean, partaideen jakintza eta trebetasunak abiapuntutzat hartzeko. Hutsetik hasi beharrik ez izateak partaideen ikasteko motibazioa eta konpromisoa indar dezake. Jakintza teoriko berriaren bidez egiaztatu edo egokitu egin daiteke partaideen jakintza. Horrek lantokian zaintzaren maila handiagoa izatea ekarri ohi du.

Duten trebezia balioztatzen bazaie, partaideek aukera izango dute denbora aurrezteko eta ikasteko duten denbora eraginkortasunez erabiltzeko. Ikaskuntza berria trebetasun praktikoei lotu eta trebetasun horiek eduki teorikoekin indartuta, partaideek aukera izango dute dituzten gaitasun profesionalak sakontzeko.

Irakasleak balioztatzean duen rola

Balioztatzeak egiteak hainbat eskakizun ekartzen dizkio irakaslearen rolari. Lantokiko ikaskuntzan aritzen diren irakasle gehienek balioztatzeen ikuspegia eta *coachinga* erabiltzen dituzte.

Garrantzitsua da irakasleek partaideen trebetasunak ebaluatzean eta neurtzean ikuspegi egituratu bat erabiltzea. Partaideek parte hartu behar dute haien ikaskuntza prozesuan eta ikusi egin behar dute trebetasunak aintzat hartzearen eta neurtzearen prozesua nola egiten den.

Balioztatzea eta irakaskuntza uztartzeko lanean aritzen diren irakasleentzako garrantzitsua da hausnarketa egin eta trebeziei eta ikaskuntzari nola begiratzen dieten aztertzea. Irakasleak orainari jarri behar diote arreta, partaideek lehendik zer esperientzia eta jakintza dakarten jabetu eta ikaskuntza prozesua aurrerantz gidatzeko gai izan.

Adinekoak zaintzeko lantokietako ikaskuntza programetan balioztatzea erabiltzen duten irakasleek honako hauek ere egin behar dituzte:

- Adinekoen zaintzari lotutako laneko jardueri buruzko ezagutza eguneratua izatea
- Osasun eta gizarte zaintzaren programako ikastaroak ezagutzea; baita adinekoen zaintzari lotutako jakintza espezializatua ere
- Aholkuak emateko ikuspegia izatea
- Ikuspegi egituratua izatea
- Partaideen trebetasun mailatik eta beharretatik abiatzea

- Ikaskuntzarekiko ikuspegi malgua izatea.

Kudeatzailearen rola balioztatze prozesuan

Partaidearen kudeatzaileak rol garrantzitsua du balioztatze prozesuan. Irakasleek eta kudeatzaileek elkarlanean aritu behar dute ikaskuntzaren plangintzan eta balioztatzean. Erabaki egin behar dute ea partaideak nola hautatuko dituzten eta partaideei eta beste langileei informazioa nola emango dieten.

Kudeatzaileak sortu behar ditu balioztatze prozesurako baldintzak, lantokiko beharretan eta aukeretan oinarrituta. Kudeatzaileak antolatzen ditu irakaskuntzarako eta balioztatzeetarako ordutegiak.

Oso onuragarria da kudeatzailearentzat eta irakaslearentzat prozesuan zehar bilakaera aztertze bilerak egitea. Horrez gain, kudeatzaileek eta irakasleek irekitasunez jokatu behar dute lantokiko ikaskuntza programa eten dezaketen kontuen inguruan.

Balioztatze laguntzaileak

Ikastaroetako elementu praktikokoak neurtzeko, ArbetSam proiektuan parte hartutako lantoki batzuek balioztatze laguntzaileak izendatu zituzten. Erizain laguntzaileak edo erizainak izan ziren irakasleekin batera lanean aritu zirenak. Balioztatze laguntzaileek partaideen oinarriko jakintza eta zaintza laneko trebetasun praktikokoak neurtu zituzten sailean edo unitatean.

Lantoki batek balioztatze laguntzaile bat izendatzean, garrantzitsua da laguntzaile horrek zerbitzuetan behar adinako osasun eta gizarte zaintzako trebeziak izatea. Ikastaroaren edukiak eta jakintza eskakizunak ezagutzea ere beharrezkoa da. Irakasleak bezalaxe, balioztatze laguntzaileek ere *coaching* ikuspegia bere egin behar dute. Lantokiko lankideen konfiantza behar dute. Balioztatze laguntzaileen zeregina irakasleekin batera lanean aritzea eta balioztatzen ari diren pertsonak arlo praktikokoan zer moduz ari diren jakinaraztea da.

Partaideak

Ikaskuntza integratua eta balioztatzea eskaintzen zaien langileek balioztatuak izateko konpromisoa eta motibazioa izan behar dituzte. Garrantzitsua da partaideen hizkuntza trebetasunak ahozko zein idatzizko balioztatze proba egiteko behar bestekoak izatea ere. Partaideak suediera hizkuntza osagarri gisa hitz egiten badu, hizkuntza mailak, gutxienez,

SFIko D mailakoa edo SVAko oinarrizko mailakoa izan behar du.

Arauk eta lege dokumentuak

Helduen ikaskuntzari buruzko 2011:1108 Ordenantzak balorazio egituratua, ebaluazioa eta dokumentazioa (hau da, idatziz jaso) dituen prozesu gisa deskribatzen du balioztatzea. Balioztatzeak aitortu egin behar ditu pertsona batek dituen jakintzak eta gaitasunak, edozein dela horiek eskuratzeko modua. Jakintza eta gaitasuna balioztatze bidez baloratzen dizkiozten edonork izan behar du jakintza eta gaitasun horiek idatziz dokumentatzeko gaitasuna⁵⁰.

Tokiko agintaritzak kudeatutako helduen hezkuntza sisteman, balioztatzeetan balorazio probak egiten dituzte⁵¹. Balioztatzea ikasleen jakintza eta trebetasunak aztertuta osatzen dute. Proba horretan, partaideek ikastaroari lotuta zer jakintza duten neurtzen da curriculumean ezarritako helburuak eta ikasketa programaren jakintza eskakizunen arabera.⁵²

Balioztatutako jakintzaren proba jakintza eskakizun nazionaletan dago oinarrituta. Ebaluazioetarako eta ziurtagirietarako xedapen ofizialak aplikatzen dira. Ohiko ikaskuntzan bezalaxe, hainbat balorazio mota erabil daitezke. Irakasleek ikasleen jakintzari buruzko ahalik eta informazio gehien erabili behar dute jakintza eskakizun nazionalen lotuta. Ikaskuntza eta balioztatze programa sortutako ebaluazio datu guztiak jakintzaren balorazio sakon bat egiteko erabili behar dira. Horrek esan nahi du irakasleak malgutasunez joka dezakeela proba egiteko moduari dagokionez. Ikasleen jakintza maila guztietan neur daiteke; Atik Fra⁵³.

Balioztatzeak hainbat helburu izan ditzake eta hainbat modutan gauza daiteke. Gainera, askotariko iritziak egon daitezke balioztatzeak zer esan nahi duen azaltzeko. Goi Mailako Lanbide Heziketaren Agintaritzak gobernuaren agindua du balioztatzeak egitura nazionala koordinatzeko eta laguntzeko eta

balioztatze nazionalerako irizpideak eta jarraibideak garatu ditu balioztatzeetan kalitatea ziurtatzeko eta dokumentazioa kudeatzeko⁵⁴.

Balioztatze formatiboa lantokiko ikaskuntza programetan

Lantokiko ikaskuntzan balioztatzea aplikatzeko, partaideek praktikan dituzten trebetasunak identifikatzen dituzte irakasleek eta partaideek eta, ondoren, zer jakintza eta gaitasun duten neurtzen dute. Programaren bidezko ikaskuntza osagarriak bete egiten ditu jakintzan eta sinesgarritasunean dauden hutsuneak. ArbetSam proiektuan, aukera izan genuen ikaskuntza eta balioztatzea uztartzeko bi eredu aztertzeko:

Balioztatzea 1. ereduaren arabera

Partaideen ikaskuntza maila eta gaitasunak garatzeko beharra identifikatzen dira eta ondoren abiarazten da ikaskuntza programa. Irakasleek osasun eta gizarte zaintzako programako gaietan eta ikastaroetan oinarrituta egiten dute eskolen plangintza. Ikaskuntza programan zehar, irakasleak eta partaideek zer baliozta daitekeen eta partaideak zer gai ikasi behar dituen identifikatzen dute. Balioztatzea eta ikaskuntza ikastaro batean edo gehiagotan oinarritzen dira.

Balioztatzea 2. ereduaren arabera

Partaideek balioztatze eredu formatiboaren arabera ekiten diote balioztatze prozesuari. Balioztatze prozesuan sartzen dira aurretiazko ikaskuntzaren identifikazioa, balorazioa, ebaluazioa eta dokumentazioa; baita partaideak ikastaro batean edo gehiagotan kredituak lortzeko behar duen ikaskuntza osagarria ere. Lan praktikoaren balioztatzea partaidearen lantokian egiten da. Irakasleak eta balioztatze laguntzaileak partaideak ebaluatu eta ikuskatzen dute hark egiten dituen zereginetan.

⁵⁰Förordningen (2011:1108), 24§ och 251 Hämtat från <http://www.skolverket.se/lagar-och-regler>. [2011:1108 Ordenantza, § 24 eta § 25. Hemendik aterea: <http://www.skolverket.se/lagar-och-regler>.]

⁵¹Skollagen (2010:800), 20 kap., 30§ och 32§.; Fbrordningen (2011:1108) om vuxenutbildning, 4 kap. 24§. Hämtat från <http://www.skolverket.se/lagar-och-regler>. [2010:800 Hezkuntza Legea, 20. kapitulua, § 30 eta § 32.; helduen hezkuntzari buruzko 2011:1108 Ordenantza, 4. kapitulua § 24. Hemendik aterea: <http://www.skolverket.se/lagar-och-regler>.]

⁵²Skollagen (2010:800): 15 kap., 28§; 20 kap., 30§; 22 kap., 8, kap. 24-251 Gymnasieförordningen (2010:2039): Hämtat från <http://www.skolverket.se/lagar-och-regler>. [2010:800 Hezkuntza Legea: 15. kapitulua, § 28; 20. kapitulua, § 30; 22. kapitulua, 8, Ch. § 24-25. 2010:2039 Eskola Ordenantza: Hemendik aterea: <http://www.skolverket.se/lagar-och-regler>.]

⁵³www.valideringsinfo.se

⁵⁴2010:800 Hezkuntza Legea: 15. kapitulua, § 28; 20. kapitulua, § 30; 22. kapitulua, 8, Ch. § 24-25. 2010:2039 Eskola Ordenantza: Hemendik aterea: <http://www.skolverket.se/lagar-och-regler>.



Balioztatzearen eta irakastearen arteko koordinazioa

Garrantzitsua da lantokiko langile guztiek balioztatze prozesuari buruzko informazioa izatea. Informazio horretan adierazi behar dira balioztatzearen helburuak eta xedeak eta zer langileri eskainiko zaien balioztatzea egiteko aukera. Informazioa ematean, balioztatzea nola ezarriko den, zerbitzua emateari zer mesede egingo dion eta zer arazo ekar ditzakeen ere adierazi behar da.

Balioztatze prozesua:

1. Aurretzako ikaskuntza identifikatzea

- Eztabaida partaideekin. Eztabaidan, partaideek informazioa jasotzen dute balioztatzea ikaskuntzan nola txertatzen den jakin dezaten. Partaideei zer eskatuko zaien eta irakasleak, kudeatzaileak, balioztatze laguntzaileak eta lantokiko beste pertsona batzuek zertan lagunduko dieten ere adierazten zaie. ArbetSam proiektuan, aurretzako ikaskuntza identifikatzeko balioztatze prozesuak bi zati izan zituen:

- Aurretzako hezkuntzaren eta trebakuntzaren, aurreko lan esperientziaren eta abarren inbentarioa.
- Partaideek adinekoren zaintza lanetan zuten gaitasuna aztertze autoebaluazioa.

Partaideek autoebaluazioa egin ondoren, irakasleek eta partaideek elkarrekin aztertzen dituzte emaitzak.

2. Balioztatzearen eta ikaskuntzaren plangintza

Partaidearen ikaskuntzari eta trebetasunei egindako ikuskapenaren azterketa. Lantokiko ikaskuntza programan abian jartzeko ikastaro egokien plangintza.

Prozesuaren zati honi behar adina denbora eskaini behar dio irakasleak, zati honetan egiten baita plangintzaren zatirik handiena. Irakasleak erabakitzen du partaideek zer gai ikasi behar dituzten, zer elementu eta ikastaro baliozta daitezkeen eta balioztatzea egiteko modurik onena zein den.

- *Bana-banako elkarrizketak partaideekin* balioztatzean zer ikastaro sartu eta ikaskuntza osagarria balioztatu beharreko ikastaroetako zer elementutan beharko duten erabakitzeko.

Balioztatzea lantokian zaintza lanetan ari direla, edo trebakuntza praktikorako gela batean egin daiteke. Oinarriko jakintzaren balioztatzea ahoz eta/edo idatziz egin daiteke, banaka edo taldean.

Trebetasunen ikuskapenaren emaitzak eta ikastaroaren plangintza partaide bakoitzaren ikaskuntza planean sartu behar dira eta partaideak lan bilduman izan behar ditu. Lan bilduman sartu behar dira aurretzako tituluak eta ziurtagiriak, partaide bakoitzaren ikaskuntza plana, seihilekorako finkatutako gaiak, ikaslanak eta bestelakoak. Ikaskuntza prozesuaren zati garrantzitsuetako bat da partaide bakoitza bere lan bildumaren jabe izatea.

3. Balorazioa, ebaluazioa eta jakintza:

Elkarrizketak balioztatzea egin aurretik: Irakasleek eta balioztatze laguntzaileek zer eta nola balioztatuko den aztertzen dute partaidearekin batera.

Balioztatzea ezartzea:

Elementu praktikoak lantokian, zaintza lana egiten denean, baliozta daitezke; edo bestela, trebakuntza praktikorako gela batean. Oinarriko jakintzaren balioztatzea ahoz eta/edo idatziz egin daiteke, banaka edo taldean.

Balioztatzea egin ondoren, elementu praktikoei buruz eztabaidatzea:

Irakasle edo balioztatze laguntzaile batek balioztatze egoeraren ondoren eztabaidan nabarmendu ditzaketen gauzen adibideak.

- Testuingurua ezartzea:
Eztabaidaren helburua eta *feedbacka* nola emango den
Zer balioztatu nahi da?
Zer jakintza eskakizun aztertuko dira?
Gertatu al da balioztatzean kontuan hartu beharreko zerbait?
- Zaintzako egoerari/elementuari/jakintza edukari buruz hizketan
Zer atera da ondo? Zergatik atera da ondo?
Egon al da ezer zailik? Zergatik izan da zaila? (Adibidez, egoera estresagarri bat, ziurgabetasuna, zaintza jasotzen duenarekin tratua, etab.). Zer jarrera izan zuen egoeran?
- Eztabaida laburtzea, ateratako gaiak berrikustea. Bi gaiak eta hautemandako sententziak.
- *Feedbacka* eta ebaluazioa egitean, irakasleak eta/edo balioztatze laguntzaileak baieztatu egiten du eztabaidan adierazitakoa.

- Balioztatutako elementuak baloratzean eta *feedbacka* ematean, garrantzitsua da “Ni(k)” duten adierazpenetatik hastera.
- Partaideak balioztatze elementuan duen jakintza eta esperientzia dagokion oinarriko jakintzarekin eta zaintza jasotzen duenaren ikuspegiarekin eta esperientzian oinarritutako praktikarekin lotzea.
- Eztabaida laburtzea.
- Parte hartutako guztiak elkarrizketaren ikuspegiarekin ados daudela baieztatzea.

Partaidearekin eta (hala dagokionean) balioztatze laguntzailearekin batera erabakitzea ea gaitasuna ontzat ematen duten edo ez.

Partaideak elementu bat erdiesten ez badu, beste balioztatze bat egitea, edo partaideak ikaskuntza sakontzea erabakitzen da behar adinako gaitasuna eskuratu arte.

Azkenik, balioztatzea egin dela jasotzea eta partaidearen ikaskuntza plana egokitzea.

4. Bana-banako garapenaren azterketak

Irakasleak bana-banako garapenaren azterketa egiten du partaide bakoitzarekin eta haien kudeatzailearekin: hiru norabidetako eztabaida Eztabaida horretan, partaidearen ikaskuntza plana aztertu eta lantokiko garapen lanarekin alderatzen dute:

Non dago partaidea gaitasunei erreparatuta? *Zer gaitasun garatzeko beharra du partaideak eta nola egin behar da horren plangintza? Zer laguntza eman diezaioke lantokiak partaideari, eta zer helburu eta aukera identifikatu ditu partaideak?*

Betetako jakintza eskakizunak idatziz jasotzea, proben eta ziurtagirien bidez frogatutako moduan.

Balioztatze prozesua lau urratsetan laburbil daiteke:

Aurretiazko ikaskuntzari buruzko informazioa ematea eta identifikatzea

- Elkarrizketa
- Aurretiazko ikaskuntza identifikatzea

Balioztatzearen eta ikaskuntzaren plangintza

- Idatziz jasotzea
- Bana-banako ikaskuntza plana
- Lan bilduma

Ezartzea

- Ikaskuntza
- Balioztatzea

Bana-banako garapenaren azterketak

- Hiru norabideko eztabaida
- Idatziz jasotzea: kredituak eta ziurtagiriak

Balioztatze baliabideak ArbetSam proiektuaren webgunean daude: www.lidingo.se/arbetsam/material, Lantokiko ikaskuntza - ikaskuntza balioztatzearekin uztartuta ArbetSam proiektuan (Arbetsplatsförlagd utbildning — undervisning integrerad med validering inom projekt ArbetSam). Baliabideen artean daude aurretiazko ikaskuntza identifikatzen laguntzeko baliabideak, elkarrizketetako galderak eta abar.

Hizkuntza garatzeko jarduerak

Rol jokoak

Proiektuetako irakasle batzuek rol jokoak erabili zituzten teoria abstraktuak zehatzago azaltzeko. Eraginkorra izan zen ikaskuntza teorikoa eta partaideen eguneroko laneko esperientzia praktikoa lotzeko. Rol jokoek lagundu egiten die partaideei kontzeptuak barneratzen eta sakonago ulertzen. Horrez gain, partaideei aukera ematen die egiten duten lana aztertu eta hari buruz hausnartzen duten bitartean hizkuntza eta komunikazio trebetasunak praktikatzeko. Partaide gehienak sartzan dira egokitutako rolean eta hori modu bikaina da jakintza sakontzeko eta indartzeko. Gainera, partaideak askotan dagokien rolean erabat sartzan dira eta ahaztu egiten dute hizkuntza zuzena erabiltzearen inguruko kezka⁵⁵. Horrek guztiak esan nahi du partaideek jakintza hainbat modutan barneratu eta prozesatzen dutela. Gorputza eta zentzumenak erabiltzen dituzte eta horrek jakintza sakontzen lagun dezake.

Hala ere, garrantzitsua da rol jokoak ondo prestatzea eta irakasleak, ondoren, eztabaidatzeko galdera eta ikaslan zentzudunak eta produktiboak ekartzea. Bestela, ikaskuntza programako gaia galdu egin daiteke eta ariketa denbora pasa dibertigarri huts gisa ikus dezakete⁵⁶. Ikastaroaren aurretiazko eskakizun garrantzitsuetako bat zera da, partaideek rol jokoan parte hartzeko interesa eta gogoia izatea.

Idazteko ariketak

SpråkSam eta ArbetSam proiektuetako esperientziak iradokitzen du idaztea dela partaide gehienei zailena suertatzen zaien hizkuntza trebetasuna. Irakasleek zein partaideek esan digute partaideei askotan beldurra eta urduritasuna sortzen zaiela zerbait idatziz adierazteko eskatzen zaienean. Landqvist eta Tykesson⁵⁷ adituek haien txostenean azaldu zuten zein zaila izan daitekeen partaideak idazteko motibatzea. Hala ere, ondo funtzionatzen zuten idazteko ariketa batzuk aurkitu ondoren, ikusi zuten idazteak eragin

positiboa ekar diezaiokeela partaideen hausnartzeko gaitasunari. Gainera, txostenean adierazi zuten idazteko ariketa gozagarrien bidez lor daitekeela idaztearen forma guztiak desatsegintzat dituztenek ere jarrera positiboagoa hartzea.

Hauxe da Landqvist eta Tykessonen arabera, ondoen funtzionatzen duen metodoa:

Hiru urratseko metodoa

Idazte prozesua hiru fasetan banatzen da (hiru urratseko ikuspegia); honela:

- **1. urratsa.** Hau da gaia: (adibidez, “Ezagutu dudak gizon bat”). Jarri zerrenda batean gaiarekin lotzen dituzun gauza guztiak izan ahalik eta zehatzena, baina utzi zeure buruari loturak askatasunez egiten Garrantzitsuena ahalik eta ideia gehien idaztea da (5 minutu).
- **2. urratsa.** Aukeratu idatzi duzun ideietako bat edo aukeratu bat ausaz. Egin mapa bat buruan eta egin lotura gehiago hautatu duzun hitzaren inguruan (5 minutu)
- **3. urratsa.** Idatzi orain erabateko askatasunez, loturen zerrendako eta buruan egindako mapako ideien inguruan. Ahal dela, mugitu dadila bolaluma etengabe. Ez eten zeure burua, ez zentsuratu, ez itzuli atzera eta ez zuzendu edo urratu idatzitakoa. Garrantzitsuena idaztea da, besterik gabe! (10 minutu)

*“Ariketa honek oso ondo funtzionatu zuen, batez ere, lehen urratsak taldean egin zituztenean; hau da, material biketan denek parte hartu zutenean. Ondoren buruko mapa partekatutak sortzen lagundu genien horman orri zuri handiak jarrita. Hiru urratseko metodoaren eta buruko mapen helburua partaideei lantzen ari ginen gaiaren inguruko pertzepzioak eta esperientziak antolatzeke modu bat eskaintzea zen eta horrekin batera, hobeto jabetze horrek partaideei eta haien laneko giroari ekarritako onurei ere arreta eskaintzea.”*⁵⁸

⁵⁵Ingela Tykesson och Mats Landqvist, Språkstimulerande bvnningar för personal inom äldreomsorgen. ivieioduiveckiing med forskarstöd. (Rapporter/Stiftelsen Stockholms läns Äldrecentrum 2011:8 ISSN 1401-5129, 2011) [Tykesson, Ingela eta Landqvist, Mats; (2011) Hizkuntza estimularako ariketak etxean zaintza ematen duten langileentzako. Metodo garapena ikerketaren laguntzarekin. Stockholm: Txostenak/Stockholmeko Gerontologia Ikerketa Zentroaren Fundazioa]

⁵⁶Ibid.

⁵⁷Ibid.

⁵⁸Tykesson eta Landqvist-en laneko zuzeneko aipua, 36. or.

Hizkuntzaren garapena eta ikaskuntzaren inguruko bilerak partaideen artean

Hemen azalduko dugu partaideen artean ikaskuntzari laguntzeko eta hizkuntza garatzeko bilerak sustatzeko ariketa baten adibidea. Bileretako partaideek duten jakintza aztertu eta garatu egiten dute eta, hala, elkarrengandik ikasten dute. ArbetSam proiektuan ariketa hau egin zuten irakasleen aldetik izan dugu honen berri. Zaintza arloko ikaskuntza eta suediera ikasteko eskolak nola uztartu ere azaltzen du adibide honek.

Irakasleak emandako gai batean oinarrituta eta moduan eginiko testu idatzietan oinarrituta dago ariketa. Adibidez, hizkuntza laguntzaileari idatzitako mezu elektronikoa egun bateko ikaskuntza saioa deskribatuz. Testuak idatziak direnean, partaideek, txandaka, idatzitako testua irakurtzen die taldeari eta ondoren, *feedbacka* ematen die taldeak, eztabaidarako hainbat galderatan oinarrituta. Taldea handia bada, partaideekin talde txikiak egin edo partaideak binaka jarraraz daitezke elkarri *feedbacka* emateko. Ariketa ondo ateratzeko, eztabaidarako galderak argi eta zehatz adierazi behar dira. Partaideek jarraibide argiak behar dituzte *feedback* espezifiko emateari buruz, azaltzen saiatzen ari diren gaietan laguntzeko adibideekin lagunduta.

Nola prestatu behar du irakasleak partaidea ariketa honetarako?

Beheko adibideko informazioa eta ariketako gaiak nahiko hizkuntza maila altuan daude idatzita. Baliteke maila baxuagoa duten partaideek hitz batzuk ulertzeko zailtasunak izatea. Hortaz, partaideek prestakuntza ona behar dute ariketa egiten hasi aurretik. Ariketa prozesutat har daiteke eta irakasleak denbora tarte bat gorde behar du ariketa talde batean egiten duen lehen aldietan. Suedierako irakasleak testu motaren konbentzioak azaldu behar ditu; hala nola gutunenak, mezu elektronikoenak, bilera oharrenak, ahaideentzako informazio testuenak eta abarrenak. Hemen beheko adibide hau gutunak eta/edo mezu elektronikoenak idazteari dago lotuta. Irakasleak eta partaideek, beraz, hainbat motatako gutunak/mezu elektronikoenak aintzat hartu eta hainbat alderditatik azter ditzakete; adibidez, irakurleari egokitzea, helburua eta egitura. Era berean, hiztegia ere modu batean baino gehiagotan landu behar da.

Irakasleek, ariketa osatzeko, termino zailenak azalduko dituen glosario bat ere egin dezake. Funtsezkoa da partaideek ariketa egin aurretik, zer egin behar duten ulertzea. Irakaslea seguru ez badago partaide guztiek ariketa ulertu dutela, ariketan erabili beharreko testua sinpletu behar luke.

Ariketa

Ikaskideen feedbacka

Ikaskideen *feedbacka* jasotzeak esan nahi du ikaskideen laguntza jasoko duzula testu onak sortzeko eta idazketa garatzeko. Zuk *feedbacka* ematen duzunean, garrantzitsua da ikuspegi baikorretik ematea eta testuan ondo egina dagoenari arreta jartzea. Garrantzitsua da zintzoa izatea eta testuan zerbait argi ulertzen ez baduzu, esatea.

Erantzuna ematen dizutenean, entzun arretaz eta galdetu ikaskideari, haren erantzuna ondo ulertu ez baduzu.

Eztabaidarako galderak:

1) Testuaren formatua egokia al da?

- Nola hasten da?
- Nola amaitzen da?

2) Ulerterraza al da testua?

- Egitura argia eta paragrafoz osatua al du?

3) Ba al dago testuan argi ulertzen ez den zerbait (hitzak, esaldiak, pasarteak)?

4) Testua egokia al da dituen helburua eta irakurleak kontuan hartuta?

- Zer da? (kontuan hartu gutunen konbentzioak; adibidez agurrak eta helbideak)

5) Nabarmendu testuaren indarguneak;

- berreziki onak iruditzen zaizkizun alderdiak

Azaldu zure erantzunak eta lagundu testuko adibideekin. Eman azalpenak argi eta zehatz, eta ez erabili esaldi lausoak; adibidez, "Testu ona dela uste dut".

Feedbackaren ondoren

Idatzi hausnarketa bat eta adierazi ea nola sentitu zaren *feedbacka* ematean eta jasotzean.

Aldatuko al duzu ezer testuan jaso duzun *feedbackaren* arabera?

Editatu (egin zure aldetak) testua etxean. Idatzi ordenagailu bidez.

Partaidearen iritzia ariketari buruz

Goiko adibidean ariketa egin duten partaideek suediera bigarren hizkuntza zuten eta ez ziren denak maila berekoak. Ariketaren balorazioa egin zuten: lagundu egin zien “nola idatzi” behar den ulertzen. Behin baino gehiagotan egin ondoren, partaideak eroso sentitu ziren testuak irakurri eta ondoren taldeko ikaskideekin eztabaidatzean.

“Irakasteko modu sinplea izan zen eta elkarren osagarri aritu ginen”, esan zuten bi irakasleek. Suedierako irakasleak honela azaldu zuen: “Zaintza arloko irakasleak niri inoiz bururatuko ez zitzaizkidan loturak ikusi eta egin zituen eta horrek partaideak boteretsu eta haien buruaz harro sentiarazi zituen. Hala, haien trebezia profesionala ikusi ahal izan nuen eta bestela ez nuen ikusiko. ”

Språksam proiektuko irakasleek erabilitako lanerako metodoak

Proiektuan, irakasleei behin baino gehiagotan eskatu genien deskriba zitzatela lanerako erabiltzen zituzten moduak. Hona hemen irakasleek erabilitako ikuspegiak/metodoen hainbat adibide:

- Partaideen lan esperientzietatik ateratako arazoetan edo egoeretan oinarritutako dilemak edo arazoak lantzea Partaideak irtenbideak aurkitzeko eta iradokitzeke elkartu egin ziren; talde osoa batera, edota talde txikitan. Hala, hizkuntzari eta lanari lotutako trebeziak zentzuzko moduan uztartu zituzten.
- Lantokiko ahozko komunikazioa praktikatzeko rol jokoak erabiltzea; adibidez, elkarriketak zaintza jasotzen dutenekin edo haien ahaideekin.
- Lantokiari lotutako hainbat genero lantzea; hau da, partaideek lantokian izaten dituzten hainbat motatako testuak eta egoera motak. Irakasleek eta partaideek testuen eta egoeren egitura eta hizkuntza aztertu zituzten. Partaideek idaztea edo rol jokoak ere praktikatu zituzten jakintza aplikatzeko eta lanean seguruago sentitzeko.
- Lan bildumaren metodoa erabiltzea. Partaideek lanetik hartutako zereginak landu zituzten; adibidez, zaintza plan bat edo egun

bateko liburuko oharrak idaztea. Partaideak (eta irakaslea) emaitzarekin gustura zeudenean, testua gorde egiten zuten lan bilduman (hau da, fitxategi edo karpeta batean). Lan bildumak partaideei aukera eman zien zalantzak zituztenerako adibide batzuk erreferentzia gisa izateko. Lan bilduma partaideen lana ebaluatzeko eta aurrerabideari buruzko eztabaidarako ere erabili zuten.

- Ordenagailua erabiltzea irakurrizko eta idatzizko oinarritzko trebetasunak garatzeko.
- Lanpostuan ikastea. Partaideek tutoretza jaso zuten zuzenean, lanean ari zirela edo laneko egoera bat behatu zuten; adibidez otordu egoera bat. Ondoren, elkarrekin eztabaida egin zuten gertatu zenari buruz, egoera zaintza lanaren eta hizkuntzaren ikuspegitik aztertuz eta ondo zer atera zen eta zer hobe zitekeen aztertuz.
- Teoria eta praktika uztartzea odolaren presioa neurtzean. Lehenik, zaintza arloko irakasleak oinarriko jakintza aztertu zuen eta suedierako irakasleak, aldi berean, kontzeptuak, hitzak eta esaldiak arbelean idatzi zituen. Ondoren, idatzitakoa aztertu zuten. Gero, zer egin behar den jakiteko, azterketa praktikoa bat egin zuten. Partaideek aukera izan zuten elkarrekin praktikatzeko eta irakasleak *feedbacka* eman zien. Hurrengo urratsa “benetan” (gainbegiradapean), zerbitzua ematean, egitea izan zen.
- Ahozko aurkezpenak lantzea, partaideek taldeari aurkezpenak egitea praktikatzeko.
- Partaideei etxerako lanak posta elektronikoz bidaltzea, besteak beste, partaideak ordenagailuen erabilera aktiboago bihurtzeko⁵⁹.

Zaintza arloko lana eta Suediera uztartuta SpråkSam proiektuan hizkuntza maila baxuko taldeetan

Irakasleek lanerako egitasmo bat egiten dute zaintzaren inguruan. Zaintza arloko irakasleak gaia aukeratu eta suedierako irakasleari dagokion

⁵⁹Ingrid Skeppstedt, Utvärdering av utbildningen inom SpråkSam, www.aldrecentrum.se/utbildning/SpråkSam/ [Ingrid Skeppstedt, Ikaskuntzaren ebaluazioa SpråkSam proiektuan, www.aldrecentrum.se/utbildning/SpråkSam/]



benetako materiala ematen dio. Eztabaidatu egiten dute zer aztertu behar duten eta zertarako. Zuzeneko aplikazioei ematen diete garrantzia. Hemen behean bildu ditugun adibideetan ikus daiteke zaintzako testuekin nola lan egin eta ikaskuntzaren helburu orokorrekiko ildoari jarraituz, maila bakoitzerako egokiak diren ariketak nola egin.

1. ariketa⁶⁰

Irakurri Stinari buruzko testua. Etxeko zaintzarekin bizi da, 4. solairu batean

(Stinari buruzko testua liburu honen bertsioko egokitua da: Heather Hill. Suediera zaintzan. Martha Johansson).

421. apartamentua laugarren solairuan dago, korridorearen urrutiko muturrean. Apartamentu txiki bat da; logela bat, egongela eta dutxadun bainugela bat ditu. Stina Karlstrom bizi da bertan. 87 urte ditu eta alarguna da. Ia hiru hilabete daramatza apartamentuan bizitzen eta ondo moldatzen da. Hala ere, nekatuta dabil hara etxetik aldatu eta besoan min hartu zuenetik.

Duela lau urte senarra hil zitzaion eta bizi ziren etxean gelditzea erabaki zuen Stinak. Ondo sentitzen zen eta laguntza behar zuenerako ere lagun asko zituen. Baina egun batean, alfonbra ertzarekin estropezu egin zuen. Erori eta besoa hautsi zuen. Sendagileak esan zion hezurak ahul zituela eta horregatik, arriskua handia zuela hezurak hausteko.

Istripua izan ondoren, kezkatzen hasi zen.

Laguntza handiagoa behar zuela iruditu zitzaion, erraz erori zitekeelako berriro eta hezur gehiago hautsi. 421. apartamentua libre gelditu zenean, hara joan Stina bizitzera. Apartamentuko altzariak modu berezian antolatu zituzten, Stina berriro erortzeko arriskuak murrizteko. Babesdun ohe bat eskuratu zuen eta gurpildun ibilgailua oheraino eraman zezakeen. Gustura hartzen zuen laguntza goizetan, zangoak ez baitzituen oso egonkor izaten. Bainugelari, irristatzean aurkako alfonbra bat zuen. Eta alarma pertsonal bat ere bazuen.

Konta iezaguzu: Ba al duzu Stina gogorarazten dizun bezerorik? Zertan da berdina eta zertan desberdina?

Entzun eta osatu "e" eta "a" bokalekin

421. Ap_rtam_ntua l_ugarren sol_iruan dago, korridor_aren urrutiko muturre_n. Ap_rtam_ntu txiki b_t da.

Idatzi orain bokalak goiko testuei begiratu gabe

421. Ap_rtam_ntua l_ugarren sol_iruan dago, korridor_aren urrutiko muturre_n. Ap_rtam_ntu txiki b_t da.

Idatzi zaintza jasotzen duen pertsona bati buruzko testu bat.

—Jarri asmatutako izen bat eta idatzi testu txiki bat hari buruz

—Kontatu zer nolako alojamendua duen

—Kontatu zer egin ohi duzun pertsona horri laguntzeko.

⁶⁰Ingeleserako itzultzailearen oharra: Jardueraren amaieran hutsuneak betetzeko dagoen ariketa euskarara egokitu dugu.



2. ariketa

Irakurri Håkanek zer dion bere aitona-amonei buruz

(Testua laburtuta dago. Ariketan, partaideek testu osoa erabili zuten, jakina).

Umetan, askotan egoten nintzen aitona-amonen etxean. Ondoan bizi genituen eta nahi nuen aldiro joaten nintzen haienera. Beti izaten zuten nirekin egoteko astia. Aitonari aroztegiari “laguntzeko” aukera ere izaten nuen.

Aitona eta amona beti izan dira aktiboak....

Duela hiru urte, amonak odolbildu bat izan zuen burmuinean eta...

Duela gutxi, aitona ere ondoezik egon da...

Datorren astean hitzordua du sendagilearekin, zer duen begira diezaion.

(Testua Internetetik hartuta dago, gune honetatik: Sapphire Care).

Esan:

Umetako zer oroitzapen ditu Håkanek aitona-amonen inguruan?

Håkanen aitona-amonek zer jarduera egiten zituzten eta zer zaletasun zuten?

Zer motatako etxeko zaintza uste duzu behar dutela, eta zergatik?

Etxeko zaintzan laguntza handiagoa jaso behar luketela uste al duzu? Zer iruditzen zaizu, eta zergatik?

Ba al duzu zuk umetako oroitzapenik aitona-amonen

inguruan?

Idatzi haurtzaroko oroitzapenen bat. Erabili Håkanen aitona-amonei buruzko testua adibide gisa.

Ba al dago testuan noizbait entzuna izan arren erabiltzen ez duzun hitzik?

Ba al dago testuan inoiz entzun ez duzun hitzik?

3. ariketa

Arlo sozialeko dokumentazioa⁶¹ (informazioa idatziz jasotzea)

Taldean eztabaidatzen dute lantokian informazioa idatziz jasotzeko moduei buruz. Testuinguru horretan sumatutako behar praktikoetako bat zera da, gizarte segurantzako zenbakiak hurrenkera alfabetikoan ordenatzen jakitea eta ulertzea. Zaintza arloko irakasleak lantokiko arazoak lantzen ditu taldearekin eta suedierako irakaslea, ikaskuntza jarduera baterako materiala prestatzen du.

Ondoren, bi irakasleek partaideekin praktikatzen dute, talde txikitara jarrita.

**Aa Bb Cc Dd Ee Ff Gg Hh Ii Jj Kk Ll Mm
Nn Oo Pp Qq Rr Ss Tt Uu Vv Ww Xx Yy
Zz Åå Ää Öö**

Idatzi izenen zerrenda hurrenkera alfabetikoan:

Sailkatu abizenaren arabera:

Karlsson Kristina

Daud Kerim

Schwarz Monica

⁶¹Ingeleserako itultzailearen oharra: Zaintza sozialeko txostenak derrigorrean gordetzeko sistema suediarri “dokumentazio soziala” esaten zaio.

- Eztabaida eta aholkuak hitz berriak ikasteko moduen inguruan. Suedierako irakaslea zaintza arloko irakaslea lantzen ari den materialetik abiatzen da. Suedierako irakasleak zerrenda bat egiten du zaintzako irakasleak partaideei emandako hitz eta esamolde berriekin. Denek batera edo talde txikitan jarrita zerrenda lantzen da, egoera zein den aintzat hartuta.
- Egunkari sozialeko oharra lantzea.⁶²Zaintza arloko irakasleak azalpenak ematen ditu informazioa nahitaez idatziz jasotzeaz eta egunkari sozialaren garrantziaz eta erabilera praktikoaz. Suedierako irakasleak hizkuntza garapenerako jarduerak antolatzen ditu gai horren inguruan.

4. ariketa

Irakurri beheko testuak. Laguntzaren arduradunari gizarte zerbitzuen laguntza eskatuz eginiko eskaerak ditu bilduta. Pentsatu ea testu bakoitza zeri buruzkoa den eta jarri bakoitzari izenburu egoki bat.

XX-(e)k astean behin eguneko jarduerak egiteko eskaera egin du. Jendea ezagutu nahi du. Astean behin ibiltzeko laguntza jasotzeko eskaera ere egin du.

XX-(e)k esan du ez duela ibilbide profesionalik egin, denbora familia zaintzeari eskaini diolako. Lehen, XX-(e)k eskulanak egiten zituen, baina orain ezin du, desgaitasun fisikoak baititu.

XX-(e)k arabiera hitz egiten du eta suediera pixka bat ulertu eta hitz egin ere bai.

XX-(e)k laguntza behar du otorduetarako: prestatzeko, mahaia jartzeko eta ontziak garbitzeko. Behar-beharrezkoa du otorduak maiz egitea, diabetesa baitu. Alabak egingo dizkio erosketa guztiak...

Zaintza arloko eta suedierako ikaskuntza uztartua SpråkSameko taldeetan, suediera maila nahiko ona dutenekin

Denbora asko eskaini genion partaideek Suedia hotzeko bizimoduari, hau da 20. mendeko bizimoduari, buruzko jakintza sakon zezaten. Ikaskuntza programaren atal hau zaintza jasotzen dutenak Suedian jaioak zirela pentsatuz landu genuen. Elkarrekin ikusi genuen “Children century” filma eta historiari, paisaiari, sukaldaritzari eta tradizioei buruz hitz egin genuen. Zaintza jasotzen dutenen laneko bizimodua ere aztertu genuen, bakoitzaren irudia egiteko. Partaideei esan genien hitz egin zezatela bezeroekin eta ondoren, jasotzeko idatziz ea zaintza jasotzen dutenek zer eta zenbateraino gogoratzen duten iragana.

Ariketa

Adinekoekin, demenzia dutenekin ere bai, elkarrizketa bat abiaraztea eta elkarrizketari eustea.

1. Ekarri gogora egoera jakin bat: bezero batein edo gehiagorekin eserita berriketan ari zarete; adibidez, mahaian, bazkaldu ondoren, lorategian, sofan telebista ikusiz, laguntzen, bezeroari jantzen laguntzen, argazki album bati elkarrekin begira, aldizkari bat irakurtzen eta abar.
2. Nola abiaraziko duzu elkarrizketa? Idatzi iradokizun batzuk.
3. Nola iraunaraziko diozu elkarrizketari (interakzioari eutsi)? Zer esango duzu? Zer esan dezakezu elkarrizketari eusteko? Idatzi iradokizun batzuk.
4. Zer da kontuan hartu beharreko gauzarik garrantzitsuena demenzia duten adinekoekin hitz egitean? Demagun ikastun berri baten arduraduna zarela. Idatzi zer jakin behar duen.

⁶²Ingeleserako itzultzailearen oharra: Egunkari sozialak Suedian, zaintza lanean, nahitaez idatziz jaso beharreko informazioa biltzen du. Pertsonaren funtzio orokorreari, baliabideei eta zailtasun bereziei buruzko informazioa biltzen du eta deskribatu egiten du pertsonak eguneroko egoeretan moldatzeko duen gaitasuna (komunikazioa, higiene pertsonala, sukaldian aritzea, erosketak, bidaiak, etab.) eta duen laguntza eta babes beharra. Egoera mentalari eta fisikoari, ahaideekiko harremanari, egoera ekonomikoari, zaletasunei, enpleguari, ohiturei eta abarri buruzko informazioa ere jasotzen du. Luzera aldakorra izaten da.

Maila ezberdinekoak elkarrekin dauden taldeetan zaintzako gaiak eta suedieraren ikaskuntza egokitzea eta uztartzea

Aurretik eginiko ibilbidea eta irakasleak helburuei buruz dituen ideiak:

Taldea 41-63 urteko 11 emakumek osatzen dute. Hemen bizi izan dira 11-21 urtez eta adinekoen zaintzan lanean aritu dira 7-13 urtez. Partaideek suedieran duten maila SFI B mailaren (EEEE A1/A2) eta SVA oinarrikoaren (EEEE B1+) artekoa da. Partaide batzuk eskolatu gabeak dira eta ez dute SFI sistemako edo osasun eta gizarte zaintzaren programako ziurtagiririk.

Partaide batek osasun eta gizarte zaintzaren programako hainbat ikastarotako ziurtagiriak ditu. Gehienak, hala ere, ondo moldatzen dira ahozko komunikazioan. Inguru bereko bost lantokitan aritzen dira lanean.

Lanaren hasieran, ikerketa sakon bat egin genuen, batez ere, hizkuntza mailak zehazteko. Irakurrizko ulermenari eta idazteari lotutako ariketak erabili genituen. Zaintzaren arloko ikaskuntza beharrak ere aztertu genituen partaideek zer nahi zuten eta gaitasun profesionalak garatzeko beharrezkotzat zer jo zuten aintzat hartuta. Lehenago, bakarka hitz egin genuen partaide bakoitzarekin, bakoitzaren kudeatzailea ere han zela. Ondoren, elkarrekin, partaide bakoitzarentzako ikaskuntza plan bat sortu genuen. Irakasleak arduratu ziren ezarritako helburuak errealistak eta neurgarriak zirela ziurtatzeaz. Kudeatzaileek lehentasunen arabera antolatu zituzten lantokiari lotutako edukiak. Hala ere, hasieratik ikusi genuen argi denek behar ezberdinak zituztela. Partaideak erabat ados zeuden ikuspegi horrekin.

Taldea hain heterogeneoa izanik, garrantzitsua da gai berdinak baina modu ezberdinean lantzea. Garrantzitsua da, halaber, suediera eta zaintza arloko ikaskuntza uztartzea, baina egokitzeko eta pertsonalizatzeko ere ahalegin handia egitea.

Helburuetako bat haietako bakoitza ikasle konprometitua bihurtzea zen eta egin zitzatela ikaskuntzako lanak ikaskuntza helburuak lortzeko; ikastaro guztiak laguntza gehiagorekin edo gutxiagorekin. Denak suedieraz irakurtzen hasiko ziren eta bakoitzak liburu bat aukeratu behar zuen. Partaideek ordenagailuko trebetasunak ere garatuko zituzten eta Interneten hizkuntzaren eta lanaren aldetik erronka egokiak aurkituko zituzten.

Nola lan egiten dugun helburuak lortzeko.

Adibideak:

Etengabe egiten dugu lan partaideak bikoteka hainbat modu egokitan jartzeko. Batzuetan talde homogeneoetan eta besteetan heterogeneoetan. Garrantzitsua da aldi bakoitzean eraginkorra zer izan den eta zer ez ebaluatzea.

Partaide guztiek ariketa berdina egin behar dutenean, taldea banatu egiten dugu, azkarren amaitzen dutenek, amaitzean, beste erronka bat izan dezaten. Horrela, denbora gehiago behar dutenek, estresik gabe egin dezakete lan. Gai berdinak lantzen ditugu denok, baina talde bakoitzak ondo datozkion sakontasun maila eta erritmoa bilatzen ditu.

Partaideek zerbait prestatu eta aztertu behar dutenean, ziurtasun handinez aritzen diren ikasleek elkarri laguntzen diote askotan eta, horrela, irakasleak laguntza gehiago behar dutenei eskaintzen die arreta. Gainera, ziurtasun handieneko ikasleek, askotan, laguntza gehien behar dutenei laguntzen diete. Horrek denei egiten die mesede, beti ikasten baita besteei lagunduz.

Ahozko ariketak eta aurkezpenak talde osoarentzako izaten dira askotan egokiak. Ikasgelan hitz egiteko denbora tarte ematen diegu, denek hitz egiteko tarte eta aukera izan dezaten.

Idatzizko lanak hitz gutxikoak edo esaldi laburrez osatutakoak izan daitezke batzuentzat. Beste batzuek hainbat orriko idazlanak egingo dituzte. Etxerako lanak ahozko aurkezpen bidez ere aurkez daitezke, baldin eta partaidearen ikaskuntza plan indibidualeko helburuekin bat badator. Ahoskera landu nahi dutenek, adibidez, ahoz ematen dute egindakoaren berri.

Etxerako lanen *feedback* arduratsua astean behin ematen diegu. Horrek partaideei lanak egiteko motibazioa ematen diela uste dugu.

Partaideak animatzen ditugu ikasitakoaren eta irakurrutakoaren berri eman dezaten. Liburuaren aurkezpenak, poemaren irakurketa ozenak eta partaideek idatzitako poemak ere izaten ditugu.

Partaideek jarraibideak jasotzen dituzte dagokien mailako liburuak maileguan har ditzaten. Batzuek audio liburuak erabiltzen dituzte, besteek liburu ilustratuak eta, hainbatek irakurgai errazak. Beste batzuk ondo moldatzen dira "ohiko" literaturan.

Testuak prozesatuak izaten dira, jatorrizko bertsioaz gain errazago irakurtzeko bertsio bat ere izan dezaten. Horrela, denek barnera dezakete informazioa. Ikusi dugu asko ondo moldatzen dira bertsio zailarekin erraza ulertu ondoren.

Ebaluazioaren arabera, partaideen erdiak gai ziren jasotako osasun eta gizarte zaintzako testuliburua irakurtzeko. Besteei, material egokituak edo laburpenak eman genizkien. Lanarekin loturarik gabeko irakurgaiak aukeran izaten dituzte hala nahi dutenek. Lehenik, lantokiko materialarekin egiten dugu lan.

Ariketen adibideak eta eskolen egitura:

1) Partaide bakoitzari adineko pertsona bat gazteagotako garaiei buruz elkarrizketatzeko lana jarri zitzaion. Ondoren, partaide bakoitzak, bakarka, adinekoak zer kontatu zien idatzi zuen. Hurrengo saioan, partaide batek taldeari azaldu zion elkarrizketatuak zer kontatu zion (zailtasun maila: ertaina), beste batek lehenengo esaten ari zena idatzi zuen arbelean (zailtasun maila: altua), eta hirugarrenak arbelean idatzitakoa irakurri zuen (zailtasun maila: baxua). Hala, ariketa baten bidez talde osoarengana iritsi ginen, baina zailtasun maila ezberdinetan.

Hurrengo aldian, testu bera erabili genuen maila baxuagokoekin diktaketa egiteko. Testua egokia iruditu zitzaigun talde horretan, bakarka, idatzizko ariketa bat egin zezaten, oso ondo prestatua baitzuten.

2) Partaideek dilema etiko* bati buruz irakurri zuten (testu bat erabili zuten, bi zailtasun mailatara egokituta). Talde osoak ideia zaparrada bidez irtenbideak bilatu zituen. Ondoren, partaideek, talde txikitari banatuta, ideia guztiak idatziz jaso zituzten, zaintza planaren ildotik (eskatutako dokumentazioaren arabera). Ondoren, bata besteari buruzko iruzkinak egin zituen, arbelean idatzitakoari begira.

3) Partaideei jarrerari buruzko bi film labur jarri genizkien ikusteko.

Talde osoan eztabaida egin ondoren, filmeko jendeaz jaso zuten pertzepzioak burura ekarritako adjektiboak esan zituzten; adibidez: Egoiliarrak: babesgabeak, tristeak, beldurtuak.

Langileak: harroputzak, inozoak, saiatuak eta abar.

Ondoren, adjektiboen sinonimoak eta antonimoak landu genituen. Hurrengo aldian hitzetara itzuli ginen. Antzeko hizkuntza maila zuten partaideek, bikoteka jarrita, esaldi osoak idatzi zituzten ariketako adjektiboak erabiliz. Bikote bakoitzari hitz bat eman zitzaion eta hura lantzean, beste bat. Maila

baxuenekoei “pozik”, “nekatuta” eta antzeko hitz batzuk eman zizkieten eta bi edo hiru esaldi idatzi zituzten. Beste batzuek beste adjektibo batzuk jaso zituzten; adibidez, “iruzurtia”, eta zazpi esaldi idatzi zituzten. Bikoteka idatzeko ariketa amaitzean, esaldiak arbelean idatzi zituzten eta elkarrekin zuzendu zituzten. Ariketa batzuek ondo funtzionatu zuten maila batean baino gehiagotan.

4) Ordenagailu gelan ariketa gutxi izan ditugu denek Parasolekin egitekoak. Lantokian eskatutako dokumentaziorako erabiltzen den sistema da ParaSol. Arrazoia zera izan zen, ez genuela argi eta zehatz azaldu lantoki batean bestean ParaSol nola erabiltzen zen.

Kudeatzaileek argiago jokatu behar dute gai honetan. Sei hileko amaierara arte ez genuen lortu nola funtzionatzen zuen jakitea. Gainera, eskolak erabat pertsonalizatuak eta bakoitzaren erritmora egokituak izan ziren. Asko SFI B mailako (EEEF A1/A2) ariketak egiten aritu ziren eta beste batzuek, berriz, ariketa zailagoak egin zituzten. Batzuk hasi ziren ukipen bidez ordenagailuz idazten ere. Testuen tratamenduan aritu nahi zutenak horretan aritu ziren. Beste batzuen lehenetsuna ParaSol praktikatzea izan zen.

5) Eskeletoari buruzko eskola bat baino lehen, hizkuntza trebetasun handieneko bi ikasleek osteoporosiari buruzko artikulu bat irakurri zuten. Hori egiten ari ziren bitartean, irakasleek beste partaideei prestaketa eman zien hizkuntza ariketak, hutsuneak betetzeko ariketak eta abar jarrita. Gako hitzen laguntzaz, maila altueneko bi partaideek egun hartako eskolako gaia aurkeztu zien talde osoari. (Bi haiek, normalean, ariketak besteek baino lehen amaitzen zituztenez, lan berezi bat prestatu zuten haientzat).

6) Partaideei etxerako lan gisa osasunari, dietari eta ariketa fisikoari buruzko galderak jaso zituzten. Erdiek eginak zituzten etxerako lanak. Talde batean jarrita (1. taldea) elkarren erantzunak alderatu zituzten, eta erantzunak adostu zituzten. Besteek (2. taldea) laguntza jaso zuten galderak erantzuteko. Batzuek ahozko erantzunak ematen zituzten baino ezin zituzten idatziz jarri, beraz norbait behar zuten haiek idatzeko. 2. taldeak galderen erdiak erantzun eta ondoren, erantzunak aurkeztu zizkien 1. taldekoei, arbela erabilita. 1. taldekoek, ondoren, gainerako galderen erantzunak aurkeztu zituzten, haiek ere

arbela erabiliz. Taldeak gai izan ziren elkarren erantzunak eztabaidatzeko eta osatzeko.

7) Diktogloserako, hizkuntza mailaren araberako taldeak egin genituen, denek parte hartu eta ekarpenak egin ahal izateko. Bi edo hiru pertsonako lau talde egin genituen. Talde guztiek jaso zuten egokitutako testuaren testuingurua, baina gramatikako zuzenketen kopurua, jakina, desberdina zen batzuetatik besteetara. Zuzenketak elkarrekin egin zituzten, testuak arbelean jarrita. Akats berdina behin baino gehiagotan egin zuten eta bi edo hiru errepasso behar izan ziren dena zuzentzeko.

Jaso zuten testua irakurri eta eztabaidatu ondoren, hurrengo aldian partaideek cloze proba bat egin zuten, hainbat hitzen ordezinonimoak jarrita. Partaideek bikote nahasitan edo talde txikitik egin zuten lan, bestela batzuentzat zailegia izango baitzen. Hala, elkarri lagundu ahal izan zioten hitzak pentsatzen eta idazten praktika behar zutenek izan zuten idazteko aukera.

Osasun eta gizarte zaintzaren ikaskuntza eta hizkuntzaren garapena uztartzea testuliburu liburu baten bidez

Testuliburu: *Osasun eta gizarte zaintza 1*

Testuliburu honetako testua ez da partaideek barnerratzeko oso erraza. Baina erabilgarria da teoria partaideen lan praktikoarekin lotzeko. Askotan testuak taldean irakurtzen ditugu, elkarrekin, hitzak eta esamoldeak eztabaidatzeko eta partaideen esperientziei lotzeko. Liburuko atal bakoitzak ondo diseinatutako ariketa erabilgarriak ditu.

Udaberrian, Zaintza pertsonala eta Elikadura eta atsedena irakurri genuen. Azken atala partaideak ArbetSam proiektuaren bidez egiten ari ziren nutrizio ikastaroarekin lotu genuen.

Testuliburu: *Zaintzaren inguruko hitzak, Anita Berggren, Anne Lundkvist*

Osasun eta gizarte zaintzan garrantzitsuak diren hitzekin eta esamoldeekin ariketak eginez hiztegia aberasteko ariketak. Liburuxkak nork bere burua zaintzeari eta ongizateari, giza gorputzari eta adinekoei buruzko gaiak lantzen ditu. Gure partaideentzat oso erabilgarria izan da liburuxka hau!

Testuliburu: *Axel Sjörnan, Eva Ceru*

Fikziozko istorio bat garai bateko maitasunarekin amets egiten duen adineko gizon bati buruz Suediera errazean idatzitako istorio atsegina da eta adineko gizon baten bizimodua, sentimenduak eta ametsak deskribatzen ditu. Partaideek etxean irakurri zuten testua eta ulermen galdera batzuk erantzun ere bai. Ikaskideek erantzuteko galdera batzuk ere idatzi zituzten.

Informazioa ematen, partaideek galderak arbelean idatzi eta elkarrekin zuzendu genituen. Partaideek esaldiak arbelean ikusi eta ozen irakurtzen dituztenean, nahiko erraz ikusten dituzte egindako akatsak. Idatzizko ariketa ona izan zen istorioaren jarraipena idaztea.

Testuliburu: *Zure bolaluma beharrezkoa da! - Dokumentazio sozialerako ikaskuntzako materiala Nestor R&D zentroaren eskutik*⁶³

Gure partaideentzako egokia izan zen material sorta ona eta erabilgarria. Materialak dokumentazioaren, legeen eta araudien helburuari eta langileen funtsezko roleri egiten dio erreferentzia. Hemen Hilding izeneko baten kasu azterketa bat dugu. Kasu azterketa honek oinarria ematen du txostenak egiteari eta informazioa idatziz jasotzeari lotutako ariketa praktikoak egiteko. Hildingen bizimodu egoera da eztabaidagai, zer laguntza behar duen eta abar.

Benetako kasu azterketa. Lantokiko kudeatzaileak eta irakasleak elkarrekin garatua

Helburua

Irakaskuntzako helburua partaideek problemak konpontzeko trebetasunak praktikatzea eta garatzea da; problema bat konpontzeko ekintza sorta jakin baten alde agertzea barne.

Prestaketa

Irakasleak eta kudeatzaileak irakaskuntzarako eduki egokiak zein ziren eztabaidatu zuten. Kudeatzaileak kasu azterketa baterako adibide bat eman zuen. Irakasleek hortik abiatuta garatu zuten ikaskuntzako ariketa.

⁶³<http://www.nestorfu.se/>

Kasu azterketa erabiltzea

Partaideek elkarrekin irakurri zuten kasu azterketa. Hitz zailak idatzita jarri eta haien azalpenak jaso zituzten.

Kasu azterketa

Güstak Alzheimerra du. Ez da inoiz ezkondu eta ez du seme-alabarik. Pertsona aktiboa izan da eta kanpoan egiteko jarduerak gustatu izan zaizkio. Lau urtez laguntza izan zuen etxean, baina Gústak askotan egiten zion uko etxeko laguntzari eta langileentzat egoera zaila izaten zen hura. Gústa dementzia zutenetan espezializatutako etxe batera eraman zutenean, XX-ra, dutxa eta arropak aldatzea behar zuen lehenbailehen. Lehen egun hartan, ondo konpondu ziren langileak lan horiek egiteko. Baina igaro dira 14 aste eta Gústa ez du dutxarik hartu eta arroparik aldatu etorri zenetik. Horregatik, kirats handia du. Beste egoiliarren erreakzioa dela eta, Gústa bere gelara joan eta han egiten ditu otorduak, bakarrik. Badirudi egoerak ez diola Gústari trabarik egiten.

Testua elkarrekin irakurri ondoren, partaideak talde txikitari jarrita (buzz taldeak⁶⁴) aritu ziren, kasuarekiko izan zuten erreakzioaren araberako taldeak sortuta.

Ondoren, kasua eztabaidatu zuten galdera hauek erabiliz:

- Zer egin behar lukete langileek Gústaren higiegi falta ikusita?
- Non dago oreka Gústak nahi duena egitearen eta Gústa gainerako egoiliarrekin eta langileekin egokitzearen artean?

Talde bakoitzeko partaideek galderen erantzunak proposatu zituzten Gústaren kasuari buruz egindako taldeko eztabaidan oinarrituta. Kasuari buruz arbelean idatzi zuten. Partaide guztiek *feedbacka* eskuratu ondoren, denen artean egin zuten eztabaida. Ondoren, partaideek, elkarrekin begiratu zuten legeak gaiari buruz zer dioen.

Zer dio legeak?

Zaintzaile bat esleituta izateak⁶⁵ ez dizkio Gústari legez dagozkion eskubideak kentzen. Norberak bere

erabakiak hartzeko eskubidea SoL eta HSL delakoetan dago jasota⁶⁶. Gainera, konstituzioak dio (oinarrizko legea) zaintza jasotzen duten guztiak urraketa fisikoan aurka babestuta daudela. Hor sartzen dira dutxatzea eta arropak aldatzea.

Eztabaida etikoa

Gústak kiratsa izatea ez da nahikoa arrazoi hura dutxatzera eta arropak aldatzera behartzeko. Gainerako egoiliarrekin batera eseri ezin bada, bakarrik esertzeko aukera eman behar zaio. Merezki du, ordea, Gústak zergatik ez duen dutxatu nahi jakiten saiatzea.

Eztabaidan jarraitu zuten legeak zer esaten duen eta partaideen lanari nola eragiten dion aztertzen. Partaideei galdetu zieten ea ikuspegi/iritzi/jakintza berririk eskuratu zuten eta ea iritziz aldatu zuten. Irakasleak partaideei gelditzen zitzaizkien galderak jaso eta kudeatzaileari bidali zizkion, hark etorri eta taldearekin galderak eztabaidatzeko.

Irakasleak eta kudeatzaileak lantokian elkarlanean - lantokiko ikaskuntza integratua

Arlo sozialeko dokumentazioa

Kudeatzaileek langile bakoitzaren arlo sozialeko dokumentazioaren 2013ko sarrerak aztertu eta iruzkin labur bat idatzi zuten.

Ikaskuntza jardura

1) Talde osoak irakurri zituen kudeatzaileek langileei buruz egindako iruzkinak. Langileen izenak kendu egin zituzten iruzkinetatik, baina jakina, taldeko guztiek jakin nahi zuten iruzkin bakoitza nori zegokion.

Iruzkinak irakurri genituenean, partaide bakoitzak aholkuak eman zituzten arlo sozialeko dokumentazioan sarrerak sartzeari buruz. Aholkuak idatzi eta bilduma bat egin genuen. Bilduma taldekide guztiei bidali genien.

⁶⁴Ingeleserako itzultzailearen oharra: Suedian, hezkuntzan eta trebakuntzan asko erabiltzen den ariketa da hau. Hitzaldi/aurkezpen bat entzun ondoren, partaideei eskatu zieten hitz egin zezatela binaka edo hirunaka jarrita, bi, bost edo hamar minutuz. Partaideek erleen burrunbaren antzekoa egiten dutenez, jarduerak *bikupa* (erlauntza) du izena.

⁶⁵Ingeleserako itzultzailearen oharra: Suedian, bere interesak babesteko gai ez den pertsona heldu bat ordezkatzeko agintariak izendatutako pertsonak dira zaintzaileak.

⁶⁶Ingeleserako itzultzailearen oharra: SoL (socialtjänstlagen) eta HSL (hälsö- och sjukvårdlagen) Suedian gizarte zerbitzuak eta osasunaren zaintza arautzen dituzten legeak dira.

Hurrengo bilerarako lana: idatzi eta kontatu taldekideen aholkuek nola lagundu dizuten.

2) Hasiera berdina. Taldekide bakoitzak egunkari sozialeko azken hamar sarrerak aurkeztu eta elkarrekin irakurri genituen. Edukiak, hizkuntza zuzentasuna eta ideia jakin bat adierazteko modu ezberdinak eztabaidatu genituen.

Zer idatzi eta desegokia zer den ere aztertu genuen. Ondoren, kudeatzaileari bidali genizkion galderak. Kudeatzaileek erantzun eta zalantzak argitu zituzten.

Hurrengo bilerarako lana: arlo sozialeko dokumentazioan gehiago idaztea.

Partaideek jaso zuten liburuxka bat, egun berean ordenagailuan idazteko denborarik ez zutenerako eta gurekin partekatzeko.

Ariketaren esperientzia

Partaide askok aurkitu zuten arlo sozialeko dokumentazioan idazteko “astia”. Partaideek eskertu zuten haiek arlo sozialeko dokumentazioan idatzitakoarekiko kudeatzaileek interesa erakustea eta *feedbacka* ematea.

Lantokiko ikaskuntza integratua, arlo sozialeko dokumentazioa

***Etxean zaintzarako laguntza jasotzeko eskaera*⁶⁷**

Behean jaso dugu etxeko laguntzaren balorazio baten adibidea, zaintzako aholkulari batek irakasleentzako idatzia. Irakasleek kudeatzaileen, zaintzako aholkularien eta arlo sozialeko dokumentazioaren koordinatzaileen eskutik jaso zuten trebakuntzarako materiala.

Zaintza aholkularia entzule gisa egon zen saioetako batean. Bisita baino lehen, irakasleek etxeko laguntza eskatzeko eskaeraren hizkuntza aztertu zuten.

Partaideek elkarrekin irakurri zuten balorazioa eta ulertzeko zailak iruditutako hitzak eta kontzeptuak aztertu zituzten.

Ondoren, zaintzako aholkulariak partaideekin batera aztertu zuen balorazioa:

Zer esan nahi du balorazioak zaintza jasotzen

duenarentzat?

Zer esannahi du balorazioak langileentzat?

Zaintzako balorazioa aztertu ondoren, partaideek, binaka jarrita, Elmarentzako zaintza plan bat idatzi zuten (ikus beheko atala).

Ondoren, talde osoak aztertu zuen binaka egindako Elmarentzako zaintza planak. Arbelean idatzi zuten partaideek zer idatzi zuten eta, ondoren, elkarrekin, adibide bakoitza hizkuntza aldetik eta alde profesionaletik aztertu zuten.

Partaideek hainbat formulazio idatzi zituzten koadernoan.

Etixerako, bakoitzak lanean bere zaintza plana aztertzeko eta berrikusi egin behar ote zen erabakitzeko eskatu zitzaizen partaideei.

Eskaeraren laburpena

Elma Anderson bakarrik bizi da hiru logela eta sukaldea dituen apartamentu batean, Bredängen. Iggailudun eraikin bateko 6. solairuan dago apartamentua, Bredäng-eko dendetatik eta erdiguneko instalazio publikoetatik nahiko gertu.

Bi seme-alaba ditu: Bert semea Järfällan bizi da, Elmaren bizilekutik ordu erdira eta Berit alaba, berriz, Hägerstena, autoz hamar minutura. Une honetan, Elmak ez du alabarekin harremanik eta horrek asko tristatzen du. Elmak baditu hiru biloba ere. Sara eta Maria bilobek harreman ona dute Elma amonarekin eta askotan joaten zaizkio bisitan. Dick senarra 2012ko apirilean hil zitzaion.

Elmak SLn⁶⁸ egin du lan bere lan ibilibide osoan, informazioa emateko eta txartelak saltzeko sailean. Oinez ibiltzea gustatzen zaio Elmari.

Azken hamabost egunetan Huddinge ospitalean egon da, memoria ebaluatzeko probak egiten. Sendagileak ondorioztatu zuen Elmak depresio sakona zuela eta, beraz, ez zion dementzia bazuen edo ez begiratu eta depresioaren aurkako sendagaiak eman zizkieten. Ez ditu hartzen. Medikuntzarekin, oro har, oso mesfidatia da Elma.

Ahalik eta gehien bere kasa moldatu nahi du eta bere burua modu independentean zaindu. Etxeko lan guztiak berak egiten ditu; baita erosketak ere.

Familiako kideen arabera, batzuetan jatea ahazten zaio eta gauzak okerreko lekuan uzten ditu.

⁶⁷Ingeleserako itzultzailearen oharra: Zaintzako aholkulariak tokiko agintaritzaren menpekoak dira eta adinekoen egoitzetako eta etxeko zaintzaren aplikazioak ebaluatzen dituzte. Haiek erabakitzen dute eskatzaile bati zaintza eman behar ote zaion edo ez eta baietz bada zer zaintza. Hala, eskaera bat bideatzen dute zaintza eta laguntza ematen duen unitatera.

⁶⁸Ingeleserako itzultzailearen oharra: Stockholmeko garraio publikoaren sistema

Elma urduri jartzen da askotan eta erraz egiten du negar. Adorea ematen saiatzen dira, baina ez du eguneko zentroko jardueretan parte hartu nahi.

Zer egin behar da?

- Astean bitan 30-60 minutuz bisitatu, Elmari maiz jatearen garrantzia gogorarazteko, eguneroko bizimoduan laguntza behar ote duen aztertze eta berriketan aritzeko (interakzio soziala).
- Sendagilearengana eta beharrezkoa den beste noranahi eraman.

Zergatik behar du laguntza?

Elmak memoria galera du eta batzuetan ahaztu egiten zaio jatea. Oso beldurtia eta mesfidatia da Elma gizarte sozialekin (baita eskualdeko erizainarekin ere) eta nahiago luke etxean inor sartuko ez balitzaio. Elmaren arabera, bere gaztelua da etxea. Lehen urratsa emateko eta Elmak etxeko zaintzako langileenganako konfiantza irabazteko saiakera da hau, benetan beharra duenerako. Benetan behar duenean, Elmak, ondo bidean, onartuko du bere etxean bizitzen jarraitzeko beharko duen etxeko zaintza. Horrela, Elmari ahalik eta denbora luzeenean independente izaten lagunduko diogu.

Esku hartzearen xedeak eta helburuak

Esku hartzearen helburua Elmari eguneroko bizimoduan laguntzea eta maiz jaten duela ziurtatzea da, pisu gehiago gal ez dezan. Elmaren urduritasun kronikoa arintzeko eta harreman soziala eskaintzeko saiakera ere bada.

Helburua babesgune bat ematea eta Elmak etxeko zaintzako langileengan duen konfiantza indartzea da, eta, ondoren, agian, etxeko zaintza hedatzea, Elmak bere etxean bizitzen ahalik eta denbora gehien jarraitu ahal izateko, horixe nahi baitu berak.

Bestelako informazioa

Zure zenbakia eman diet Sara eta Maria (Eva-Maria) bilobei.

Jakinarazi azpian sinatzen duenari nola moldatzen zaren Elmarekin eta ea laguntza onartzen duen.

Adierazi beste edozein intereseko datu ere.

15 egunetan zaintza plan bat prest izatea gustatuko litzaiguke. Mila esker!

Zaintzako aholkularia

XX

- Dementzia dutenen eta haien senideen tratamendurako hurbiltze hezigarria, enpatikoa eta etikoa garatzea

Elmarentzako zaintza plana

Zerbitzu mota: Etxeko laguntza

Esku hartzearen xedeak eta helburua (zaintzaren ebaluazioaren arabera):

Esku hartzearen helburuak hauek dira: Elmari eguneroko bizimoduan laguntzea, maiz jaten duela ziurtatzea pisu gehiago gal ez dezan, urduritasun kronikoa arintzea eta gizarte harremanak eskaintzea.

Beste helburuetako bat babesgune bat eman eta etxeko zaintzako langileengan konfiantza irabazten laguntzea da. Epe luzean, etxeko zaintzako zerbitzuak hedatu egin daitezke, Elmak bere etxean ahalik eta denbora gehienez bizitzen jarraitu ahal izateko, horixe nahi baitu berak”.

Ariketa

Osatu Elmaren zaintza plana:

Testuingurua

Trebetasunak:

Laguntzak:

Ekipamendua:

Zaintza plana eta esku hartzearen helburuak

Zer:

Noiz:

Nola:

Helburuak:

Banakako eta lantokiko ikaskuntza batzen dituen proiektu lana

Sarrera

ArbetSam proiektuaren helburua lantoki osoak ikaskuntza programa batean parte hartzea da, hainbat ikaskuntza talderen bidez. Beraz, 7-12. asteetako lanak proiektu lan bati jarriko dio arreta eta talde bakoitzari dagokion lan arlokoa egokituko zaio. Proiektuan talde osoak hartuko du parte. Ematen duzun zaintzaren kalitatea garatzen ere lagunduko dizut lantokiko ikuspegiaren eta balioen laguntzarekin.

Xedea

Proiektu honen bidez, zuk honako hauek hobetzea nahi dugu:

- a) Zaintza jasotzen dutenei egunero eskainitako zaintzaren inguruko jakintza eta ulermena
 - b) Osasun eta gizarte zaintzako lana nola egin jakiteko jakintza, zerbitzuak arautzen dituzten lege dokumentuetan ezarritako kontzeptuen ildotik
 - c) Lankideekin uneko praktikei buruz hausnartzeko, praktikak ebaluatzeko eta behar bada, aldatzeko gaitasuna, adinekoek zaintza hobea jaso dezaten
- Helburu orokorra talde lan eraginkorra indartzea da, langileak elkartu eta zerbitzuak dituzten baliabideekin garatuta.

Helburuak

Proiektuaren helburuak taldeei eta pertsonen honako hauek egiteko bidea ematea da:

- Zaintzaren kalitateak oinarrian dituen printzipioak eztabaidatzea
- *Feedback* positiboa, eraikitzailea eta kritikoa eskaintzea, pertsona eta zerbitzua garatzea* ahalbidetzeko moduan.
- Kalitatezko zaintzak oinarrian dituen balioak etengabe aldarrikatzea
- Dementia izan eta zaintza jasotzen dutenen osotasuna, duintasuna, independentzia eta gizarteratzea kontuan hartuta lan egitea

- Develop an educational, empathic and ethical approach to treatment of people with dementia and their families
- Lanari buruzko hausnartzeko ikuspegia lantzea.

Ariketa

1) Irakurri lantokiko ikuspegia eta balioak zer dioten garbi uler dezazun.

2) Ondoren (zure kabuz) pentsatu ea ondorengo hitz hauek zer esan nahi duten:

- Pribatutasuna
- Duintasuna
- Enpatia
- Hezkuntzan eta etikan oinarritutako ikuspegia
- Autonomia
- Gizarteratzea

Idatzi zer bururatu zaizun.

3) Ebaluatu egiten duzun lana beheko galderetatik abiatuta. Idatzi zer bururatu zaizun.

—Nola babestu eta sustatzen duzu zaintza jasotzen dutenen pribatutasuna, duintasuna, autonomia eta gizarteratzea?

—Dementia dutenei zaintza eta laguntza eskaintzean, nola egiten duzu lan hezkuntza, enpatia eta etika kontuan hartuta?

—Nola aritzen zara besteekin elkarlanean?

—Zer dilema etiko ikusten duzu dementia dutenei zaintza eta laguntza emateko?

4) Eztabaidatu egin duzun autoebaluazioa taldeko kideekin. Idatzi labur eztabaidan atera dituzun gai garrantzitsuenak.

5) 14 eguneko epean, behatu taldearen lana goiko galderetan oinarrituta. (Zure kudeatzaileak hori egiteko denbora ematea adostu du)

6) 8-10. asteak talde osoaren lanarekin hasiko dira eta ondoren, taldeka lan egingo da. Irakasleak talde bakoitzari gidalerroak emango dizkio.

7) Zure azterlanaren emaitzak taldeko bilera batean edo trebakuntzako egun batean aurkeztuko dira. Deskribatu ikusitako jardunbide egokiak eta identifikatu ea zure ustez, zaintzaren kalitatea zertan hobetu behar den.

Hona hemen taldeek lantzeko aukeratutako gaiak:

- Zer gertatzen da jantokian, goizeko lanean? Adinekoek zer egiten dute denbora luzean bakarrik gelditzen direnean, langileak beste pertsona batzuei laguntzen ari badira?
- Zer moduz ateratzen dira gure otorduak? Nola egiten dugu lan elkarrekin otorduetan?
- Zer gertatzen da otorduen ondoren, jantokitik kanpo?
- Nola egiten dugu langile berriei jarraibideak emateko plangintza eta jarraibideak emateko lan hori?

Amaitzean, talde bakoitzak bere proiektua aurkeztu zien lankideei eta kudeatzaileari. Ondoren, partaideak, bakoitzak bere taldean eta unitatean, hobekuntzak egiten saiatu ziren.

Hausnarketa

Hausnarketa, hausnarketarako ereduaren laguntzaz eginda, partaideei dituzten lan esperientziei buruz modu egituratuan hausnartzen laguntzeko modu ona da. Hausnarketak garapenari bideratutako ikaskuntza indartzeko aukera ematen du. Motibatu ere egiten du partaideen esperientziei erreferentzia egiten zaienean.

Hausnarketan oinarritutako eztabaidetan, irakasleek ikasleei lagundu egiten diete esperientzia teoriarekin eta osasun eta gizarte zaintzak izan behar lituzkeen balioekin lotzen. Hausnarketak partaideei lagundu egiten die arazoak hainbat ikuspegitatik ikusten ere. Ulermena sakontzea eta jakintza hedatzea ekartzen du.

Hausnarketa egiteko, 15-20 minutuko "islatze ariketa" (ikus behean) labur bat egin daiteke; edo bestela, hausnarketan oinarritutako eztabaida luzeago bat, 45-60 minutukoa.

Hizkuntza garapena sustatzea

Bigarren Hizkuntzaren Bidaia⁶⁹ liburuan, Ingrid Lindberg egileak hizkuntzaren garapena nola lagundu eta bideratu deskribatzen du. Haren aholkuak erabilgarriak dira hausnarketan oinarritutako eztabaidak gidatzen dituzten irakasleentzat.

Hemen laburtuko ditugu, puntuka, Ingrid Lindbergen aholkuak:

Sustatu parte hartzea

- Bideratu espazioa partaidetza aktiboa izan dadin
- Ireki gaiaren aukera
- Moteldu erritmoa, utzi atsedenaldira luzeagoak egiten eta eman prestatzeko denbora
- Itxaron *feedbacka* jasotzeko
- Egiaztatu ulermena
- Hartu kontuan hizkuntzaren gaia
- Eman hitza
- Eskaini laguntza ekarpen zatituak eta amaitu gabeak osatzeko.

Sortu esperantza egokiak

- Egin sarrera argi bat eztabaidaren helburua, egitura eta ikuspegia azaltzeko
- Ezarri erreferentzia esparru partekatu bat
- Iragarri eztabaidaren gaia eta adierazi argi gaian egindako aldaketak
- Nabarmendu informazio garrantzitsua.

⁶⁹Lindberg, I. (2008). Andraspråksresan. Stockholm: Folkuniversitetet.

⁷⁰Lindberg, Inger; (2011ko azaroak 7) Aurkezpena PowerPointean hizkuntza berri bat heldutan ikasteari buruz. Stockholm: ArbetSam projektua.

Lagundu gauzak ulertzen

- Eman informazioa beharren arabera
- Saiatu gauzak argi azaltzen (artikulazioa, bolumena, etab.)
- Etenaldietan, moteldu/murriztu erritmoa
- Erabili hitz arruntak eta eman azalpenak berriak eta ulertzeko zailak izan daitezkeen terminoei eta esamoldeei buruz
- Erabili diskurtso markatzaile argiak
- Errepikatu eta erabili formulazio bat baino gehiago.

Hausnarketarako ereduak

Islatzeko ariketa

Islatzeko ariketak gogoetak egiteko modu sinpleak dira. Beste pertsona baten istorioa entzutean batek aditzen duena islatu egiten da. Hala, beste pertsonaren istoriotik norberak ulertutakoa adierazten da. Irakaskuntzan, partaideek trebakuntza jasotzen dute binaka elkar islatzeko. Komunikazio trebetasunak garatzeko eredu bat da islatzeko ariketa.

Hona hemen zer helburu dituen:

- Pertsona esaten ari den horretan interesa eta konpromisoa dituzula erakustea
- Entzuten eta ulertzen saiatzen ari zarela erakustea
- Baieztapena eta *feedback*a ematea.

Ariketa

Partaideak binaka jarriko dira. A pertsonak gertaera bat edo egun batean zer egin duen kontatuko dio B pertsonari.

- Istorioa
- Ondo zer atera den

- Zer izan den zaila
 - Gertaerak/egunak zer emozio sorrarazi dizkion
- B pertsonak modu aktiboan entzun eta baietz adierazi behar dio A pertsonari, hainbat modutan eta mailatan.

Islatzeko ariketaren lau mailak:

1. Errepikatu beste pertsonak esandakoa, haren hitzak erabiliz
2. Esan beste hitz batzuekin hark esandakoa
3. Adierazi zure hitzekin beste pertsonak esandakoa
4. Islatu beste pertsonak adierazi dizunarekin sentitzen dituzun emozioak.

Hausnarketan oinarritutako eztabaida

Hausnarketan oinarritutako eztabaida sormenezko elkarrizketa bat da. Partaideek aukera izaten dute esperientziak partekatzeko, baiezkotzeko, haien esperientzia propioa ikusteko eta ikuspegiak, elkarrizketan arituta, zabaltzeko.

Helburua zaintza jasotzen dutenekin edo haien ahaideekin lan egitearen inguruko gertaera edo egoera bati buruzko hausnarketa elkarrekin egitea da. Hausnarketan oinarritutako eztabaidak lantokiaren lotuta aurretik ezarritako gai bati buruzkoak ere izan daiteke; adibidez, ahaideei laguntzea edo pertsona lehentasun duen zaintza.

Hausnarketan oinarritutako eztabaidak ez dira zer dagon ondo eta zer gaizki erabakitzeko. Taldeak gertaera eta gaien inguruan eztabaida eta hausnarketa elkarrekin egitea da kontua eta Antonovskyren ikuspegi salutogenikotik⁷¹ aukerak ikustea eta ikuspegi edo irtenbide partekatu bat adostea. Eztabaidan, partaideek aukera izaten dute zer atera den ondo, zaila zer izan den eta zer ikas daitezkeen aztertzeko.

⁷¹Ingeleserako itzultzailearen oharra: Salutogenesia terminoa Aaron Antonovsky soziologia medikoko katedratunak ekarri zuen. Terminoak gizakion osasuna eta ongizateari laguntzen dioten faktoreei arreta eskaintzen dien ikuspegi bat deskribatzen du, gaixotasuna ekartzen duten faktoreei begiratu beharrean. Zehatzago esanda, "eredu salutogenikoak" osasunaren, estresaren eta moldatzearen arteko harremanari begiratzen dio. Antonovskyren teoriak baztertu egiten dute "osasun ereduaren dikotomia tradizionala, osasuna eta gaixotasuna bereizten dituenena". Harreman hori etengabeko aldagaitzat hartzen du; "health-ease versus dis-ease continuum" esaten dio continuum horri. Salutogenesia hitz latinezko *salus*=osasuna eta grezierazko *genesis*=jatorria lotzetik dator. Antonovsky terminoa "zer egiten duen jendeak estresa kudeatzeko eta ondo egoteko" gaiaren inguruan egindako azterlanetatik atera zuen. Ikusi zuen estresa nonahikoa zela, baina pertsona guztiek ez dutela osasunaren kalterik izaten estresari erantzutean. Pertsona batzuek osasuntsu egotea lortzen dute ezindu egin dezaketen estres faktoreen eraginpean egon arren. [Hemendik: <http://en.wikipedia.org/wiki/Salutogenesis>]

Elkarrizketatzailearen/irakaslearen rola

- Ongietorria eta berotzeko elkarrizketa partaideak eztabaidarako biltzen diren bitartean
- Ezarri eztabaidarako testuingurua
 - Hausnarketan oinarritutako eztabaidaren helburua
 - Eztabaidak zaintza jasotzen dutenen eta/edo ahaideen zaintza egoerei buruzkoak izan behar dute
 - Denbora, eztabaidaren iraupena
- Konfidentzialtasuna. Esandakoa **ikasgelan** gelditzen da
 - Garrantzitsua da ikuspegi guztiak entzutea eta denek denei entzutea
- Laburtu eta amaitu eztabaida.

Hona hemen hausnarketan oinarritutako bi eztabaida eredu ezberdin.

Hausnarketan oinarritutako eztabaida, 1. eredua

1) Hasierako txanda

Hasteko, aztertu eztabaidaren egitura eta oinarriko arauak. Egin txanda bat eta partaide bakoitzak proposa dezala eztabaidarako gertaera/egoera bat. Erabaki taldean zer gaiekin hasiko zareten. Gaia proposatu duenak deskribatuko ditu gertaeraren xehetasunak.

Hausnarketan oinarritutako eztabaidak lantokiaren lotuta aurretik ezarritako gai bati buruzkoak ere izan daitezke; adibidez, ahaideei laguntzea edo pertsona lehentasun duen zaintza.

Hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariaren rola eztabaidan esaten dena entzutea da.

Hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariak ohar laburrak hartzen ditu, eztabaidaren amaieran zer entzun duen taldeari azaltzeko.

2) Hausnarketa isilean

Bakoitzak bere baitan, isilik, hausnartuko du aukeratutako gaiaren inguruan, 5-10 minutuz eta ohar laburrak idatziz jaso. Egoeraren deskribapenean zer aterata da ondo? Zer ateratzen da normalean ondo? Itxura batean, zer izan da zaila? Zer izan ohi da zaila?

Zer emozio aterata dira azalera? Adibidez, zaintza jasotzen dutenei/ahaideei eta zaintzari nola eragin die egoerak?

3) Entzuteko txanda

Partaide bakoitzak, txandaka, gaiari buruz bere kabuz egindako hausnarketak azalduko ditu eta besteek entzun egingo diote, eten gabe. Jaso idatziz hausnarketa horiek eta horiek bideratzeko erabilitako galderak eta bitartean, zuk (irakasleak) entzun partaide bakoitzak bere txandan esaten duena.

4) Galderen txanda

Hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariak denentzat eztabaida ireki eta gaia sakontzeko lehen galdera egiteko eskatuko du. Denek adieraziko dituzte gaia bideratzeko galderak gaia hainbat ikuspegi eta angelutatik lantzeko. Zati honetan, elkarrizketa irekiak izango dituzte eta denek parte hartuko dute, txandaka, gaiarekin jarraitzeko galderak eginez. Hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariak ez du elkarrizketan parte hartuko, baizik eztabaidaren forma eta edukiak behatu eta horiei buruz gogoeta egingo du. Eztabaida amaitzean, hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariak eztabaidaren laburpena egingo du eztabaidatutako gaiari buruz bere iritzirik eman gabe.

5) Laburpena eta ondorioa

Hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariak eztabaida nora eraman duen (irakasleak gidatu beharrean). Hark egingo du eztabaidaren laburpena. Partaideei eskatuko die azter ditzatela honako hauek elkarrekin:

Zertan iritsi dira antzeko ondorioetara eta zertan sortu dira iritzi ezberdinak partaideen artean? Zer ikas dezakegu eztabaidatik? Nola egingo dugu aurrera? Zer moduz joan da eztabaida? Ondoren, hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariak eztabaidari amaiera emango dio.

Bakarrik bazaude (irakaslea bakarrik, eztabaidan oinarritutako hausnarketaren gidaririk gabe) hartu zuk eztabaidan oinarritutako hausnarketaren gidari lanak. Partaideen taldeak eredu ezagutzen duenean, haiek praktikatu behar dituzte eztabaidaren gidari lanak edo hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidari lanak.

Gibbs hausnarketa eredu

Hausnarketan oinarritutako eztabaidaren eredu hau hausnarketarako Gibbs ereduaren oinarrituta dago:



Hausnarketan oinarritutako eztabaida, 2. eredu

1) Egin hasierako txanda. Bakoitzak gai bat proposatu behar du (egoera, gertaera edo gai bat; adibidez ahaideei laguntzea). Taldean, aukeratu zer gaietatik hasiko zareten.

2) Zehaztu gaia

Hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariak gaia proposatu duenari eskatuko dio azal dezala gehiago eta gaia bideratzeko galderak egin ditzake gaia argitze aldera. Taldekideei galderak egiteko eskatuko zaie.

3) Zer egoera lortu nahi da?

Zein da helburua? Gaia proposatu duenak lortu nahi den egoera eta taldeak nola laguntzea espero duen deskribatuko du.

4) Nola iritsiko gara horra?

Zer aukera dago? Zer behar dugu horra iristeko? Ba al dago horren lehenagoko adibiderik? Zeri esker funtzionatu zuen? Zein dira oztopoak? Zer baliabide daude erabilgarri? Denek eztabaidan parte hartu eta ekarpenak egingo dituzte.

5) Laburpena/amaiera

Eztabaidan oinarritutako hausnarketaren gidariak eztabaida laburtu eta eztabaidatik zer atera den azalduko du. Zer ikasi dugu? Zer moduz joan da eztabaida? Ondoren, hausnarketan oinarritutako eztabaidaren gidariak eztabaidari amaiera emango dio.

Ikaskuntza programaren ebaluazioa eta amaiera

Programa amaitu baino lehen, irakasleek partaide guztiak bilera egingo dute, banaka.

Partaideek irakaslearen gidaritzara behar dute ikaskuntzan zer bilakaera egiten ari diren jakiteko. Partaidearen kudeatzailearekin elkarrekin garatutako programetan, amaieran, irakasleak, partaideak eta kudeatzaileak elkarrekin hitz egin behar dute; lehen aipatutako hiru norabideko elkarrizketa hori egin behar dute, alegia. Ikus 1. eranskina.

Garrantzitsua da irakasleek, kudeatzaileek eta giltzarri diren langileek programaren emaitzak elkarrekin aztertzea. Horretarako, programa ebaluatu eta lantokiak ikaskuntza eta hizkuntzaren garapena nola babestu eta gara ditzakeen eztabaidatu behar dute.

ERREFERENTZIAK ETA BIBLIOGRAFIAREN ETA TXOSTENEN ERREFERENTZIAK

- Abrandt-Dahlgren, M., & Carlsson, I.(red.).** Lärande på vuxnas vis — vetenskap och beprövad erfarenhet. Lund: Studentlitteratur.
- Andersson, P., & Fejes, A.** (2005). Kunskapens värde — validering i teori och praktik. Lund: Studentlitteratur.
- Antonovsky, A.** (2005). Hälsans mysterium. Stockholm: Bokforlaget Natur och kultur.
- Axelsson, M., Olofsson, M., Philipsson, A., Rosander, C., & Sellgren, M.** (2006) Ämne och språk — språkliga dimensioner i ämnesundervisningen. Rapport inom Kompetensfonden Stockholm.
- Berglund, L.** (2010). På spaning efter arbetsvalidering — en studie av fyra organisationers synliggörande av kompetens. Lulea: Lulea tekniska universitet, Institutionen for Arbetsvetenskap, Avdelningen for Industriell produktionsmiljo. Doktorsavhandling.
- Carlsson, M.** (200) Svenska för invandrare — brygga eller gräns? Syn på kunskap och lärande inom SFI-undervisningen. Goteborg: Goteborgs universitet. Sociologiska institutionen. Doktorsavhandling.
- Ellmin, B., & Ellmin Cederholm, U.** (2006) Portfolio för professionell utveckling — att leda sig själv och andra. Malmo: Gleerups Utbildning AB.
- Ellström, B., Ekholm, B., & Ellström P-H.** (2003). Verksamhetskultur och lärande. Om äldreomsorgen som lärandemiljö. Lund: Studentlitteratur.
- Ellström, P-H., & Hultman, G.** (2004). Lärande och förändring i organisationer. Om pedagogik i arbetslivet. Lund: Studentlitteratur.
- Fredriksen, K-M., Sonne Jakobsen, K., Svendsen Pedersen, M., & Risager, K.(red.).** (2006). Second Language at Work. Roskilde University eta Iris Centre for Language eta Center for Pedagogy. ISBN: 87-7349-658-8.
- Freedman, Aviva.** (1994). 'Do as I say: The Relationship between Teaching and Learning New Genres',in Genre and the new rhetoric. Freedman, Aviva & Medway, Peter. Taylor & Francis, London.
- Freedman, Aviva & Medway, Peter.** (1994) `Locating Genre Studies: Antecedents and Prospects". in Genre and the new rhetoric. Freedman, Aviva & Medway, Peter. Taylor & Francis, London.
- Gibbons, Pauline: (2002).** Scaffolding Language Scaffolding Learning. Teaching Second Language Learners in the Mainstream Classroom. Portsmouth, NH: Heinemann.
- Gibbons, P.** (2010). Lyft språket. Lyft tånkandet. Språk och lärande. Stockholm: Hallgren och Fallgren.
- Gibbons, P.** (2013). Stärk språket, Stärk lärandet. Språk- och kunskapsutvecklande arbetssätt för och med andraspråkselever i klassrummet. Stockholm: Hallgren och Fallgren.
- Granberg, O.** (2009). Lära eller läras. Om kompetens och utbildningsplanering i arbetslivet. Lund: Studentlitteratur.
- Hajer, M.,& Meestring, S T.** (2010). Språkinriktad undervisning. En handbok. Stockholm: Hallgren och Fallgren.

Hyltenstam, K. (1993). Att återerövra sin mänsklighet. i Arnstberg, K.-O. (red), Kultur, kultur, kultur — perspektiv på kulturmöten i Sverige Stockholm: Liber utbildning.

Larsson, S. (2013). Vuxendidaktik. Fjorton tankelinjer i forskning om vuxnas lärande. Stockholm: Natur och Kultur.

Lindberg, I. (2008). Andraspråksresan. Stockholm: Folkuniversitetet.

Sandwall, K. (2013). Att hantera praktiken. Om sfi-studerandes möjligheter till interaktion och lärande på praktikplatser. Goteborg: Goteborgs universitet. Centrum for utbildningsvetenskap och lararforskning, CUL Forskarskolan i utbildningsvetenskap. Doktorsavhandling 20.

Skeppstedt, I. Utvärdering av utbildningen inom SpråkSam. Hamtat fran www.aldrecentrum.se/Utbildning/SprakSam/

Skolverket. Bildning och kunskap. Sartryck ur laroplanskommittens betankande skola for bildning (SOU 1992:94). Hamtat fran www.skolverket.se

Skolverket. (2012). Få syn på språket — Ett kommentarsmaterial om språk- och kunskapsutveckling i alla skolformer, verksamheter och ämnen. ISBN: 978-91-38326-06-0. Kan beställas fran skolverket@fritzes.se

Skolverket. (2012). Greppa språket - ämnesdidaktiska perspektiv på flerspråkighet. ISBN: 978-91-87115-26-4. Kan beställas fran skolverket@fritzes.se

Steinberg, J. (2007). Skolans nya syfte. Orebro: Eldsjalsforlaget, Steinbergs Utbildnings AB och LaroMedia AB.

Säljö, R. (2000). Lärande i praktiken — ett sociokulturellt perspektiv. Stockholm: Bokforlaget Prisma.

Sögaard Sörensen, M., & Holmen, A. (2004). At blive en del af en arbejdsplads — om sprog og læring i praksis. Danmarks pedagogiske universitet, Institution for Pedagogisk antropologi.

Tykesson, I., & Landqvist, M. (2011). Språkstimulerande övningar för personal inom äldreomsorgen. Metodutveckling med forskarstod. Stockholm: Rapporter/Stiftelsen Stockholms lans Aldrecenterum, 2011:8 ISSN 1401-5129.

Webguneak

www.aldrecentrum.se, Stiftelsen Stockholm lans Aldrecenterum.

www.andrasprak.su.se, Nationellt centrum for andraspråk, Stockholms universitet.
www.wapel-fou.se

www.lidingo.se/arbetsam, ArbetSam proiektua

www.skolverket.se

www.spsm.se, Att gora studiesituationen tillgänglig for vuxna med läs- och skrivsvarigheter/
dyslexi.Specialpedagogiska skolmyndigheten. 2011.

www.valideringsinfo.se

www.myh.se, Myndigheten for yrkeshögskolan

1. ERANSKINA

Hiru norabideko eztabaida ArbetSam proiektuan

ArbetSameko partaideek laguntza eta babesa jaso zuten ikaskuntza prozesuan hizkuntza garatzeko eta trebetasun profesionalak eskuratzeko. Partaideen jakintza eta gaitasunak garatzearen helburua garapen pertsonalari autoestimua eta trebetasun sozial hobeei ekitea eta lan merkatuko posizioa indartzea zen. Proiektuko ikaskuntza formala partaideen ahalmen eta beharretan, eta enplegatzaile-enpresek eskatutako jakintzan eta trebetasunetan oinarritu zen.

- Partaide bakoitzak bere ikaskuntza plana zuen, bakoitzaren indarguneetan oinarrituta eta
- Ikaskuntza formalaren helburuak (hizkuntzari eta jakintza profesionalari lotutako helburuak)
- SFI eta SVAREN suedierako ikastaroak eta/edo osasun eta gizarte zaintzaren programako ikastaroak
- Plangintza bat ikaskuntzaren helburuak nola lortu eta partaideek eta irakasleek ikaskuntza noiz ebaluatuko duten ezartzeko.

ArbetSam proiektuaren helburuetako bat partaidearen, kudeatzailearen eta irakaslearen artean, ikaskuntza programan gutxienez bi aldiz hiru norabideko eztabaida bat gidatzea izan zen.

Hiru norabideko eztabaida hori egin baino lehen, garrantzitsua da irakasleak eta kudeatzaileak eztabaida hori nola egingo den adostea. Irakasleak du hiru norabideko eztabaida gidatzeko eta eztabaidak arreta partaidearen egoerari eta proiektuan izandako bilakaerari eskaintzen diola ziurtatzeko ardura. Eztabaidan, partaidean garapena kontuan hartu eta ebaluatu egin behar da, bakoitzaren ikaskuntza planarekin lotuta.

Partaideei eztabaidan parte hartzen lagundu behar zaie. Horretarako, aurretik informazioa eman behar zaie, eztabaidak nolako izan behar duen azaltzeko. Partaideei denbora ere eman behar zaie, haien kabuz bakoitzak bere ikaskuntza plana eta hiru norabideko eztabaidarako galderak azter ditzan. Horrela, aukera izango dute hausnarketa egin eta eztabaida prestatzeko (ikus hiru norabideko eztabaidarako galderen inguruan behean jarri ditugun iradokizunak). Eztabaidan, partaideek

garapenerako helburuak eta/edo laguntza jasotzeko beharrak eta ikaskuntza planean egin beharreko aldaketak identifikatu behar dituzte. Hiru norabideko eztabaida eraginkorra izateko, lagungarria da irakasleak honako hauek egitea:

- Eztabaidaren testuingurua finkatzea: hiru norabideko eztabaidaren xedea eta helburuak erreparatzea
- Eztabaida nola egingo den azaltzea; zenbat iraungo duen ere bai
- Partaideari eta kudeatzaileari galdetzea ea baden eztabaidan aipatzea nahi duten zerbait
- Eztabaida partaidearen arazoak gogoan hartuta gidatzea eta eztabaidan parte hartzen duen kudeatzaileari partaidearen jakintza eta trebetasunak aitortu eta nabarmendu ditzala eskatzea. Partaideak ikaskuntzaren helburuak identifikatzen dituenean, ea kudeatzailea ere ados dagoen egiaztatzea eta lantokiak zer laguntza eskain dezakeen galdetzea
- Aipatutakoa laburtzea eta eztabaidako partaideek gauzak berdin ulertu dituztela baieztatzea
- Eztabaida amaitzeko, alderdiei beste zerbait aipatu nahi ote duten galdetzea eta, ondoren, jorratutakoa laburtzea eta partaideek ikaskuntzarako helburuetan aurrera nola egin nahi duten jakitea.
- Partaide bakoitzaren ikaskuntza plana eguneratzea.

Hiru norabideko eztabaidarako iradokitako galderak

Esan zer iruditzen zaizun ArbetSam proiektuko ikaskuntza formaleko programa.

Zerekin zaude pozik / Zure ustez, zerk funtzionatzen du ondo? Zer babes jasotzen duzu lantokitik?

Lanean zure ezagutza berriak erabili ez badituzu, zehaztu ezagutza horiek nola erabiliko zenituzkeen lanean.

Zer da zaila? Zer iruditzen zaizu aldatu/hobetu/garatu behar zenukeela?

Zer egiteko asmoa duzu ArbetSam proiektuaren ondoren? Zer helburu dituzu lanerako eta gaitasunak garatzeko? (ikastaroak, lankideen laguntza, etab.)

Zer aukera dituzu? Nola erabil ditzakezu aukera horiek? Norbaiten laguntza behar al duzu (irakasleak, lankideak, kudeatzailea, etab.)?

Izan al duzu jakintza berria lanean erabiltzeko aukerarik? Azaldu adibideen bidez lanean zer jakintza erabili duzun eta zer moduz moldatu zaren.

2. ERANSKINA

1. adibidea: Tokiko ikaskuntza programaren plana

SpråkSam, 2009ko iraila

Tokiko ikaskuntza programa, XX Egoitzako Zaintza Zerbitzuaren garapen beharrak lantaldearekin egindako eztabaidan identifikatutako eta ezarritako moduan oinarri hartuta. Planari buruzko informazioa eman du tokiko agintaritzaren Adinekoen Zerbitzuko 2009ko abuztuko Ekintza Planak ere. SpråkSam proiektuaren helburua XX udalerriren enborreko balioen proiektuan elkarlanean aritzea eta horri laguntzea da.

Helburua

Zerbitzu horrek SpråkSam proiektuan parte hartzearen helburua partaideek hizkuntza eta trebetasun profesionalak garatzea da, duintasunean oinarritutako kalitatezko zaintzaren helburua lortzeko.

Helburuak (uneko analisisan oinarrituta)

SpråkSam proiektuaren XX helburuak langileentzat hauek dira:

- Suediera irakurtzea eta ulertzea eta pertsonentzako zaintza emateko trebetasun praktikoak erakustea
- Arlo sozialeko dokumentazioa eraginkortasunez erabiltzea.
 1. Adinekoarekin/zaintzailearekin⁷³/ahaideekin batera, zaintza plana idaztea, zaintza plan xehea⁷⁴ eta egoiliarrantzako asteroko plangintza idaztea
 2. Egunkari soziala eguneratzea gertaera garrantzitsuak eta gorabeherak jasotzeko
- Lankideekin hitz egitea eta adinekoek zaintza planeko, plan xeheko eta asteroko plangintzako laguntza nola nahi duten idatziz jasotzea
- Zaintza eta errehabilitazio beharretan

izandako aldaketak idatziz jasotzea

- Osasun zaintzako langileek egoiliar bakoitzarentzat emandako jarraibideak irakurtzea, ulertzea eta betetzea
- Lankideekin hitz egitea eguneroko lanaren plangintza unitateko adinekoekin batera egiteko
- Taldeko bilerak gidatzea eta/edo horretarako astia hartzea ordutegian
- Adinekoekin dituzten behar sozialei (adibidez, harreman soziala eta jardueretan parte hartzea) eta interesei buruz hitz egitea Bakoitzaren baliabideak sustatzea eta adinekoek laguntza ematea eguneroko jarduera egokiak egin ditzaten
- Interakzio soziala sortzea adinekoekin eguneroko elkarrizketa adeitsuak izanda; adibidez, otorduetan eta kafea hartzeko atsedendietan
- Adinekoek egiten dituzten ospakizunak eta dituzten tradizioak ulertzea eta horietan laguntzea
- Informazioa ematea eta elkarrizketa adeitsuak izatea zaintza pertsonal intimoaren inguruan.

Ikaskuntza programaren edukia

- Irakurketa, idaztea eta elkarrizketarako trebetasuna
- Ahozko komunikaziorako trebetasunak eta gorputz mintzaira
- Taldeko lana ikuspegi profesionaletik eta etikotik
- Gizarte zaintza
- Lege arloko dokumentuak
- Pertsonalizazioa
- Arlo sozialeko dokumentazioa
- Otorduak
- Interakzio sozialak, jarduerak

Lantokian ikasteko egiturak eta metodoak

Ikaskuntza programaren abiapuntua partaide bakoitzaren idazkuntzako gaitasuna eta irakurmena

⁷³Ikus 64. oin oharra: Ingeleserako itzultzailearen oharra: Suedian, bere interesak babesteko gai ez den pertsona heldu bat ordezkatzeko agintariek izendatutako pertsonak dira zaintzaileak.

⁷⁴Ingeleserako itzultzailearen oharra: Zaintza plan xehea zaintza plan orokorrak baino xehetasun gehiago biltzen dituen dokumentu bat da.

identifikatzea da. Partaideek komunikazio trebetasunen autoebaluazioa ere egingo dute Europako Hizkuntza Eskalaren arabera. (EEEF): entzumena, irakurmena, ahozko interakzioa, ahozko ekoizpena eta idazmena. Ikaskuntza partaidearen uneko jakintzaren, esperientzien eta beharren arabera izango da. Partaideek gidaritza jasoko dute bakoitzaren ikaskuntza helburuak lortze aldera, horrela, tokiko ikaskuntza planaren helburu orokorrak ere betetzeko. Enplegatzailearen eta *coach*aren lantokiko materiala erabiliko dugu enpresaren trebakuntza gelan eta adinekoekin lan egiteko zerbitzua eskaintzen den guneetan zuzenean ere bai.

Lan bildumaren ikuspegia erabiliko dugu hizkuntza eta jakintza garatzeko eta partaide bakoitzak bere ikaskuntzaren ardura hartuko du tokiko ikaskuntza planaren helburuen baitan. Bakoitzaren ikaskuntza planak etengabe eguneratuko dira langileei sortutako erronka berrien arabera. Aldizka, langileei helburu espezifikoak jarriko zaizkie eguneroko lanean praktikatzeko elementuak argi finkatuta.

Tokiko ikaskuntza planaren gaitasun helburuak eguneroko zaintza laneko trebakuntza praktikotan bereiziko dira. Prozesu horrekin batera, SFIren eta zaintza programaren ikastaroak balioztatu ahal izango dira.

Feedback sistematikoa

Lanean ari diren taldeek maiz izango dituzte bilerak lantokian, SpråkSam proiektuaren edukia eta ezartze lanak ebaluatzeko, hala, ikaskuntza egunero adinekoekin egiten duten lanean txertatu ahal izateko.

2. adibidea: Tokiko ikaskuntza programaren plana ArbetSam, 2011ko urria

Sarrera

XX Egoitzako Zaintzak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu; hala nola demenzia medio mendekotasun handiko zaintza beharrak dituzten adinekoentzako egoitzako zaintza eta ostatu babestua eta laguntzadun bizimodua osasun mentalari lotutako beharrak dituzten adinekoentzako. Badago, epe laburreko atsedenerako zaintza unitate bat ere.

XX-(e)n sei apartamentu egitura daude, eta guztira 157 apartamentu. Egitura bakoitzak hiru multzo ditu eta multzo bakoitzak zortzi edo bederatz

apartamentu. Egun osorako 122 daude eta langile taldeak 24 orduko zerbitzua eskaintzen du. Horien artean daude erizain trebatuak, erizain laguntzaileak eta zaintzako langileak. Horiez gain, fisioterapeutak eta errehabilitaziorako terapeutak ere ekartzen dituzte behar denean taldeak osatzeko. XX laku baten ondoan dago, inguru zoragarrian, eta udalerriak kudeatzen du. XXko lantaldea askotarikoa da hezkuntzako ibilbideari eta esperientzia profesionalari begiratuta eta 33 hizkuntza talde ordezkatzeko ditu.

XXko adineko egoiliarrek behar duten eta dagokien kalitatezko zaintza segurua eskaintzeko, askotariko behar konplexuak dituztela kontuan hartuta, langileek maila altuko oinarritzko gaitasunak izan behar dituzte. Etengabeko garapen profesionala ere gauzatu behar izaten dute langileek, jakintza berria eskuratzeko. Adineko egoiliarrekin interakzioa izatea funtsezkoa da langile horien lanean. Interakzioetan, langileek arreta handia eskaini eta sentiberatasunez jokatu behar izaten dute egoiliarrek esan nahi dutenaz jabetzeko. Interakzio horien bidez benetako elkarrizketak egiteko baldintzak sortzen dira eta adinekoek ikusiak eta entzunak izatea lortzen dute eta, beraz, konfiantza hartu eta seguru sentitzen dira. ArbetSam proiektuaren helburua hizkuntza bidezko komunikazioa handitzea eta hizkuntzaren garapena sustatzen da.

ArbetSam

ArbetSam lantokiko ikaskuntzarako programa bat da, adinekoen zaintzari lotutakoa. Proiektua 2011ko otsailean hasi zen eta 2013ko abenduaren 30era arte izan zen abian. Europako Gizarte Funtsak finantzatutakoa da. Lidingö hiria da kudeatzailea. Proiektua Lidingö hiriak kudeatzen du, Stockholmeko Gerontologia Ikerketako Zentroaren Fundazioarekin batera. Proiektuaren helburuen artean dago Stockholm eskualdeko udalerrri, barruti eta zaintza hornitzaile pribatuen 60 lantoki eta 800 langilerekin lan egitea. Langileek ikaskuntza indibidualizatua jasotzen dute lantokian, talde txikitan. Ikaskuntza programa helduen hezkuntzako eta SFIko (suediera etorkinentzako) irakasleek eskaintzen dute. Ikastaroaren edukia, neurri batean, lantokiaren eta pertsona bakoitzaren beharretan oinarrituta egongo da; baita osasun eta gizarte zaintzako programa ofizialeko ikastaroetan eta FSI eta suediera hizkuntza osagarri gisa ikasteko programetan ere.

Proiektuaren helburu nagusiak lau maila ditu: pertsona bakoitza, erakundea, hezkuntza eta informazioa. Pertsona bakoitzari dagokionez, proiektuak indartu egingo du partaideak uneko lantokian eta lan merkatuan duen posizioa, trebetasun profesionalak indartuz, hizkuntza eta gizarte zaintzako jakintza hobetuta. Helburua, zeharka bada ere, partaideen autoestimua indartzea ere bada.

Erakundeei begira, helburua ikaskuntzako lantoki iraunkor baterako baldintzak sortzea da. Hezkuntza aldetik, helburua metodologia eta lantokiko ikaskuntza integratuko ereduak ezartzea eta neurtzea da. Informazioaren mailako helburua proiektuko jakintza eta haren emaitzak beste enpresengana, gizartearengana oro har, legegileengana eta ikertzaileengana hedatzea da.

Helburua XX zaintzan eta babestutako alojamenduan

XXko proiektuaren helburu orokorra partaideen gaitasun profesionala sakontzea da, hizkuntzan eta gizarte zaintzan duten jakintza indartuz eta garatuz, XXko adinekoen zaintzari eta eguneroko zaintza lanari arreta eskainita. Beste helburua hizkuntza garapenerako eta ikaskuntzarako baldintzak sortzea eta ezartzea da, proiektuaren amaierarako, eguneroko jardueren parte izan dadin.

Ikaskuntzaren emaitzak eta helburua

Proiektuak partaide bakoitzarentzat izatea nahi dugun ikaskuntzako emaitzetan daude honakoen inguruko ulermena sakontzea eta/edo ahalmena garatzea:

- Entzutea, ulertzea, irakurtzea, idaztea, hitz egitea, interakzioan oinarrituta komunikatzea eta testuinguruak identifikatzea eta ulertzea eta hitzik gabeko komunikazioa (ArbetSam proiektuko helburuen katalogotik)
- Hizkuntza idatziaren eta ahokoaren arteko aldeak kudeatzea
- Hizkera jasoaren edo formalaren eta eguneroko hizkera informalaren arteko trantsizioak kudeatzea; hau da, hizkuntzaren erregistroa, tonua eta abar.

- Egoiliarrekin, ahaideekin eta lankideekin jokabide profesionala izatea
- Ahaideekin hitz egitea
- Lanean telefono deiak jasotzea
- Lex Sarah⁷⁵ ulertzea, jakinarazpenik ez bidaltzearen prozedura
- Datuak idatziz jasotzea, Parasol informazioa idatziz jasotzeko sistema elektronikoaren bidez
- Lanean posta elektronikoa erabiltzea
- Lege arloko funtsezko dokumentuak erabiltzea
- Lantokiko bileretan modu aktiboan parte hartzea
- Funtsezko balioen proiektuan modu aktiboan parte hartzea

Ziurtagirien helburuak:

SFIren edo SVAREN oinarritzko mailako ziurtagiririk ez duten partaideek ziurtagiri horiek lortzeko lan egiteko aukera izango dute. SVAREN oinarritzko mailako ziurtagiriek aukera ematen dute osasun eta gizarte zaintzako programan sartzeko Osasun eta gizarte zaintzako programan lehendik ikastarorik egin ez duten partaideei osasun eta gizarte zaintza programa berriko "Osasun eta gizarte arloko zaintza 1" ikastaroa eskaintzen zaie. Batxilergoko 200 punturen baliokidea da. Osasun eta gizarte zaintzako programan lehendik ikastaroren bat egin duten partaideei osasun eta gizarte zaintza programa berriko "Adinekoen osasuna eta bizitza kalitatea" ikastaroa eskaintzen zaie. Batxilergoko 200 punturen baliokidea da. Proiektuaren amaieran, partaide guztiek jasotzen dute egin dituzten ikastaroak biltzen dituen ziurtagiria, ikastaroaren edukia, iraupena eta abar zehaztuta.

Ikuspegia

Gaien integrazioa eta lantokiko integrazioa

Hizkuntza irakasle batek eta zaintzako irakasle batek emango dituzte ikasgai integratuen eskolak. Ikasgaien integrazioa diogunean, elkarlanean egindako plangintzan oinarritutako eskolez ari gara. Batetik, suediera hizkuntza osagarri gisa; bestetik, zaintzako gaiak.

⁷⁵Ingeleserako irakaslearen oharra: Lex Sarah lege bat da (erizain laguntzaile baten izena du) eta adinekoen zaintzako langileei eskatzen die eman diezaiotela udalerriri praktikak okerren eta/edo arrisksuen berri, eta ondoren, hari gertatutakoa ikertzeko eskatzen zaio.



Irakasleek neurri berean hartuko dute parte eskolak ematen eta adinekoen zaintzari etengabe jarriko diote arreta.

Eskolak ere lantokian integratuta egongo dira. Horrek esan nahi du eskolek lantokiko eguneroko jardueretan oinarrituta egon behar dutela. Programaren egituraren eta edukiaren plangintza elkarlanean egiten dira kudeatzaileekin eta giltzarri diren XXko beste langile batzuekin batera. Partaideek etengabe jasoko dute eskolen edukiari forma emateko bultzada eta zaintza lanean dituzten esperientziak eta suedierari lotutako dilemak azaltzeko eskatuko zaie. Esaterako, saioetara hitz eta esaldi zailak, erabat ezezagunak ekartzeko eskatuko zaie. Partaideek lantokian erabiltzen dituzten dokumentuak aztertu eta horien erabilera praktikatu ere egingo dute. Lantokian aurrez egindako ikastaroen/informazio saioen materialak eta edukiak aztertu/errepikatu egin daitezke; adibidez, mugitzeko eta posizionatzeko teknika, Silvia Sisters, Dementia-ABC⁷⁶ eta arlo sozialeko dokumentazioa.

Saioetako materiala eta edukia

“Osasun eta gizarte arloko zaintza 1” eta “Adinekoen osasuna eta bizitza kalitatea” ikastaroen ikasketa programak lantokiko eguneroko zaintza lanari ahalik eta gehien lotzen zaizkio. Partaideek zaintza lanean

izandako esperientziak nabarmendu egiten dira eta rol garrantzitsua hartzen dute. Era berean, XXko dokumentu garrantzitsuak eta laneko prozedurak ere ikasketa programari lotuko zaizkio.

Dagokion arloko kudeatzaileari saioaren edukia eta abar posta elektronikoz jakinaraziko zaizkio; baita saioetara bertaratu izanari buruzko astean behingo txostena ere.

Etxerako lanak

Eskolen artean, partaideek etxerako lanak izango dituzte; bai talde osoak egitekoak, bai bakoitzari egokitutakoak. Hizkuntza laguntzaileei eta dagokion arloko kudeatzaileei etxeko lanen berri emango zaie astean behin, posta elektronikoz.

Bana-banako ikaskuntza planak

Ikaskuntza programa partaide bakoitzaren hezkuntzako ibilbidea ikuskatzetik hasten da. Suedieran dituen trebetasunak (irakurmena, idazmena eta entzumena), ordenagailuaren erabilera eta ikaskuntzako beste behar eta helburu batzuk aztertzen dira. Galdera sortan oinarrituta, partaide bakoitzarentzako ikaskuntza plan bat (1. eranskina) sortzen da. Tokiko ikaskuntza planarekin bat etorriko da ikaskuntza plan hori. Ondoren, partaideek bakoitzaren ikaskuntza planean oinarritutako tutoretza jasotzen dute, helburu indibidualak eta

⁷⁶Ingeleserako itzultzailearen oharra: Silvia Sisters etengabeko garapen profesionalerako programa bat da eta demenzia dutenak zaintzeko trebakuntza espezializatua eskaintzen die erizain laguntzaileei (dedikazio partziala bi urtez). ABC lineako trebakuntza ikastaro bat da, demenziaren inguruko oinarritzko zaintzari lotutakoa.

tokiko ikaskuntza programaren planeko helburu orokorrak lortzeko. Bakoitzaren ikaskuntza plana dokumentu bizi bat da eta ikastaroan zehar behin eta berriro aztertu eta berrikusten da. Ikaskuntza plan horrek partaide bakoitzari aukera ematen dio egokitutako etxerako lanak jasotzeko.

Lan bilduma

Proiektuan, partaide bakoitzak bere lan bilduma (hau da, paper zorro bat) egin behar du. Lan bilduma horrek dokumentatutako aurretiazko gaitasun profesionalen (diplomak, ziurtagiriak, kredituak, etab.) irudi sakona eta antolatua ematen dio partaideari, eta horrekin batera, ArbetSam proiektuko ikaskuntza materialen eta egindako jardueren bilduma ordenatua. Honako hauek izan behar ditu lan bildumak:

- Bana-banako ikaskuntza plana
- ArbetSam proiektuko ikaskuntzako materialak eta egindako ariketak
- Aurreko ziurtagirien, diplomen eta kredituen kopiak

Hiru norabideko eztabaida

Ikasleak bi alditan izango du irakaslearekin eta unitateko kudeatzailearekin hiru norabideko eztabaida bat izateko aukera. Bana-banako ikaskuntza planaren plangintza, segimendua eta ebaluazioa egiteko izango da eztabaida. Eztabaida

horien datak hauek dira: 2012ko urtarrila eta 2012ko azaroa. Gehiago ere antola daitezke. Hiru norabideko azken eztabaida, 2012ko azarokoa, honako hauek lantzeko da: Partaideak zer beste garapen bilatu edo egin behar luke?

Plangintza egiteko bilerak


Irakasleek, unitateko kudeatzaileek eta giltzarri diren beste langile batzuek maiz egingo dituzte bilerak ArbetSam proiektuaren plangintza, segimendua eta ebaluazioa egiteko.

Hizkuntza laguntzaileak eta hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariak

XXko hizkuntza laguntzaileek eta hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariak zaintzako irakasleen eta SFI irakasleen laguntza jasoko dute XXko lanean. Horretarako, maiz egingo dituzte bilerak, esperientziak partekatze aldera.

Hizkuntza laguntzaileek eta hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidariak programaren edukian parte hartu behar dute, neurri batean, edukia lantokiarekin lotuta dagoela ziurtatzeko eta neurri batean, ArbetSam proiektuko partaideei ikaskuntza saioen artean laguntza emateko. Edukiaren inguruko iradokizunak eta eskakizunak egiteko helburua eta ikaskuntza osagarriko saioetan parte hartzeko gonbidapena ere jasoko dituzte.

Gaitasunak ikuskatzetik bana-banako ikaskuntza plana eta lan bilduma egitera



Dokumentazioaren arduraduna/ordenagailua erabiltzeko trebetasunak

Irakasleek XXko dokumentazioaren arduradunarekin lan egin behar dute arlo sozialeko dokumentazioaren inguruan (hau da, informazioa idatziz jasotzea eta txostenak egitea). Tokiko ikaskuntza materialak arlo sozialeko dokumentaziorako eskolekin lotuta erabiliko dira. Ordenagailua erabiltzeko trebetasunak garatu beharra duten partaideek ArbetSam proiektuko irakasleen laguntza jasoko dute enplegatailearen-erakundearen dokumentazio kudeatzailearekin batera plangintza egin ondoren.

ArbetSam - lantokiko eragileak



Tokiko ikaskuntza plana garatzean irakasleek eta kudeatzaileek aintzat hartzeko eztabaidarako gaien iradokizunak:

- Zer gai sartu ikaskuntza programan lantokian gaitasunak garatzeko dauden beharretan oinarrituta
- Nola txertatu ikaskuntza programa lantokiko beste garapen lanetan
- Nola egin dezakeen lantokiak plangintza partaideei laguntzeko eta haien trebetasunak baliatzeko, jakintza praktikan jarri eta eguneroko ohiko lanera aplikatzeko moduan
- Nola egituratu irakaslearen, kudeatzailearen eta giltzarri diren langileen arteko elkarlana
- Giltzarri diren langileek nola lagun diezaiekeen partaideei ikaskuntza programako saioen tartetan
- Nola gauzatuko den komunikazioa kudeatzaileen, giltzarri diren langileen eta irakasleen artean; adibidez, zenbatean behin egingo dituzten bilerak (izan antolaera bat edo bestea) eta zenbatean behin emango dieten irakasleek *feedback*a kudeatzaileei eta nola
- Testuinguruari buruzko informazioa: izena, lanerako tokia, kudeatzailearen izena, jaiotza urtea, laneko telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, kudeatzailearen helbide elektronikoa

3. ERANSKINA

Bana-banako ikaskuntza planaren txantiloia

Suediera hizkuntza osagarri duten partaideentzako elkarrizketa inprimakia

- Suedieraz gain, hitz egiten al duzu beste hizkuntzarik?
- Zer hezkuntza eta trebakuntza jaso duzu?
- Nolakoa izan da ikaskuntza zuretzat?
- Zenbat denboran aritu zara adinekoen zaintzan/desgaitasunak dituztenen zaintzan?
- Zenbat denbora daramazu oraingo lantokian lanean?
- Izan al duzu beste lanik? Zer egiten zenuen beste lan horietan, eta zenbat denboran aritu zinen?
- Ordenagailua erabiltzen duzu hauek egiteko?

Mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko

Internet arakatzeko

Dokumentuak idazteko

Zaintza planean eta egunkari sozialean oharrak hartzeko, adibidez, ParaSol erabiliz (informazioa idatziz jasotzeko sistema elektronikoa bat)

- Erabiltzen al duzu gailu mugikorrik (adibidez, smartphonea, tableta...)?

Ikaskuntza programari buruz

- Ba al dago ikaskuntza programan sartzea bereziki gustatuko litzazukeen zerbait?
- Ikaskuntza programan, arreta zeri eskaintzea nahi duzu?

- Guk, irakasleok, nola lagunduko genioke zure ikaskuntzari programaren baitan?

Suediera hizkuntza osagarri duten partaideentzako elkarrizketa inprimakia

- Testuinguruari buruzko informazioa: izena, lanerako toki, kudeatzailearen izena, jaiotza urtea, laneko telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, kudeatzailearen helbide elektronikoa
- Zein da zure lehen hizkuntza?
- Zure lehen hizkuntzaz eta suedieraz gain, hitz egiten al duzu beste hizkuntzarik? Zein?
- Zenbat denbora daramazu Suedian bizitzen?
- Suediara etorri aurretik, zenbat urteko hezkuntza jaso duzu (eskola, unibertsitatea, etab.)?
- Nolakoa izan da hezkuntza zuretzat?
- Zertan zenbiltzan Suediara etorri aurretik?
- Jaso al duzu hezkuntzarik edo trebakuntzarik Suedian? Zer?
- Nolakoa izan da ikaskuntza zuretzat?
- Zenbat denbora daramazu Suedian adinekoak zaintzen? Zenbat denbora daramazu oraingo lantokian lanean?
- Izan al duzu beste lanik Suedian? Zer egiten zenuen beste lan horietan, eta zenbat denboran aritu zinen?
- Ordenagailua erabiltzen duzu hauek egiteko?
 - Mezu elektronikoak bidaltzeko eta jasotzeko
 - Internet arakatzeko
 - Dokumentuak idazteko
 - Zaintza planean eta egunkari sozialean oharra hartzeko, adibidez, ParaSol erabiliz (informazioa idatziz jasotzeko sistema elektronikoa bat)
- Erabiltzen al duzu gailu mugikorrik (adibidez, smartphonea, tableta...)?

Ikaskuntza programari buruz

- Ba al dago ikaskuntza programan sartzea bereziki gustatuko litzaizukeen zerbait?
- Osasun arloko zaintzari eta hizkuntzari lotutako adibideak
- Ikaskuntza programan, arreta zeri eskaintzea nahi duzu?
 - Suedierari
 - Osasun eta gizarte arloko zaintzari
- Guk, irakasleok, nola lagunduko genioke zure ikaskuntzari programaren baitan?

Bana-banako ikaskuntza planaren txantiloia

Hizkuntza laguntzarik gabe ikasten duten langileak

Laneko rolean ditudan indarguneak eta garatu beharreko arloak
Ikaskuntzaren eta garapenaren helburuak:
Helburu horiek lortzeko, hau egin behar dut:
Aste honetan ebaluatzeko helburuak: honekin batera Ebaluazioa:
Honako hau landu behar dut gehiago:

Partaidearen sinadura:

Partaidearen kudeatzailea:

Irakaslearen sinadura:

Bana-banako ikaskuntza planaren txantiloia

Ikaskuntzan suediera hizkuntza osagarri gisa txertatuta duten partaideak

Laneko rolean ditudan indarguneak eta garatu beharreko arloak				
Nire indargunea suedierazko (edo beste hizkuntzetako) komunikazioan eta garatu beharreko arloak				
Ahozko interakzioa	Ahozko ekoizpena	Entzumena	Irakurmena	Idazmena
Arlo profesionaleko helburuak eta ikaskuntzaren helburuak:				
Hizkuntzari lotutako helburuak:				
Helburu horiek lortzeko, hau egin behar dut:				
Aste honetan ebaluatzeko helburuak: honekin batera				
Ebaluazioa:.....				
Honako hau landu behar dut gehiago:				

Partaidearen sinadura:

Partaidearen kudeatzailea:.....

Irakaslearen sinadura:



EUROPEISKA UNIONEN
Europeiska socialfonden



